



2013



Ebaluazio diagnostikoa

Ikasten ikasteko konpetentzia

Lehen Hezkuntzako 4. maila eta DBHko 2. maila



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Argitaratzailea: **Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI)**

Asturias 9, 3.- 48015 Bilbo

info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

Txostena egin dutenak: Araceli Angulo eta Alfonso Caño (ISEI-IVEI).

Aholkularitza eta gainbegiratze teknikoa: José Luis Tranche (ISEI-IVEI).

Aholkularitza/Kanpo-laguntza: Begoña Iturgaitz (Leioako Berritzegunea), Rosa Ortega (Berritzegune Nagusia), Marisa Revilla (Zaratamoko Berritzegunea) eta Beatriz Ugarte (Arabako Berritzegunea).

2014ko ekaina

AURKIBIDEA

1. IKASTEN IKASTEKO KONPETENTZIAREN EBALUAZIOAREN EZAUGARRIAK	3
1.1. Konpetentziaren ezaugarriak	4
1.2. Ebaluazioaren helburuak	5
1.3. Datu teknikoak.....	5
1.3.1. Laginaren tamaina	5
1.3.2. Probaren antolaketa eta koaderno motak.....	6
1.4. Txostenaren egitura	6
2. IKASTEN IKASTEARI BURUZKO ONDORIO OROKORRAK	8
3. LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILAKO EMAITZAK.....	13
3.1. Emaidza orokorra eta dimentsioen arabera.....	13
3.2. Ikasleen banaketa errendimendu mailen arabera.....	13
3.3. Emaidzen sakabanaketa ISEK mailaren arabera	14
3.4. Emaidzak geruzen arabera: hizkuntza-eredua eta hezkuntza-sarea.....	16
3.4.1. Emaidza orokorrak	16
3.4.2. Ikasleen banaketa errendimendu mailen arabera.....	17
3.4.3. Emaidzak geruzen eta ISEKen arabera	17
3.5. Lehen Hezkuntzako 4. mailako emaidzak zenbait aldagaitatik abiatuta.....	18
3.5.1. Emaidzak ikaslearen sexuaren arabera.....	18
3.5.2. Emaidza orokorrak irakasmilan ikaslearen adin-egoitasun-egoeraren arabera	20
3.5.3. Emaidzak familia-hizkuntzaren eta probako hizkuntzaren arabera.....	20
3.5.4. Ebaluatutako gainerako konpetentzien eta Ikasten ikasteko konpetentziaren emaidzen arteko korrelazioa.....	22
3.5.5. Emaidzak konpetentzien eta arloetako errendimenduaren arabera	22
3.5.6. Etxeko lanei eskainitako orduen arabera.....	23
3.5.7. Etxeko lanak egiteko laguntza	25
3.5.8. Emaidzak curriculum arloetan zailtasun mailarekin lotuta	26
3.6. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ondorioen laburpena	28
4. DBHko 2. MAILAKO EMAITZAK.....	31
4.1. Emaidza orokorra eta dimentsioen arabera.....	31
4.2. Ikasleen banaketa errendimendu mailen arabera.....	31
4.3. Emaidzen sakabanaketa ISEK mailaren arabera	32
4.4. Bilakaera geruzen arabera (hizkuntza-eredua eta hezkuntza-sarea).....	34
4.4.1. Emaidza orokorrak	34



4.4.2.	Ikasleen banaketa errendimendu mailen arabera.....	35
4.4.3.	Emaitzak geruzen eta ISEKen arabera	35
4.5.	Emaitzak, zenbait aldagairen arabera DBHko 2. mailan.....	36
4.5.1.	Emaitzak ikaslearen sexuaren arabera.....	36
4.5.2.	Emaitza orokorrak irakasmilan ikaslearen adin-egoitasun egoeraren arabera	38
4.5.3.	Emaitzak familia-hizkuntzaren eta probako hizkuntzaren arabera.....	39
4.5.4.	Ebaluatutako beste kompetentzien emaitzen eta Ikasten ikasteko kompetentziaren arteko korrelazioa.....	40
4.5.5.	Emaitzak kompetentzien eta arloetako errendimenduaren arabera	40
4.5.6.	Etxeko lanei eskainitako orduen araberako emaitzak.....	41
4.5.7.	Etxeko lanak egiteko laguntza.....	42
4.5.8.	Emaitzak curriculum arloetan zailtasun mailarekin lotuta	44
4.6.	DBHko 2. mailako ondorioen laburpena	45
5.	ESKU-HARTZE PROPOSAMENAK	46
5.1.	Ikasgelara eramateko proposamena.....	46
5.2.	Marko teorikotik ateratako kompetentzien dimentsioak	51
1.	eranskina. Hezkuntza arloko jardunbideei buruzko irakasleentzako autoebaluazio-taula	61
2.	eranskina. Lehen Hezkuntzako 4. mailan errendimendu mailen garapena ebaluatutako itemetatik abiatuta	63
3.	eranskina. DBHko 2. mailan errendimendu mailen garapena ebaluatutako itemetatik abiatuta	65
4.	eranskina: Lehen Hezkuntzako 4. mailako item liberatuak	67
5.	eranskina: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako item liberatuak.....	95

1. IKASTEN IKASTEKO KONPETENTZIAREN EBALUAZIOAREN EZAUGARRIAK

2012-2013 ikasturtearen amaieran, *Ikasten ikasteko kompetentzia* ebaluatzeko lanari ekin zitzaion Ebaluazio Diagnostikoaren testuinguruan (ED13); Euskal Autonomia Erkidegoan lan horretan ari dira 2009tik. 2010ean hasitako prozesuaren amaiera izan da, kompetentziaren Marko teorikoa egin zutenekoa eta ondoren martxan jarri ziren (ED11) itemak diseinatu zirenekoa.

Autonomia Erkidego honetan lehen aldiz ebaluatu da kompetentzia hau, hainbat zailtasun izan baitira tartean: esperientzia eskasa nazio mailan eta nazioarte mailan eta kompetentziaren izaeran bertan, alorrekin edo materia curricular zehatzekin identifikatu gabe.

Hala eta guztiz ere, euskal irakas-sistema oinarrizko kompetentzia honen garapen mailari dagokionez zer egoeratan dagoen jakitea zen helburu estrategikoa, betiere, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren erabakietan eta hezkuntza-zentroen hobekuntza-planetan lagundu ahal izateko.

Ikasten ikasteko kompetentziaren marko teorikoan adierazi da “ikastetxeak bere agenda topatu duela, beste erronka batzuen artean, ikasteko irakasteko beharra; hau da, ikasleek erronkei autonomiaz erantzun ahal izateko baliabide indibidual eta interpertsonalak eskaintzea, beren ezagutzak eta trebeziak sustatuz eta arazoak arrakasta-bermearekin konponduz. Ikasle bakoitzak bere ikaskuntzaren protagonista izan behar du, horretaz jabetu behar du eta bizitza osoan lagunduko dion kompetentzia pertsonalaren sentimendua lortu behar du. Ildo horretan lan egiteak ikastearen aldeko giroa sortzen du, proiektu komun bat eta testuingurura egokitua. Gainera, komunitatearen eta bere eragileen konpromisoa lortzen laguntzen du partekatutako helburuen lorpenean. Zeharkako izaerarengatik kompetentzia guztietan hori egitea beharrezkoa baldin bada, ikasten ikasteko kompetentzia gehiago oraindik”¹.

Elena Martínek *Ikasten ikasteko kompetentziarako* ideia garrantzitsu bat aztertu du: alor kognitiboak eta emozionalak garatzearen garrantzia, esaterako. *Ikasten ikasteak “kompetentzia metakognitibo jakin batzuk lortzea esan nahi du, hau da, ikasleari norbere ikaskuntza-prozesuak ezagutzea eta arautzea ahalbidetzen dizkion gaitasunak. Baina ez du ezertarako balio gure burua aprendiz gisa ezagutzea aztertzean “ikusten” duguna gustuko ez baldin badugu, eta ondorioz horretarako gai ez garela pentsatzen badugu. Autoestimua, erroreak sortzen duen ukoa onartzeko gaitasuna, ahalegina mantentzeak eragiten duen tentsioa... horiek dira Ikasten ikastea kompetentziaren zenbait dimentsio eta izaera emozionala agerian jartzen dute”. Eta jarraitzen du: “Dimentsio bikoitz hau nabarmentzearen helburua irakasleek bi horietan lan egiteko beharra nabarmentzea da. Ondorioz, xedea ez da zereginen bat estrategikoki planifikatzen eta garatzen laguntzen duten baliabide jakin batzuk soilik irakastea, baizik eta ikasleari eskolatzaren hasieratik laguntzea, aprendiz gisa prozesu luze batean bere burua ezagutzeko, onartzeko eta hobetzeko”².*

Azken urteetan erakutsitako interesaz gain, *Ikasten ikasteko kompetentziaren* ikerketan eta ebaluazioan izandako esperientzia mugatua da oraindik. Hala eta guztiz ere, XXI.

¹ ISEI-IVEIren dokumentutik hartuta: “Ikasten ikasteko kompetentzia. Testuinguru teorikoa” (2012) www.isei-ivei.net

² MARTÍN ORTEGA, E. (2008): Aprender a aprender: clave para el aprendizaje a lo largo de la vida. “Participación Educativa” aldizkarian, 9. zk. (Estatuko Eskola Kontseiluaren aldizkaria), 2008ko azaroa, 72-78. or.

mendearen lehen hamarkadan komunitate zientifikoaren interesa piztu duenetako bat bihurtu da.

2002an, Europako Batzordeak Europako herrialdeetan adituak diren pertsona taldeei *Ikasten ikasteko kompetentziaren* ebaluazioan erabil daitekeen neurtzeko tresna bat sortzeko oinarriak adostea eta gogoeta egitea eskatu die. Prozesua 2008an amaitu zen ikasten ikasteari buruzko Europako adierazlea egitera zuzendutako proba aurre-pilotuak aplikatuta.

Proba horiek hiru “domeinu”³ definitzen zituen kompetentziaren marko teorikoaren baitan oinarritzen ziren:

- **Kognitiboa:** proposamenak identifikatzeko, arauak erabiltzeko, arauak eta proposamenak probatzeko eta eguneroko bizitzako egoerei buruzko tresnak erabiltzeko gai diren ikasleak.
- **Afektiboa:** Ikasteko motibazioari, ikaskuntza-estrategiei eta aldatzeko orientazioari dagokiona; auto-kontzeptu akademikoari eta autoestimuari lotutakoa; eta azkenik, ikaskuntzaren inguruari.
- **Metakognitiboa:** gogoeta egiteko eta norbere egoera ebaluatzeko gai diren ikasleak.

Bestetik, *Ikasten ikasteko kompetentziari* dagokion euskal curriculumak honako hau adierazten du⁴:

» *Laburbilduz, ikasten ikasteak gaitasunen eta ezagutzen ezagutza, kudeaketa eta kontrola eragiten du kompetentzia edo eraginkortasun pertsonaleko sentimendutik, eta hauek barne hartzen ditu: pentsamendu estrategikoa, elkarrekin lan egiteko gaitasuna, norbere burua ebaluatzekoa, eta baliabide multzo baten erabilera eraginkorra eta lan intelektualeko teknikak. Hori guztia ikaskuntza-esperientzia kontzienteen eta atseginen bidez egiten da, bai indibidualak, bai kolektiboak.*»

1.1. Kompetentziaren ezaugarriak

Ikasten ikasteko kompetentziaren testuingurua bi bloke edo **dimentsio** handitan egituratu da. Dimentsio hauetako bakoitzak hainbat **azpikonpetentzia** ditu, eta azpikonpetentzia hauetako bakoitzerako **ebaluazio-adierazle** batzuk adierazi dira. Ikasleek aipatu berri ditugun lan edo eragiketa zehatz horiek garatu beharko dituzte kompetentziaren domeinua erakusteko. Adierazleek argi erakusten dute ikasleek zer jakin eta egin behar duten, baita beste hainbat jarrera pertsonalen inguruan ere.

Ikasten ikasteko kompetentziaren dimentsioak hauek dira:

- **Ikaskuntzarako gaitasunen eta ezagutzen kontzientzia.**
- **Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda.**

Dimentsio bakoitzetik, hura argitu eta ereduz jartzen duten ezaugarriak adierazten dira.

³ KUPIAINEN, S.; HAUTAMÄKI, J.; RANTANEN, P. (2008): EU pre-pilot on Learning to Learn. Report on the compiled data. University of Helsinki. 103. or. <http://ec.europa.eu/education/lifelong-learning-policy/doc/pilot_survey/report_en.pdf>. Proiektu honetan Espainiako parte-hartzeari buruzko txostena hemen kontsulta daiteke: MORENO, A.; CERCADILLO, L.; MARTÍNEZ, M. (2008): Learn European Project. Pre-Pilot Study National Report. Spain. Ebaluazio Institutua. Hezkuntza Ministerioa. Madril. 39. or.

⁴ EHAA 218. zk. (2007/11/13): Gehigarria. III. eranskineko 15-16 or.

Ikaskuntzarako gaitasunen eta ezagutzen kontzientzia

Dimentsio honek, hasteko, ikasleek ikaskuntzan eragiten duten eta irakaskuntza baldintzatzen duten faktoreak antzemateko duten gaitasunarekin lotutako alorrak biltzen ditu: batetik, gaitasun intelektualak, afektibo-emozionalak eta fisiko-motorrak; bestetik, ingurunearen eragina, familiarretik eskolarrera, eta gainera, lanaren helbururako beharrezko estrategiak garatu izanaren kontzientzia.

Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda.

Kudeaketa kontzientea ikasle bakoitzak parte hartzen duen ikaskuntza-prozesuaren metaulermenarekin eta erabakiak hartzearekin dago lotuta. Horrela, dimentsio hau, batetik, jarduera baten garapen faseak zehaztean oinarritzen da; plangintzatik eta erabakiak hartzetik hasi, lortutako helburuarekin bat etorritz, eta banaka edo taldean erabiliko dituen denboren, baliabideen eta prozeduren identifikaziora arte. Bestatik, jarduera arautzearekiko eta berrikusteearekiko interesa du. Laburbilduz, ikaskuntza-prozesuaren kudeaketa praktikoarekin du zerikusia, helburuaren hasierako zehaztapenetik hasi, zailtasunen eta errorearen kudeaketatik pasatuz, eta prozesuan zeharreko erabakiak egokitzea arte.

Azkenik, dimentsioak garrantzia ematen dio ikasitakoa aitortzeari eta beste eskola-testuinguru batzuetara eta bizitza pertsonalera aplikatzeko aukerei. Eta ildo horretatik, erabilgarrienak izan diren jarduerak eta ikasteko moduak identifikatzeari. Horrek agerian jartzen du azken fase honetan ez dela ikasitakoari buruz soilik gogoeta egiten, baita ikasteko erabili den moduari buruz ere.

1.2. Ebaluazioaren helburuak

Ikasten ikasteko kompetentziaren ebaluazioa erronka izan da ISEI-IVEIrentzat eta oro har Hezkuntza Sailarentzat; izan ere, aurrekari eta proiektu gutxik lortu dute jarduera horri arrakastaz ekitea. Hala eta guztiz ere, oinarritzko kompetentzien ebaluazio-alorrean, Euskadin kompetentzia honen egoera zein zen jakin nahi zen, duen garrantzia kontuan hartuta. Ebaluazioak kompetentzia ebaluatzean lortu nahi diren helburu gutxi batzuei erantzun zien:

- EAeko Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleen gaitasunak eta trebeziak garatzeko maila jakitea lagin-adierazgarri zabal baten ebaluazioaren bidez.
- Ikastetxeei zuzendutako proposamenak egitea emaitzetatik eta ebaluazioaren ondorioetatik abiatuta, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan ikasleekin hobekuntza-aukerak sustatzeko.
- Hezkuntza-komunitatean zeharkako izaerako kompetentzia honen garrantzi estrategikoaren inguruko gogoeta egitea, emaitzak eta ondorioak zabalduz.

1.3. Datu teknikoak

Jarraian, kompetentzia hau nola antolatu den ulertzen lagun dezaketen zenbait datu tekniko aurkeztuko dira; besteak beste, laginen tamaina, koaderno eta item kopurua.

1.3.1. Laginaren tamaina

Kompetentzia honen ezaugarri zehatzak kontuan hartuta, laginen ebaluazioa egitea erabaki zen. Horrek euskal hezkuntza-sisteman *Ikasten ikasteko* kompetentziaren egoerari buruzko emaitza orokorrak eman ditzake.

Gainera, hipotesi gisa uste genuen, agian, kompetentzia honek garapen txikiagoa duela ikastetxeetan curriculum arlo batzuekin zuzenean erlazionatuta dauden beste batzuek baino.

Euskal irakas-sistemako egoeraren berri izan nahi zen, oro har, prestakuntzarekin, aholkularitzarekin, materialak egitearekin eta abarrekin lotutako neurriak bultzatzeko balio izateko. Neurri horiek, era berean, irakasleen gogoeta eta esku-hartzea (aldaketa metodologikoa, estrategiak...) hobetuko dute irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan *Ikasten ikasteko kompetentziaren* ikuspegitik.

Aldiz, lagin-ereduarekin ezin izan dira ikastetxeetako datuak eta ikasleen banakako datuak lortu, oinarritzko beste kompetentzien ebaluazioan ez bezala. Lagina egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietan, ikasle kopuru bat ausaz aukeratua izan zen. Ikasle horietako bakoitzak *Ikasten ikasteko kompetentziaren* bi koadernoetako bat bete zuen.

Lehen Hezkuntzako 4. mailan ebaluatutako guztizko biztanleria 6.825 ikaslekoa izan zen eta DBHko 2. mailan 6.180koa. Geruzen araberako osaera honako hau izan zen:

1. taula: Geruzen araberako parte-hartzaileak *Ikasten ikasteko kompetentziaren* ebaluazioan.

	A publikoa	B publikoa	D publikoa	Itunpeko A	itunpeko B	Itunpeko D
LH 4. maila	118	274	3.205	441	1.112	1.675
DBHko. 2. maila	332	224	2.422	685	1.101	1.416

1.3.2. Probaren antolaketa eta koaderno motak

Kompetentzia honen ebaluazioa, gainerakoak ez bezala, paperean egin zen eta ez ordenagailu bidez. Dagoeneko adierazi dugun moduan, probak bi koaderno zituen (A eta B gisa identifikatuta) Lehen Hezkuntzako 4. mailarako, eta beste bi (A eta B) DBHko 2. mailarako. Bi koadernoek item komunak zituzten eta bakoitzak alderdi bereizi bat. Horrekin, *Ikasten ikasteko* kompetentziarekin lotutako trebezia gehiago ebaluatu ahal izan dira. Itemen banaketa honako hau izan zen:

2. taula: *Ikasten ikasteko kompetentziaren* ebaluazio-proben itemen osaera.

	Item komunak	A koadernoko itemak soilik	B koadernoko itemak soilik	Item kopurua guztira
LH 4. maila	12	10	9	31
DBHko. 2. maila	20	15	15	50

Kompetentzia hau ebaluatu zen ikasgeletan ikasleen % 50ek *Ikasten ikasteko kompetentziaren* bi koadernoetako bat egin zuen. Gainerakoek, aldi horretan, *Idazmeneko* probak egin zituzten euskaraz edo gaztelaniaz (*Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren* azpidimentsioa).

1.4. Txostenaren egitura

Dokumentu honetan daude sartuta, hasteko, Ondorioen atala, lortutako datuen azterketatik eratorritako alorrik garrantzitsuenak laburtzen dituenak.



Bigarrenenez, *Ikasten ikasteko kompetentziaren* ebaluazioan lortutako emaitzak aurkezten dira. Aurkezpen horren jarraian, lehen bi atal handiek hainbat aldagairi (ikasleen sexua, hezkuntza-geruzak, familiako hizkuntza, maila sozioekonomikoa eta kulturala eta abar) buruzko datu estatistikoak zerrendatzen dituzte. Lehenengoa Lehen Hezkuntzako 4. mailan oinarritzen da, eta bigarren atala, DBHko 2. mailan. Txostenean bertan, ebaluatutako bi irakasmilen datuak batera aurkeztea erabaki da, kompetentziari dagokionez ikuspegi globala eskaintzeko.

Hirugarrenez, esku-hartzeko proposamenak aurkeztu dira, eta horri laguntzeko, *Ikasten ikasteko kompetentziaren* dimentsioak eta azpidimentsioak eskaintzen dira zenbait lorpen-adierazlerekin. Autodiagnostikoko tresnen eta egiten diren iradokizunen bidez, irakasleari ikasgelan kompetentzia hau ezartzen laguntzea da hirugarren bloke honen helburuetako bat. Horrez gain, bada beste helburu bat ere (aurrekoarekin bateragarria ez dena), hau da, kompetentziari buruzko gogoeta eta azterketa egiten laguntzea, eta gai metodologikoekin, estrategikoekin, ebaluatzaileekin eta antolaketakoekin duen lotura aztertzea.

Dokumentuaren amaieran hainbat eranskin daude. Lehenengo biek errendimendu mailak Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako probetan (hurrenez hurren) erabilitako itemekin lotuta aurkezten dituzte. Erabilgarritasun nagusia kompetentzia honetan hiru mailetakako bakoitzarekin lotutako gaitasun espezifikoa interpretatzeko balio izatea da. Azken biek 2011ko proba pilotutik eta 2013ko ebaluazio diagnostikotik liberatutako zenbait item eskaintzen dituzte.

2. IKASTEN IKASTEARI BURUZKO ONDORIO OROKORRAK

Jarraian, *Ikasten ikasteko kompetentziari* buruzko ondorio garrantzitsuak aurkezten dira. Ebaluatutako bi mailetako ikasleentzako (Lehen hezkuntzako 4. maila eta DBHko 2. maila) komunak dira gehienak 2013ko Ebaluazio diagnostikoaren testuinguruan.

Oro har, *Ikasten ikasteko kompetentziaren* ebaluazio-emaitzak lehen aldiz ebaluatu zirenean gainerako oinarriko kompetentzietan lortutakoekin koherenteak izan direla esan daiteke.

Pentsa daiteke kompetentzia hori, hainbat modutan, Euskadiko ikastetxeetan lantzen ari dela. Hala ere, ez dakigu nola egiten den, zer sistematizazio mailarekin eta nola laguntzen duen beren gaitasunekin jabetu eta ikasleek trebezia autonomoak gara ditzaten, ondoren ikastetxeetako jardueretan eta eguneroko bizitzan modu eraginkorrean aplikatu ahal izateko.

Ebaluazio diagnostikoaren testuinguruan egindako ebaluazio motak ez ditu galdera guztiak erantzuten, baina jarraian ageri diren alor garrantzitsuak nabarmentzeko ideia nagusia eskaintzeko balio izan du:

- ◆ Hasteko, ebaluatu diren bi ikasmailetako guztizko ikasleen % 80 baino gehiago hasierako mailaren gainetik kokatzeak ikasle horiek trebezia maila onargarria garatzeko bidean daudela ondorioztatzen garamatza.
- ◆ Hala eta guztiz ere, hobekuntza bultzatze aldera, Lehen Hezkuntzako 4. mailan lan-eremu bat igarri da, batetik, hasierako mailako ikasleen ia % 20 murrizteko, eta batez ere, maila aurreratuko % 12,5 eskasa ugartzeko. DBHko 2. mailako egoera Lehen Hezkuntzan hasierako mailan aipatutakoaren antzekoa da. Hor ahalegindu beharko litzateke bereziki. Maila aurreratuaren ehuneko altua –ia % 34– “laguntza-puntu” garrantzitsua da eta kompetentziaren garapenean helburu handiak planteatzea ahalbidetuko du.
- ◆ Hala eta guztiz ere, datu orokor horiek ez lituzkete ezkutatu beharko ikasle mutilen eta nesken artean egiaztatu diren aldeak. Lehen Hezkuntzako 4. mailan, neskek mutilek baino 14 puntu gehiago lortu dituzte. DBHko 2. mailan aldea 22 puntukoa izatera iritsi da. Zalantzarik gabe, ikastetxeetan sustatu beharko litzatekeen estrategia nagusietako bat nesken eta mutilen arteko alde hori orekatzea izan beharko litzateke. Datuen arabera, gainera, Lehen Hezkuntzako 4. mailatik DBHko 2. mailara, aldea nabarmendu egin da. Hori dela eta, kasu bakoitzean egoera zein den aztertzen hasi beharko litzateke. Azterketarekin ezin izan da alde horren arrazoi posibleen inguruko xehetasun gehiago ezagutu.
- ◆ Itunpeko ikastetxeetako ikasleek ikastetxe publikoek baino errendimendu handiagoa lortu dute. Ohikoa den moduan, alde hori murriztu egiten da (nahiz eta ez desagertu) ISEKen bidez neurtutako faktore sozioekonomomiko eta kulturalen eragina baliogabetzen denean.
- ◆ Emaitzen azterketaren bidez, egiaztatu ahal izan dugu ebaluatutako gainerako kompetentzietan lortutakoekin korrelazio positiboa izan dela, baita ikasleek aurreko ikasturtean kompetentzia horiekin lortutako arloetan eta jakintzagaietan lortutako kalifikazioen kasuan ere.



- ◆ Era berean, curriculum arloetan emaitza hobeak lortzen dituztela diotenen errazagotzat jotzen dituzte, eta *Ikasten ikasteko kompetentziaren* ebaluazioan errendimendu handiagoa erakutsi duten ikasleekin bat egin dute.
- ◆ Aldiz, ISEI-IVEIk orain arte egindako ebaluazio guztietan gertatzen den moduan, dagokien ikasmailan eskolatuta ez dauden ikasleek (errepikatu egin dutelako edo eskolatze berantiarra izan dutelako) dagokien ikasturtean eskolatuta dauden ikasleek baino emaitza nabarmen baxuagoak lortzen dituzte.
- ◆ Azkenik, nabarmendu beharrekoa da emaitzek zer lotura duten etxerako lanak eta ariketak ikastetxetik kanpo egitearekin. Korrelazioa positiboa da. Hurrengo kapituluetan, horri buruzko informazio interesgarri batzuk ageri dira. Bestalde, laguntza jasotzen duten edo ez, eta jasotzen badute nork ematen dien jakingo dugu.





LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA



3. LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILAKO EMAITZAK

3.1. Emaidza orokorra eta dimentsioen araberako banakatzea

2013ko Ebaluazio diagnostikoan *Ikasten ikasteko kompetentzia* ebaluatu da lehen aldiz, eta ondorioz, batez bestekoa 250 puntutan ezarri da.

3. taula: Lehen Hezkuntzako 4. mailako emaitza orokorra
Ikasten ikasteko kompetentziaren ebaluazioan.

Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Akats tipikoa	Desbideratze tipikoa
6.825	85	400	250	0,61	50,00

Era berean, kompetentzia honen bi dimentsioen datu bereziak aurkezten dira: *Ikaskuntzarako gaitasunen eta ezagutzen kontzientzia eta ikaskuntza-prozesuen kudeaketa kontzientea*.


4 taula: *Ikasten ikasteko kompetentziaren* ebaluazioan, Lehen Hezkuntzako 4. mailan, emaitzak dimentsioen arabera.

	Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Akats tipikoa	Desbideratze tipikoa
Ikaskuntzarako gaitasunen eta ezagutzen kontzientzia	6.825	84	385	250	0,61	50,00
Ikastekoprozesuen kudeaketa kontzientea	6.825	142	359	250	0,61	50,00

3.2. Ikasleen banaketa errendimendu mailen arabera

Ikasten ikasteko kompetentzian, 3.2.a grafikoan ikus daitekeen moduan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 68 inguru erdi-mailan kokatzen da eta % 12,5 maila aurreratuan dago.

3.2.a grafikoa. ED13-LH4. Ikasleen banaketa *Ikasten ikasteko kompetentziako* errendimendu mailen arabera.



Azken ehuneko hori oinarritzko beste kompetentzietan islatzen dena baino baxuagoa da. Edonola ere, ondoriozta daiteke % 80 inguruko gairitzen duela hasierako maila eta erdi-mailan edo maila aurreratuan kokatzen dela.


3.3. Emaitzen sakabanaketa ISEK mailaren arabera

Ezaguna da ikaslearen maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) eta ikasleek oinarritzko kompetentzien ebaluazioan lortzen duten errendimenduaren artean izaten den lotura. Txosten honen hasieran adierazi den moduan, *Ikasten ikasteko kompetentziaren* ebaluazioa ikastetxe bakoitzeko ikasle batzuek osatutako lagin zabal baten bidez egin zen. Hala eta guztiz ere, oro har barreiadura-grafiko batean ageri diren ikasle taldeen arteko aldeak nabaritu izan dira.

3.3.a grafikoaren puntu bakoitzak ikastetxe berari dagozkion ikasleen multzoa adierazten du. Dagokien ISEK-en batez bestekoa kalkulatu da. Azkenik, bi aldagaien arabera kokatu dira: ISEK maila eta kompetentzia honetako emaitza.

Erregresioa izeneko lerro inklinatuak ISEK mailaren arabera talde zehatz baten esperotako errendimendu maila adierazten du. Hori dela eta, ISEK maila zenbat eta altuagoa izan, emaitza orduan eta hobea espero daiteke. Erregresio-lerroaren gainetik kokatutako puntuak ISEK mailaren arabera esperotakoa baino emaitza hobea lortu dute. Azkenik, lerroaren gainean bertan edo oso distantzia laburrean daudenak espero daitekeen emaitza duten ikastetxeak dira. Aldiz, erregresio-lerroaren azpitik daudenek esperotakoa baino emaitza baxuagoa lortu dute. Azken kasu honetan, kontuan izan behar da erregresio-lerrotik 15 puntu ingurura dauden puntuak ISEK-en arabera espero daitekeen emaitza gisa har daitekeen eremuaren baitan leudekeela.


3.3.a grafikoa. ED13-LH4. Ikasten ikasteko kompetentzia lagineko ikastetxeen errendimendu maila ISEK mailaren arabera.



Espero zitekeen moduan, puntu gehienak bi ardatzek bat egiten duten – batez besteko ISEK bertikala eta batez besteko puntuazioaren horizontala– puntuaren inguruan biltzen dira. Sakabanaketa-eredu mota honek, oro har, ED13an ebaluatutako gainerako kompetentzietan ikusitakoarekin bat egiten du.

Grafikoa koadranteen arabera aztertzen baldin bada, honako hau ikusten da:

3.3.b grafikoa. ED13-LH4. Ikasten ikasteko kompetentzia lagineko ikastetxeen errendimendu maila ISEK mailaren arabera.



Ardatz bertikalaren balioa 125 eta 325 artean dago adierazita (gutxieneko eta gehieneko puntuazio-mugak) ikastetxe guztietan koadranteen banaketa argiago ikusteko.

- Ezkerreko goiko koadranteak batez bestekoa baino ISEK baxuagoa duten eta EAeko batez bestekoak baino emaitza altuagoak lortu dituzten lagineko zentroak biltzen ditu.
- Ezkerreko beheko koadranteak lagineko batez bestekoa baino ISEK baxuagoa duten eta 250 puntuko batez besteko emaitzara heltzen ez diren ikastetxeak biltzen ditu.
- Eskuineko goiko koadranteak kompetentzian EAeko batez bestekoa baino ISEK altuagoa duten eta batez bestekoa baino errendimendu maila altuagoa lortu duten ikastetxeak biltzen ditu.
- Azkenik, eskuineko beheko koadranteak ISEK maila batez bestekoa baino altuagoa izan arren, kompetentzian batez besteko puntuazioa baino emaitza baxuagoa lortu dutenak biltzen ditu.


Lau koadranteetan, puntuazio desberdinetan banatutako ikastetxeak ageri dira, baina modu baikorrean deigarria da ISEK maila nabarmen baxua izan eta emaitza ona (ezkerreko goiko koadrantea) lortu dutenen kasua. Kontrako kasuan, ISEK maila altua izan eta espero baino errendimendu baxuagoa lortu dutenen kasua (eskuineko beheko koadrantea) ere deigarria da.

3.4. Emaitzak geruzen arabera: hizkuntza-eredua eta hezkuntza-sarea

Ebaluazio diagnostikoan kompetentzia lehen aldiz ebaluatzen den aldi oro ezartzen den 250 puntuko batez bestekotik abiatuta, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden sei geruzen arabera (sarea eta hizkuntza-eredua gurutzaketa) aztertzen dira emaitzak.

3.4.1. Emaitza orokorrak

Hurrengo grafikoan, *Ikasten ikasteko kompetentzian* geruza desberdinek lortutako batez bestekoa eta horiek guztiek lortutako puntuazioen arteko aldean adierazgarritasuna ageri da.




Puntuazioen artean aldeak dauden arren, alde horiek ez dira beti estatistika-ikuspegitik adierazgarriak izaten. Lauki berean taldekatutako geruzek estatistikoki ez dituzte alde adierazgarriak. Adierazgarritasunaren ikuspegitik batez besteko puntuazioen arteko aldeak aztertu ostean, honako ondorio hauetara iristen gara:

- A eta B geruza publikoak estatistikoki emaitza berdinak lortzen dituzte, eta gainerako geruzak baino nabarmen baxuagoak dira emaitzak.
- D geruza publikoak A eta B geruza publikoak baino emaitza altuagoak lortzen ditu, baina D geruza publikoaren emaitza itunpeko A, B eta D geruzena baino nabarmen baxuagoa da.
- Emaitzarik onenak lortu dituen geruza itunpeko A geruza da (275 puntu), EAEko batez bestekoak baino 25 puntu gehiago. Gainerako geruzetan lortutakoa baino puntuazio nabarmen altuagoa da.
- Itunpeko B eta D geruzek beren artean estatistikoki berdinak diren emaitzak lortu dituzte.
- Geruza publikoek itunpeko sarekoek baino emaitza nabarmen baxuagoak lortu dituzte.

3.4.2. Ikasleen banaketa errendimendu mailen arabera

3.4.b grafikoan ikus daiteke hasierako maila gainditu duten ikasle-ehuneko altuena duen geruza itunpeko A geruza (% 90) dela. Kontrako muturrean dago B geruza publikoa (ia % 69).

3.4.b grafikoa. ED13-LH4. Ikasleen banaketa Ikasten ikasteko kompetentziako errendimendu mailen arabera, geruzetan banatuta.




1. eranskinean, hiru errendimendu mailekin lotutako gaitasunen inguruan izaera kualitatiboko informazioa topa daiteke.

3.4.3. Emaitzak geruzen eta ISEKen arabera

3.3 atalean, ISEKi buruzko informazio orokorra ageri da lagineko emaitzen sakabanaketarekin lotuta. Faktore horrek, nolabait, emaitzak baldintzatzen ditu, baina zaila da hezkuntza-sistemak edo ikastetxeek horretan eragitea. Hori dela eta, interesgarria da jakitea ISEKen efektua ezabatu edo kontrolatuko balitz zein izango litzatekeen emaitza hipotetikoa.

Atal honetan, geruza bakoitzak lortutako batez besteko puntuazioa eta ISEK maila kontrolatuko balitz geruza horietako bakoitzak lortuko lukeen batez besteko puntuazioa ageri dira.

3.4.c grafikoa. ED13-LH4. Batez besteko puntuazioa eta ISEK kontrolatu osteko puntuazioa gereuzen arabera Ikasten ikasteko kompetentzian.



Batez besteko puntuazioak ISEK kontrolatuta ondoren aztertzen baldin badira, honako hau ondoriozta dezakegu:

- Geruza publiko guztiek emaitzak nabarmen hobetuko lituzkete ISEK maila berdinduko balitz. Hala eta guztiz ere, hiru geruza publikoen artean ez dago alde adierazgarririk.
- Itunpeko B eta D geruzen emaitzak ez dira nabarmen aldatzen, eta ISEK kontrolatu ostean, itunpeko A geruzak puntuazioan behera egin du.
- Itunpeko A geruzak, ISEKen eraginik ez dagoenean puntuazioan nabarmen behera egiten duen arren, gainerako geruza guztiek baino emaitza nabarmen altuagoa izaten jarraitzen du.
- A geruza publikoa –lehen B geruza publikoarekin parekatuta– D geruza publikoarekin parekatzen da orain, eta bi geruza publiko horiek ere itunpeko B eta D geruzen parekoak dira. Lau geruzen artean ez legoke alde adierazgarririk.

3.5. Lehen Hezkuntzako 4. mailako emaitzak zenbait aldagaitatik abiatuta

Datu orokorrek errealitatea sinpletu ohi dute eta irudi lauegia igortzen dute. Itxura horrek, askotan, hezkuntza-sistemak berea duen aniztasuna ezkututzen du. Hori dela eta, interesgarria da hainbat aldagairen arabera ikasleen errendimenduan aldaketen berri izatea. Hurrengo ataletan, honako hauek aztertuko dira: mutilen eta nesken emaitzak bereizita, emaitzak eskolatzeko-egokitasunaren arabera, eta familia-hizkuntzaren edo probako hizkuntzaren arabera emaitzen aldea.

Gainera, *Ikasten ikasteko kompetentziaren* emaitzek ebaluatu diren gainerako kompetentziekin duten korrelazioa ere aztertuko da, baita emaitzen eta etxerako lanak egitearen arteko lotura posiblea ere.


3.5.1. Emaitzak ikaslearen sexuaren arabera

Atal honetan, mutilen eta nesken emaitza orokorrak, errendimendu mailen arabera banaketa eta ebaluatutako gainerako kompetentzietan batzuen eta besteen errendimenduen aldeak edo antzekotasunak aztertzen dira.

3.5.1.1. Emaitza orokorrak eta errendimendu mailen arabera emaitzak sexuaren arabera


3.5.a grafikoan ikus dezakegu Lehen Hezkuntzako 4. mailan, *Ikasten ikasteko kompetentzian*, neskek mutilek baino 14 puntu gehiago lortu dituztela. Erabilitako probek hizkuntza-osagaia zuten batik bat. Hori erabili ohi da alde horren zati bat behintzat azaltzeko. Hipotesi hori bat dator *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* lortutako emaitzarekin (12 puntu nesken alderako), baina *Gaztelaniazko kompetentzian* ez da gauza bera gertatu; izan ere, kompetentzia horretan lehen aldiz lortu dute mutilek neskek baino emaitza hobea eskuratzea (3 puntuko aldea). Beraz, alde adierazgarri horren jatorrian beste azalpen-faktore mota batek egon behar du.

3.5.a grafikoa. ED13-LH4. Ikasten ikasteko kompetentziako emaitza ikasleen sexuaren arabera.



Banaketa errendimendu mailen arabera (3.5.b grafikoa) aztertzen baldin bada, ondorioztatuko dugu hasierako mailan dauden mutilen kopurua % 9 altuagoa dela neskena baino. Nesken ia % 85ek gainditzen du hasierako maila, eta maila hori gainditzen duen mutilen ehunekoa % 75ekoa baino altuagoa da. Lehen Hezkuntzako 4. mailako maila aurreratuan aldea arindu egiten da; hala ere, neskek emaitza hobeak lortu dituzte: nesken ehunekoa % 15 ingurukoa da, eta mutilena, % 10 ingurukoa.

3.5.b grafikoa. ED13-LH4. Ikasleen banaketa Ikasten ikasteko kompetentziako errendimendu mailen eta sexuaren arabera.



3.5.1.2. ED13an ebaluatutako kompetentzia guztietan emaitzen azterketa alderagarria sexuaren arabera

Nesken eta mutilen arteko emaitzen aldea ebaluazioen emaitzak aztertzean kontuan hartzen den aldagaietako bat da. Ebaluazio diagnostikoan, balantzea aldatu egiten da oinarriko kompetentzia batzuetatik besteetara, eta batzuetan neskek eta besteetan mutilek lortzen dituzte emaitza hobeak. Hala eta guztiz ere, Lehen Hezkuntzako 4. mailan, kompetentzia gehienetan, neskek mutilek baino emaitza hobeak lortu dituztela esan genezake.

Alderdi zorrotzetik, oinarriko hainbat kompetentziari dagozkion proba desberdinen emaitzak ez dira alderatu behar. Alderaketa mota horrek ez du baliozkotasun zientifikorik, bere dimentsio kuantitatiboan behintzat. Hala eta guztiz ere, zaila da alde horien arrazoiak azaltzen saiatzea, batez ere, *Ikasten ikasteko kompetentziaren* kasuan. Lehen Hezkuntzako 4.

mailan 14 puntutara iristen da, ED13an ebaluatutako sei kompetentzien artean puntuaziorik altuena.


3.5.2. Emaitza orokorrak irakasmilan ikaslearen adin-egoitasun-egoeraren arabera

Ikaslea eskolatze mailari dagokionez adin-egokitasun egoeran ez dagoela uste da ikasturte bat edo gehiago errepikatu dituenan edo eskolatze berantiarra izan duenean. 2013ko Ebaluazio diagnostikoan, 2003an jaiotako Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak hartu dira egokitatzat.

Lehen Hezkuntzako 4. mailako eskola-biztanleriaren artean, 2013an % 9,1 adin-egokitasun egoeran ez zeuden ikasleak ziren; hala eta guztiz ere, *Ikasten ikasteko kompetentziaren* proba egin zuen laginaren % 7,6k soilik zuen ezaugarri hori.

Ebaluazio diagnostiko hauetan guztietan zehar eta kompetentzia guztietan gertatu den moduan, Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan, adin-egokitasun egoeran ez dauden ikasleek, *Ikasten ikasteko kompetentzian*, adinarekin bat datorren irakasmilan eskolatuta dauden ikasleek baino emaitza nabarmen baxuagoak lortu dituzte.

3.5.c grafikoa. ED13-LH4. Jaiotza-urtearen eta adin-egokitasun egoeraren araberrako emaitzak *Ikasten ikasteko kompetentzian*.



3.5.3. Emaitzak familia-hizkuntzaren eta probako hizkuntzaren arabera

Ikastetxeek ikasleek proba egin zezaten hizkuntza hautatzeko bi aukera izan dituzte: euskara edo gaztelania. Ebaluazio diagnostiko bakoitzean, ikastetxeei eskatu zaie ikasleek probak heziketa-hizkuntzan (euskara D ereduan, gaztelania A ereduan, eta euskara edo gaztelania B ereduan) edo familia-hizkuntzan⁵ egingo dituzten erabakitzeak. Familia-hizkuntzaren kasuan, ikasleek etxean gehien erabiltzen duten hizkuntzan egingo dute proba.

⁵ Ikasleen galdera-sortan, ebaluazio honetan parte hartu zuten ikasle guztien familia-hizkuntza hartu zen aintzat. Ikaslea familia euskaldunekotzat hartzen da aitak edota amak euskaraz hitz egiten dutenean eta etxean euskaraz hitz egiten dutenean beti edo ia beti. Gainerako kasuak “Euskara ez dena” kategorian sartzen dira. Gehienak etxean gaztelaniaz hitz egiten dutenak dira, baina badira familia-hizkuntza beste bat duten ikasleak ere.

Kompetentzia honetan, proba egiteko erabili zen hizkuntzak ikastetxeek "Proba mistoa" izenekorako aukeratutako hizkuntzarekin bat egin zuen. Proba misto horretan, *Zientzia, teknologia, eta osasun-kulturarako kompetentziako* eta *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako* itemak bildu ziren.

Hurrengo taulan, *Ikasten ikasteko kompetentzian* sartutako Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak eta bi datu garrantzitsu ageri dira: familia-hizkuntza eta proba egin zeneko hizkuntza.

5. taula: Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen emaitza orokorrak probako hizkuntzaren eta familia-hizkuntzaren arabera.

Familia-hizkuntza *	Probako Hizkuntza	Kopurua	Puntuazioa	Akats tipikoa
Euskara ez dena	Euskara	3.815	242	0,8
	Gaztelania	999	266	1,6
Euskara	Euskara	1.691	258	1,2
	Gaztelania	25 **	--	--

* Kalkulu hauetan, ez dira kontuan hartu ikasleen % 4,3k (6.825 parte-hartzailearen guztizkoaren 295) familia-hizkuntzari dagokionez emandako "erantzunik ez" kasuak.

** Familia-hizkuntza gisa euskara izanik proba gaztelaniaz egin zuten ikasle kopuru txikia dela eta, emaitzak estatistikoki ez dira garrantzitsuak. Horregatik ezabatu dira taulatik.

Lehen analisiaren arabera, ikasleen % 84k proba euskaraz egin zuten. Bestalde, ikasleen % 70,5en familia-hizkuntza gaztelania edo euskara ez zen besteren bat zen.

Probako errendimenduari dagokionez, proba familia-hizkuntzan egiten duten ikasleek emaitza hobekak, batez bestekoak baino emaitza altuagoak, dituztela ondorioztatu da. Lehen taldean, familia-hizkuntza "euskara ez dena" (gaztelania edo beste bat) duten ikasleak daude, proba gaztelaniaz egin dutenak, 266 punturekin; bigarrenik, proba euskaraz egin zuten eta etxean euskaraz hitz egiten duten ikasleek 258 puntu lortu dituzte.

Aldiz, familia-hizkuntza "euskara ez den" besteren bat duten, baina proba euskaraz egin duten ikasleek 242 puntu lortu dituzte. Oro har, D ereduan eskolatutako ikasleak dira, baita euskaraz ikasten duten B ereduko ikasle batzuk ere, baina euskaldunak ez diren familia-ingurune soziolinguistikoetatik datozenak. Euskara, batez ere, eskolan erabiltzen dute. Ondorioz, hizkuntza erdiesteko prozesuan dauden, baina proba gaztelaniaz egin dutenen artean gertatzen den *input* familiarrik ez duten ikasleak dira. Litekeena da ikasle horiek derrigorrezko eskolatzean zehar ikasturtez ikasturte ikaskuntzan aurrera egiten duten heinean, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren* gaitasunak hobetzea.

6. taula: Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen errendimendu mailen arabeko emaitzak, probako hizkuntzaren eta familia-hizkuntzaren arabera.

Familia-hizkuntza	Probako Hizkuntza	Kopurua guztira	Hasierako maila		Erdi-maila		Maila aurreratua	
			Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskara ez dena	Euskara	3.815	918	24,1	2.551	66,9	346	9,1
	Gaztelania	999	120	12	672	67,3	207	20,7
Euskara	Euskara	1.691	249	14,7	1.183	70	259	15,3

Ikasleen portaera errendimendu mailen arabera aztertzen badugu, familia-hizkuntza euskara ez duten eta proba gaztelaniaz egin duten ikasleen emaitza orokorra hobea dela ikus dezakegu. Kopuru horretatik, ikasleen % 20 baino gehiago maila aurreratuan dago (hasierako maila gainditu dutenak % 88 dira). Hori izan daiteke 266 puntuko emaitza azaltzen duen faktorea.

Bestalde, proba euskaraz egin duten ikasle euskaldunen % 85ek baino zertxobait gehiagok gainditu dute hasierako maila kompetentzia honetan.

3.5.4. Ebaluatutako gainerako kompetentzien eta Ikasten ikasteko kompetentziaren emaitzen arteko korrelazioa

Ebaluatu diren gainerako kompetentzietan lortutako emaitzak *Ikasten ikasteko kompetentzian* lortutakoekin bat datozen jakiteko, Pearsonen korrelazio-koefizientea erabiltzen da. Hauek dira lortutako koefizienteak:

7. taula: *Ikasten ikasteko kompetentzian* eta ebaluatu diren gainerako kompetentzietan Lehen Hezkuntzako 4. mailan emaitzen arteko Pearsonen korrelazioa.

		Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	Matematikarako kompetentzia	Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako kompetentzia.	Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia
Ikasten ikasteko kompetentzia (6.180)	Pearsonen korrelazioa	0,543	0,536	0,577	0,589	0,598
	Kopurua	6.502	6.648	6.728	6.543	6.542

Ikus daitekeen moduan, korrelazioa 0,50 baino handiagoa da. Ondorioz, baieztatu daiteke Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen lagineko *Ikasten ikasteko kompetentziaren* emaitzak bat datozela ikasle horiek ED13ko ebaluatutako gainerako kompetentzietan lortutako emaitzekin. Horrek esan nahi du batetik, kompetentzia ebaluatzeko erabilitako tresnak, koadernoak, fidagarriak direla ikuspegi teknikitik eta ikasleak egoki sailkatzen dituztela errendimendu mailaren arabera, betiere, ikasle bakoitzak proba desberdinetan antzeko emaitza lortu ohi duela abiapuntutzat hartuta. Bestalde, berresten du, esate baterako, maila aurreratuan kokatuko dituen puntuazioa lortu duten Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek ebaluatu diren gainerako oinarriko kompetentzia gehienetan ere antzeko puntuazioa lortu dutela.

3.5.5. Emaitzak kompetentzien eta arloetako errendimenduaren arabera

ED13an *Ikasten ikasteko kompetentzian* lortutako errendimenduaren eta ikasleen kalifikazioen arteko lotura maila jakin nahi zen. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen galdera-sortan, ikasleei galdetu zitzaizen aurreko ikasturtean zer nota lortu zituzten Euskara, Gaztelania, Matematika eta Ingurunearen ezaguera arloetan. Notak honela zeuden sailkatuta: gutxiegi, nahikoa, ongi, oso ongi eta bikain.

Ebaluazioaren aurreko ikasturtean lortu zituzten notek eta *Ikasten ikasteko kompetentzian* puntuazioak izan dezaketen korrelazioa ezagutzeko, EDn ikasleen batez besteko emaitza lortu da, arlo bakoitzean izan dituzten emaitzen arabera taldekatuta:

8. taula: Aurreko ikasturteko arloetako errendimenduaren eta Lehen Hezkuntzako 4. Mailan *Ikasten ikasteko kompetentzian* lortutako puntuazioaren arteko lotura.

Aurreko ikasturteko notak	Euskara		Gaztelania		Matematika		Ingurunearen ezaguera	
	Ikasten ikasteko puntuazioa	Akats tipikoa	Ikasten ikasteko puntuazioa	Akats tipikoa	Ikasten ikasteko puntuazioa	Akats tipikoa	Ikasten ikasteko puntuazioa	Akats tipikoa
Gutxiegia	210	2,0	205	2,9	210	2,3	210	2,3
Nahikoa	221	1,5	219	1,6	219	1,5	216	1,7
Ongi	238	1,0	238	1,1	235	1,2	232	1,2
Oso ongi	265	0,9	259	0,9	258	1,0	257	0,9
Bikain	280	1,6	274	1,5	276	1,2	276	1,2

Aurreko datuek erakusten dute *Ikasten ikasteko kompetentziako* emaitzak bat datozela ikasleek aurreko ikasturtean arlo bakoitzean lortu zituztela aitortutakoekin. Hau da, arloetako emaitzak zenbat eta hobeak izan, *Ikasten ikasteko kompetentzian* lortutako puntuazioak orduan eta altuagoak izango dira. Kasu guztietan, emaitzak txikitik handira doaz, arloetako kalifikazioekin alderatuta. Talde bakoitzaren artean lortutako kalifikazioaren arabera kompetentziako emaitzen aldeak adierazgarriak dira.

Ikasten ikasteko kompetentzian IETan⁶ lortutako puntuazioaren eta ikasleek aurreko ikasturteko arloei dagokienez aitortutakoaren arteko korrelazioa positiboa eta adierazgarria da. Korrelazio maila Pearsonen koefizienteak neurtzen du; Gaztelanian 0,372tik Euskarari 0,437ra doana.

Ondorio gisa, esan genezake ikasteko moduari buruzko kontzientzia zenbat eta handiagoa izan eta ikaskuntza-prozesuen kudeaketa maila (*Ikasten ikasteko kompetentziaren* bi azpikonpetentziak) zenbat eta handiagoa izan, ikasketetan, errendimendu akademikoan, orduan eta emaitza hobeak lortuko dituztela.

Hori gertatzen da ebaluatutako kompetentzia guztietan eta egindako ebaluazio diagnostiko guztietan.

3.5.6. Etxeko lanei eskainitako orduen arabeko emaitzak

Ikasleek ED13an erantzun behar izan zuten galdera-sortan, etxeko lanak egiteari eskaintzen zioten denboraren inguruan itaundu zitzairen.

Ikasleek gai horri lotuta emandako erantzunak ED13an lortutako emaitzekin lotu dira. Etxeko lanak egiten igarotzen duten denboraren eta ED13an *Ikasten ikasteko kompetentzian* erakutsitako errendimenduaren artean loturaren bat ezartzerik badagoen jakitea zen helburua.

⁶ IET: Itemarekiko erantzun-teoria.

Hurrengo taulan ageri da ikasleek erakutsitako errendimendua, etxeko lanak egiteari eskaintzen dion denborarekin lotuta:

9. taula: *Ikasten ikasteko kompetentzian* Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen emaitzak etxeko lanak egiteari eskaintako orduen arabera.

Oro har, EGUNERO, eskola amaitu ondoren, zenbat denbora ematen duzu etxerako lanak egiten edo ikasten?	Kopurua	Batez besteko emaitza	Akats tipikoa	Desbideratze tipikoa
Oro har, ez dut etxerako lanik izaten, edo ez ditut egiten, ezta ikasten ere	298	227	3,0	51,4
Ordu bat edo gutxiago	3.641	253	0,8	50,2
Ordu bat eta bi ordu artean	2.061	252	1,1	48,1
Bi ordu baino gehiago	392	238	2,5	49,7

Azterketaren arabera, lotura dago etxeko lanik ez duten edo etxeko lanak egiten ez dituzten eta etxeko lanak egiten bi ordu baino gehiago igarotzen dituztenen artean. Etxeko lanak egiten ez dituztenek kompetentziaren batez bestekoak baino emaitza baxuagoak lortzen dituzte. Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da errore tipikoa handiagoa dela bi kategorietan, ikasle kopurua baxua delako. Hala eta guztiz ere, agerian geratzen da etxeko lanak bi orduz edo gehiagoz egiten dituztenek emaitza zertxobait hobek lortu dituztela (11 puntu) etxeko lanak egiten ez dituztenek baino.

Ez dago alderik etxeko lanak egiten ordubete edo gutxiago igarotzen duten eta ordubete eta bi ordu artean igarotzen duten ikasleen artean; bi taldeek batez bestekoak baino emaitza zertxobait altuagoa dute (1 edo 2 puntu). Bestalde, kontrako harremana antzeman da azterketan. Etxeko lanak egiten bi ordu baino gutxiago igarotzen dutela dioten ikasleek bi ordu igarotzen dituztela diotenen baino emaitza hobek lortu dituzte.

Etxeko lanak egiten bi ordu baino gehiago pasatzen dituzten Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek zergatik lortzen dituzten emaitza okerragoak azaltze aldera, etxeko lanak egiten bi ordu baino gehiago igarotzen dituztela diotenen arteko harremana eta beste aldagai batzuk aztertu dira: adin-egokitasuna, arloetako emaitzak eta sexua. Badirudi ez dagoela azalpen argirik. Populazio honek (392 ikasle) *Ikasten ikasteko kompetentzian* 238 puntu lortu dituen arren, arloetan mota guztietako notak lortu dituztela esan dute (% 50-% 65ek oso ongi edo bikain); mutilak % 55 dira eta neskek % 45, eta % 12 dira adin-egokitasunean ez dauden ikasleak. Euskadiko batez bestekoa baino datu altuagoa da azken hori (% 7). Ondorioz, etxeko lanei denbora asko eskaintzearen azalpena izan liteke ikastetxe batzuek besteek baino askoz ere etxeko lan gehiago agintzea.

Etxeko lanei eskaintako denboraren eta emaitzen arteko harremana antzekoa da ebaluatutako gainerako kompetentzietan, ñabarduraren bat tartean izanik. Hain zuzen ere, jokaera antzekoa izan da *Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* (euskaraz eta gaztelaniaz) eta *Matematikarako kompetentzian*. Aldiz, *Zientzia-*, *Teknologia-* eta *Osasun-kulturarako kompetentzian* eta *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian* zertxobait areagotu egin da etxeko lanetara ordubete edo gutxiago eskaintzen dutenen kontrako harremana, eta emaitza positiboa izan da.

3.5.7. Etxeko lanak egiteko laguntza

Bestalde, ikasleek galdetegian adierazten zuten norik laguntzen ziren etxeko lanak egiten eta zenbat denboratan aritzen ziren. Hauek dira erantzunen ehunekoak:

10. taula: *Ikasten ikasteko kompetentzian* Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen emaitzak etxeko lanak egiteari eskainitako laguntzaren arabera.

Eskolaren ostean, norik laguntzen dizu etxerako lanak egiten?	%*	Puntuazioak
Ez dit inork laguntzen	40,1	257
Irakasle partikular batek	9,9	222
Akademia batera joaten naiz	5,6	232
Amak laguntzen dit	56,4	251
Aitak laguntzen dit	43,6	250
Nire anai-arrebek edo lagunek laguntzen didate	19,5	246
Beste pertsona batzuek (ikastetxean, beste leku batzuetan...)	5,3	233

* Erantzun bat baino gehiago aukera zezaketen. Horrek azaltzen du ehunekoen batuketa 100ekoa baino altuagoa izatea.

Emaitza hobeak lortu dituztenak batera laguntzarik ez dutenak dira (257 puntu). Amaren edo aitaren laguntza (edo biena) jasotzen duten ikasleak kompetentziaren batez bestekoan kokatzen dira. Gainerako taldeek batez bestekoa baino emaitza baxuagoa dute, batez ere, irakasle partikular baten laguntza jasotzen dutela diotenek (222 puntu), akademia batera joaten direnek (232) edo “beste pertsona batzuen” laguntza jasotzen dutenek (233). Logikoa dirudi emaitza baxuago horiek ikaskuntza-prozesuan zailtasunak dituzten ikasleekin lotzea.

Aurreko galderarekin batera, beste galdera batean galdetu zitzaizen aurreko astean amak eta aitak zenbat denborako laguntza eman zieten. Hauek izan ziren erantzunak:

11. taula: *Ikasten ikasteko kompetentzian* Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen emaitzak etxeko lanak egiteko aitak eta amak emandako laguntza-orduen arabera.

Gutxi gorabehera, JOAN DEN ASTEAN, zenbat denbora eman dute amak eta aitak zuri laguntzen etxerako lanekin edota eskolako gaiekin?	Amak (%)	Aita (%)
Ez dit lagundu	28,1	38,7
Bi ordu baino gutxiago	44,6	36,8
Bi eta lau ordu artean	9,7	6,8
Lau eta sei ordu artean	3,3	2,4
Sei ordu baino gehiago	3,4	2,1
GUZTIRA	89,2	86,8

Galderetatik ondoriozta dezakegu hurbileko egoera bati buruzko galdera egindakoan (azken astean jasotako laguntza), laguntza jaso dutela aitortu dutenen ehunekoek gora egin dutela. Amak emandako laguntza-balio guztiak batuz gero, % 61eko kopurua lortzen da (aurreko galderan, % 56,4k adierazi zuen amak laguntza ematen ziola), eta aitak emandako laguntzaren batuketa % 48,1era iristen da (lehen % 43,6).

3.5.8. Emaitzak curriculum arloetan zailtasun mailarekin lotuta

Era berean, ikasleei egindako galdera-sortan, ebaluatutako kompetentziekin⁷ lotura zuzenagoa zuten hainbat curriculum arlotan dauden zailtasun mailen inguruan galdetu zitzairen. Erantzun horiek *Ikasten ikasteko kompetentzian* izan duten errendimendu mailarekin lotu dira. Ohiko eskola-lanean zailtasun gehien dituzten ikasleek kompetentzian emaitza baxuenak lortu izanaren hasierako hipotesia kontrastatu nahi izan da. Izan ere, *Ikasten ikasteko kompetentzia*, nolabait, gainerako kompetentziei eragiten dien metakompetentzia da.

Azterketaren emaitzak agerian jartzen du kompetentzian emaitza onak izan dituzten eta Euskara eta Ingurunearen ezaguera arloak “errazak” edo “oso errazak” iruditzen zaizkien ikasleen arteko korrelazio positiboa. Ildo horretatik, kompetentzian tarteko puntuazioak lortu dituztenek adierazi ohi dute arlo horiek ez zaizkiela ez errazak, ez zailak iruditzen (“normalak”). Eta azkenik, puntuazio baxuak Euskara eta Ingurunearen ezaguera “zailak” edo “oso zailak” iruditzen zaizkien ikasleekin daude lotuta.

Aldiz, emaitzek ez dute korrelazio onik adierazten Gaztelaniarekin duten zailtasunarekin lotuta emandako balorazioarekin.

Adibide moduan, hurrengo taulak *Ikasten ikasteko kompetentzian* ikasleen emaitzen arteko lotura erakusten du, baita Euskara, Gaztelaina eta Ingurunearen ezaguera arloetan duen zailtasun mailari buruzko balorazioa ere:

12. taula: *Ikasten ikasteko kompetentzian* Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen emaitzak ikasleek curriculum arloetan duten zailtasunaren arabera.

Nolako iruditzen zaizu hurrengo arloa?	Euskara		Gaztelania		Ingurunearen ezaguera	
	Batez besteko emaitza	Akats tipikoa	Batez besteko emaitza	Akats tipikoa	Batez besteko emaitza	Akats tipikoa
Oso erraza	252	1,1	248	0,9	259	1,4
Erraza	257	1,2	257	1,2	258	1,1
Normala	249	1,1	251	1,5	247	1,0
Zaila	234	2,4	246	4,1	237	1,8
Oso zaila	222	3,6	224	5,1	215	2,5

Arlo bakoitzari dagozkien emaitzen arteko aldeak adierazgarriak dira, “oso erraza” edo “erraza” erantzun zutenen Ingurunearen ezaguerako puntuazioen artean izan ezik.

⁷ Galdetegian ikasleei ez zitzairen galdetzen Matematika arloko zailtasun edo erraztasun mailaren inguruan.



Aipatutako datuen azterketatik abiatuta, kompetenziaren lehen dimentsioarekin, hau da *Ikaskuntzarako gaitasunen eta ezagueren kontzientziarekin* zuzenean lotzen den ondorio bat atara daiteke. Laburbilduz, esan genezake Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek Ingurunearen ezaguera arloari buruzko iritziaren eta *Ikasten ikasteko kompetentzian* eta Euskaran lortutako emaitzen arteko pertzepzio egokitua dutela, “oso erraza” iruditzen zaiela diotenen kasuan izan ezik.

3.6. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ondorioen laburpena

Jarraian, Lehen Hezkuntzako 4. mailan *Ikasten ikasteko kompetentzian* egindako azterketako ondorioen laburpena ageri da:

- Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 80k kompetentziaren hasierako maila gainditu dute, baina % 12k soilik lortu du maila aurreratua.
- Itunpeko sareko geruzek sare publikokoek baino emaitza hobekak lortu dituzte.
- Neskek mutilek baino emaitza hobekak lortu dituzte.
- Adin-egokitasun egoeran eskolatutako –adinarekin bat datorren irakasmailan– ikasleen emaitzek adin-egokitasun egoeran ez daudenena gainditzen dute.
- Proba familia-hizkuntzan egiten duten ikasleak dira emaitza hobekak dituztenak, batez bestekoak baino emaitza altuagoak.
- *Ikasten ikasteko kompetentzian* errendimendurik onena duten ikasleek bat egiten dute 2013ko Ebaluazio diagnostikoan ebaluatutako gainerako kompetentzietan emaitzarik onenak lortzen dituzten ikasleekin.
- *Ikasten ikasteko kompetentzian* errendimendurik onena izan duten ikasleek aurreko ikasturtean curriculum arloetan kalifikazio onenak lortu zituzten ikasleekin bat egin dute.
- Zenbat eta maila sozioekonomiko eta kultural handiagoa, *Ikasten ikasteko kompetentzian* orduan eta emaitza hobekak lortuko da.
- ISEKek kompetentzia honen emaitzetan izan duen eragina agerikoa den arren, zenbait ikastetxek edo ikastaldek esperotakoak baino emaitza hobekak lortu dituzte.
- Egunero etxeko lanak egiten ordubete baino gutxiago eta bi ordu artean pasatzen dutela dioten Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek emaitza hobekak lortzen dituzte bi ordu baino gehiago egoten direla diotenek edo etxeko lanik ez dutela edo dituztela egiten diotenek baino.
- Maila honetako ikasleen % 40k baino gehiagok adierazi dute inork ez dietela laguntzen etxeko lanak egiten. Ikasleen % 43-% 56k adierazi dute aitak edo amak (hurrenez hurren) laguntzen dietela. Galderak ez ziren baztertzailak.
- Euskara eta Ingurunearen ezaguera arloak “errazak” edo “oso errazak” iruditzen zaizkien ikasleek lortzen dituzte emaitzarik onenak *Ikasten ikasteko kompetentzian*.

Hemen adierazten diren ondorio gehienak gainerako kompetentzien azterketan ondorioztatzen direnen antzekoak dira (ikus ED13ren txostena). Hori dela eta, ondoriozta daiteke Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen ezaugarri orokorrak osatzen dituztela.



DBHko 2. maila



4. DBHko 2. MAILAKO EMAITZAK

4.1. Emaidza orokorra eta dimentsioen arabera banakatzea

2013ko Ebaluazio diagnostikoan *Ikasten ikasteko kompetentzia* ebaluatu da lehen aldiz, eta ondorioz, batez bestekoa 250 puntutan ezarri da.

13. taula: DBHko 2. mailako emaitza orokorra *Ikasten ikasteko kompetentziaren* ebaluazioan.

Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Akats tipikoa	Desbideratze tipikoa
6.180	89	386	250	0,64	50,00

Era berean, kompetentzia honen bi dimentsioen datu bereziak aurkezten dira: *Ikaskuntzarako gaitasunen eta ezagueren kontzientzia* eta *Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea*.


14 taula: *Ikasten ikasteko kompetentziaren ebaluazioan*, DBHko 2. mailan, emaitzak dimentsioen arabera.

	Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Akats tipikoa	Desbideratze tipikoa
Ikaskuntzarako gaitasunen eta ezagueren kontzientzia	6.180	90	366	250	0,64	50,00
Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea	6.180	88	385	250	0,64	50,00

4.2. Ikasleen banaketa errendimendu mailen arabera

Kompetentzia honetan, 4.2.a grafikoan ikus daitekeen moduan, ikasleen ia % 81ek gaintzen ditu hasierako mailarekin lotutako trebeziak. Lehen Hezkuntzako 4. mailan lortutakoaren antzeko ehunekoak da. Hala eta guztiz ere, erdi-mailan eta maila aurreratuan guztiz osaera desberdina antzematen da: DBHko 2. mailan, ikasleen ia % 34 maila aurreratuan kokatzen da, eta Lehen Hezkuntzako 4. mailan, ehunekoak % 12,5ekoa zen. Lehen irudipenaren arabera, ikasleen herenak baino gehiagok, eskolatzean, kompetentzia maila egokia garatu du *Ikasten ikasteko kompetentzian*, DBHko 2. mailara arte, jabetzen da kompetentzia mailaz eta eskolan eta beste ingurune pertsonal batzuetan trebezia horiek erabiltzeko moduan dago. Beste muturrean, % 20 inguruk ez ditu lortu kompetentzia honen trebeziarik oinarrikoenak eta ez da askorik jabetzen gaitasun kognitiboek eta ikaskuntza-aukerez.

4.2.a grafikoa. ED13-DBH2. Ikasleen banaketa *Ikasten ikasteko kompetentziako* errendimendu mailen arabera.




4.3. Emaitzen sakabanaketa ISEK mailaren arabera

3.3. atalean adierazi den moduan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako azterketari dagokionez, ebaluazio guztietan lotura egon ohi da ikaslearen maila sozioekonomiko eta kultural (ISEK) desberdinaren eta ikasleek lortu duten errendimenduaren artean. Hori berretsi egin da ED13an. Txosten honen hasieratik jakinarazi da *Ikasten ikasteko kompetentziaren* ebaluazioa lagin zabal baten bidez egin zela, ikastetxe bakoitzeko ikasle batzuek osatuta. Aldiz, ikasle taldeen artean aldeak nabaritu ahal izan dira, eta oro har 4.3.a barreiadura-grafikoan ageri dira:

Grafiko-puntu bakoitzak ikastetxe berari dagokion ikasleen multzoa adierazten du. Dagokien ISEKen batez bestekoa kalkulatu da. Azkenik, bi aldagairen arabera kokatu dira: ISEK maila eta kompetentzia honetako emaitza.

Erregresioa izeneko lerro inklinatuak ISEK mailaren arabera talde zehatz baten esperotako errendimendu maila adierazten du. Hori dela eta, ISEK maila zenbat eta altuagoa izan, emaitza hobea espero daiteke. Erregresio-lerroaren gainetik kokatutako puntuak ISEK mailaren arabera esperotakoa baino emaitza hobea lortu dute. Erregresio-lerroaren behetik kokatu direnak esperotakoa baino emaitza baxuagoa lortu dute. Azkenik, lerroaren gainetik daudenak esperotako emaitza duten ikastetxeak dira. Azken kasu honetan, kontuan izan behar da erregresio-lerrotik 15 puntu ingurura dauden puntuak ISEKen arabera espero daitekeen emaitza gisa har daitekeen eremuaren baitan leudekeela.


4.3.a. grafikoa. ED13-DBH2. Ikasten ikasteko kompetentzia lagineko ikastetxeen errendimendu maila ISEK mailaren arabera.



Espero zitekeen moduan, puntu gehienak bi ardatzek bat egiten duten – batez besteko ISEK bertikala eta batez besteko puntuazioaren horizontala– puntuaren inguruan biltzen dira. Sakabanaketa-eredu mota honek, oro har, ED13an ebaluatutako gainerako kompetentzietan ikusitakoarekin bat egiten du.

Grafikoa koadranteen arabera aztertzen baldin bada, honako hau ikusten da:

4.3.b. grafikoa. ED13-DBH2. Ikasten ikasteko kompetentzia lagineko ikastetxeen errendimendu maila ISEK mailaren arabera.



*Ardatz bertikalaren balioa 150 eta 350 artean dago adierazita (gutxieneko eta gehieneko puntuazio-mugak) ikastetxe guztietan koadranteen banaketa argiago ikusteko.

- Ezkerreko goiko koadranteak batez bestekoa baino ISEK baxuagoa duten eta EAeko batez bestekoak baino emaitza altuagoak lortu dituzten lagineko zentroak biltzen ditu.
- Ezkerreko beheko koadranteak lagineko batez bestekoa baino ISEK baxuagoa duten eta 250 puntuko batez besteko emaitza lortzen ez duten ikastetxeak biltzen ditu.
- Eskuineko goiko koadranteak kompetentzian EAeko batez bestekoa baino ISEK altuagoa duten eta batez bestekoa baino errendimendu maila altuagoa lortu duten ikastetxeak biltzen ditu.
- Azkenik, eskuineko beheko koadrantean, ISEK maila batez bestekoa baino altuagoa izan arren, kompetentzian batez besteko puntuazioa baino emaitza baxuagoa lortu dutenak biltzen dira.

Lau koadranteetan, puntuazio desberdinetan banatutako ikastetxeak ageri dira, baina deigarria da (modu positiboan) ISEK maila nabarmen baxua izan eta emaitza ona lortu dutenen kasua. Kontrako kasuan, eta antzeko proportzioan, ISEK maila altua izan eta espero baino errendimendu baxuagoa (zenbaitetan, kompetentziaren batez besteko orokorraren azpitik) lortu dutenen kasua ere deigarria da.


4.4. Bilakaera geruzen arabera (hizkuntza-eredua eta hezkuntza-sarea)

Ebaluazio diagnostikoan kompetentzia lehen aldiz ebaluatzen den aldi oro ezartzen den 250 puntuko batez bestekotik abiatuta, jarraian, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden sei geruzen arabera (sarea eta hizkuntza-eredua gurutzaketa) aztertzen dira emaitzak.

4.4.1. Emaitza orokorrak

4.4.a grafikoan, *Ikasten ikasteko kompetentzian* geruza desberdinek lortutako batez bestekoa eta horiek guztiek lortutako puntuazioen arteko aldean adierazgarritasuna ageri da.

4.4.a grafikoa. ED13-DBH2. *Ikasten ikasteko kompetentziako emaitzak geruzen arabera.*




Puntuazioen artean aldeak dauden arren, alde horiek ez dira beti estatistika-ikuspegitik adierazgarriak izaten. Adierazgarritasunaren ikuspegitik batez besteko puntuazioen arteko aldeak aztertu ostean, honako ondorio hauetara iristen gara:

- A eta B publikoek emaitza berberak lortu dituzte eta gainerako geruzak baino nabarmen baxuagoak dira.
- Emaitzarik onenak itunpeko A eta D geruzek lortu dituzte. Horien artean ez dago alde adierazgarririk.
- D publiko eta itunpeko B geruzek emaitza berberak lortu dituzte, itunpeko A eta D geruzen emaitzak baino baxuagoak, baina A eta B publikokoak baino nabarmen altuagoak.

4.4.2. Ikasleen banaketa errendimendu mailen arabera

Hurrengo grafikoan ikus daiteke hasierako maila gainditzen duen ikasle-ehuneko altuena duen geruza itunpeko D dela (% 86,2). A eta B publikoan % 64,8k (hurrenez hurren) gainditzen du hasierako maila. Itunpeko A eta D geruzek lortu dituzte emaitza orokor onenak. Era berean, kompetentzia honetan, geruza horiek lortu dute maila aurreratuan (% 40,8 eta % 44,1 artean) ikasle-ehuneko handiena. Azkenik, nabarmendu beharrekoa da hasierako mailak A eta B geruza publikoetan duen indarra (% 35 gutxi gorabehera). Geruza horiek oso antzeko ehunekoak dituzte maila aurreratuan ere (% 17 inguru).

4.4.b grafikoa. ED13-DBH2. Ikasleen banaketa Ikasten ikasteko kompetentziako errendimendu mailen arabera, geruzetan banatuta.




2. eranskinean, hiru errendimendu mailekin lotutako gaitasunen inguruan izaera kualitatiboko informazioa topa daiteke.

4.4.3. Emaitzak geruzen eta ISEKen arabera

Atal honetan, geruza bakoitzak lortutako batez besteko puntuazioa eta ISEK maila kontrolatuko balitz geruza horietako bakoitzak lortuko lukeen batez besteko puntuazioa ageri dira, hau da, faktore sozioekonomikoen eta kulturaren eragina baliogabetuko balitz.

4.4.C grafikoa. ED13-DBH2. Batez besteko puntuazioa eta banakako ISEK kontrolatu osteko puntuazioa geruzen arabera *Ikasten ikasteko kompetentzian*.



Batez besteko puntuazioak ISEK kontrolatuta aztertzen baldin badira, honako hau ondoriozta dezakegu:

- ISEK berdintzean, A geruza publikoan soilik gertatuko litzateke hobekuntza nabarmena. Gainerako geruzetako emaitzak ez lirateke aldatuko; izan ere, ez dago alde nabarmenik lortutako batez bestekoaren eta ISEK kontrolatzearen ondoriozko batez bestekoaren artean.
- Ondorioz, 4.4.a grafikoa adierazten diren geruzen artean alde adierazgarri berberak mantentzen dira.
- Itunpeko A geruzak gainerakoak gainditzen ditu, itunpeko D geruza izan ezik, eta azken horrek gainerakoak gainditzen ditu.
- Itunpeko B geruzak A eta B publikoak gainditzen ditu, baina D publikoarekin berdinduta dago.

4.5. Emaitzak, zenbait aldagairen arabera DBHko 2. mailan

Interesgarria da ikaslearen errendimenduaren berri izatea zenbait aldagai kontuan izanda. Hurrengo ataletan honako hauek aztertuko dira: mutilen eta nesken emaitzak bereizita, emaitzak eskolatzeko-egokitasunaren arabera, eta familia-hizkuntzaren edo probako hizkuntzaren araberrako emaitzen alde. Gainera, curriculumaren zeharkako izaerarekin, *Ikasten ikasteko kompetentziaren* emaitzek ebaluatu diren gainerako kompetentziekin duten korrelazioa ere aztertuko da, baita etxeko lanek duten eragina ere.

4.5.1. Emaitzak ikaslearen sexuaren arabera


Atal honetan, mutilen eta nesken emaitza orokorrak, errendimendu mailen araberrako banaketa eta ED13an ebaluatutako gainerako kompetentzietan batzuen eta besteen errendimenduen aldeak edo antzekotasunak aztertzen dira.

4.5.1.1. *Emaitza orokorrak eta errendimendu mailen arabera*

4.5.a grafikoan ikus daiteke *Ikasten ikasteko kompetentzia* neskek mutilek baino 22 puntu gehiago lortu dituztela. Hizkuntza-osagai handiko proba da. Hori dela eta, pentsa liteke emaitza horiek bat datozela ebaluatu diren *Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzietan* (euskara eta gaztelania) lortutakoekin. Hala eta guztiz ere, ED13an, DBHko 2. mailan, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia*, neskek 13 puntu gehiago lortu dituzte eta *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia* 3 puntukoa izan da aldea; hau da, *Ikasten ikasteko kompetentzia* baino txikiagoa izan da aldea (azterketa zehatzagoaren berri izateko, ikus hurrengo atala).


Bestalde, deigarria da mutilen eta nesken arteko alde hori handitu egin delako Lehen Hezkuntzako 4. mailarekin alderatuta; hain zuzen ere, 14 puntutik 22 puntura pasatu da DBHko 2. mailan.

4.5.a grafikoa. ED13-DBH2. Ikasten ikasteko kompetentziako emaitzak ikasleen sexuaren arabera.



Puntuazio hauekin bat etorritik, errendimendu mailen banaketa-datuak aztertzen baldin badira (4.5.b grafikoa) ikus daiteke hasierako mailan mutilen kopurua % 13 altuagoa dela (hasierako mailan dauden mutilen kopurua neskenaren bikoitza da), eta alde hori alderantzikatu egiten da maila aurreratuetan (neskak % 41,5 eta mutilak % 26,8).

4.5.b grafikoa. ED13-DBH2. Ikasleen banaketa Ikasten ikasteko kompetentziako errendimendu mailen eta sexuaren arabera.



4.5.1.2. ED13an ebaluatutako kompetentzia guztietan emaitzen azterketa alderagarria sexuaren arabera

Ikasten ikasteko kompetentzian DBHko 2. mailako ikasleen jokaerak ED13an ebaluatutako gainerako kompetentzietan lortutako errendimenduari nolabaiteko antzekotasunak badituen jakiteko, eta Lehen Hezkuntzako 4. mailan ikusitako aldeak mantentzen diren egiaztatzeke, emaitzak ikasleen sexuaren arabera berrikusi dira.

DBHko 2. mailako ikasle neskek emaitza hobeak dituztela ikusi da; ez *Ikasten ikasteko kompetentzian* soilik, baita ebaluatu diren oinarrizko kompetentzia guztietan ere, *Matematikarako kompetentzian* izan ezik. Azken horretan, mutilek emaitza hobeak lortu dituzte. Baina alderik handiena *Ikasten ikasteko kompetentzian* (22 puntu) ikusten da.

3.5.1.2 atalean jakinarazi da horrelako alderaketek ez dutela zuzentasun zientifikorik, oinarrizko kompetentzien eta irakasmaila desberdinetako proba independenteak direlako, baina ezin da ahaztu proba berberari erantzun behar badiote, proba edozein izanda ere, neskek eta mutilek emaitza desberdina dutela.


Ikasten ikasteko kompetentziari dagokionez, ezin da azaldu zer faktore egon daitezkeen errendimendu maila desberdinaren azpian, aipatutako 3.5.1.2. atalean adierazitako zenbait hipotesi baino harago.

4.5.2. Emaitza orokorrak irakasmailan ikaslearen adin-egoitasun egoeraren arabera

Ikasleak adin-egokitasun egoeran daudela esango dugu jaiotza-urtearen arabera dagokien irakasmailan daudenean. Aldiz, adin-egokitasun egoeran ez dauden ikasleak izango dira ikasturte bat edo gehiago errepikatu dituztenean edo eskolatze berantiarra izan dutenean. 2013ko Ebaluazio diagnostikoan 1999an jaiotako DBHko 2. mailako ikasleak hartu dira egokitatzat.

Ebaluazio diagnostiko hauetan guztietan zehar eta kompetentzia guztietan gertatu den moduan, Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan, adin-egokitasun egoeran ez dauden ikasleek, *Ikasten ikasteko kompetentzian*, adinarekin bat datorren irakasmailan eskolatuta dauden ikasleek baino emaitza nabarmen baxuagoak lortu dituzte.

4.5.c grafikoa. ED13-DBH2. Jaiotza-urtearen eta adin-egokitasun egoeraren araberako emaitzak *Ikasten ikasteko kompetentzian*.



Alde hori ED13an ebaluatutako gainerako kompetentzietan gertatzen denaren oso antzekoa da.

4.5.3. Emaitzak familia-hizkuntzaren eta probako hizkuntzaren arabera

Ikastetxeek ikasleek proba egin zezaten hizkuntza hautatzeko bi aukera izan dituzte: euskara edo gaztelania. Ebaluazio diagnostikoen edizio bakoitzean, ikastetxeei esaten zaie erabaki behar dutela ikasleek probak heziketa-hizkuntzan (euskara D eredurako, gaztelania A eredurako, eta B ereduko ikastetxeek probako hizkuntza aukeratu behar dute, euskara edo gaztelania, hizkuntzarekin lotu gabeko kompetentzietako probak egiteko) edo familia-hizkuntzan ⁸ egingo dituzten. Familia-hizkuntzaren kasuan, ikasle bakoitzak familia-ingurunean gehien erabiltzen den komunikazio-hizkuntzan egiten du proba.

Kompetentzia honetan, proba egiteko erabili zen hizkuntzak ikastetxeek "Proba mistoa" izenkorako aukeratutako hizkuntzarekin bat egin zuen. Proba misto horretan, *Zientzia-, teknologia-, eta osasun-kulturarako kompetentziako* eta *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako* itemak bildu ziren.

Hurrengo taulan, *Ikasten ikasteko kompetentzian* sartutako DBHko 2. mailako ikasleak eta bi datu garrantzitsu ageri dira: familia-hizkuntza eta proba egin zeneko hizkuntza.

15. taula: DBHko 2. mailako ikasleen emaitza orokorrak probako hizkuntzaren eta familia-hizkuntzaren arabera.

Familia-hizkuntza	Probako hizkuntza	Kopurua	Puntuazioa	Akats tipikoa
Euskara ez dena	Euskara	3.241	244	0,9
	Gaztelania	1.431	255	1,4
Euskara	Euskara	1.130	264	1,4
	Gaztelania	11 **	--	--

* Kalkulu hauetan ez dira kontuan hartu ikasleen % 5,93k (6.180 parte-hartzailearen guztizkoaren 367) familia-hizkuntzari dagokionez emandako "erantzunik ez" kasuak.

** Familia-hizkuntza gisa euskara izanik proba gaztelaniaz egin zuten ikasle kopuru txikia dela eta, emaitzak estatistikoki ez dira garrantzitsuak. Horregatik ezabatu dira taulatik.

Lehen analisiaren arabera, ikasleen % 70ek proba euskaraz egin zuten. Bestalde, ikasleen % 75,6en familia-hizkuntza gaztelania edo euskara ez zen besteren bat zen.

Probako errendimenduari dagokionez, proba familia-hizkuntzan egiten duten ikasleek emaitza hobeak, batez bestekoak baino emaitza altuagoak, dituztela ondorioztatu da. Lehen taldean, familia-hizkuntza "euskara ez dena" (gaztelania edo beste bat) duten ikasleak daude, proba gaztelaniaz egin dutenak, 255 punturekin; bigarrenik, proba euskaraz egin zuten eta etxean euskaraz hitz egiten duten ikasleek 264 puntu lortu dituzte.

Aldiz, familia-hizkuntza "euskara ez den" besteren bat duten, baina proba euskaraz egin duten ikasleek 244 puntu lortu dituzte. Oro har, D ereduan eskolatutako ikasleak dira, baina badaude probako hizkuntza euskara duten, baina euskaldunak ez diren familia-ingurune soziolinguistikoetatik datozen B ereduko ikasle batzuk ere. Euskara, batez ere, eskola-ingurunean erabiltzen dute. Ondorioz, hizkuntza erdiesteko prozesuan dauden, baina proba gaztelaniaz egin dutenen artean gertatzen den *input* familiarrik ez duten ikasleak dira.

⁸ Ikasleen galdera-sortan, ebaluazio honetan parte hartu zuten ikasle guztien etxeko hizkuntza hartu zen aintzat. Ikaslea familia euskaldunekotzat hartzen da aitak edota amak euskaraz hitz egiten dutenean eta etxean euskaraz hitz egiten dutenean beti edo ia beti. Gainerako kasuak "Euskara ez dena" kategorian sartzen dira. Gehienak etxean gaztelaniaz hitz egiten dutenak dira, baina badira etxeko hizkuntza beste bat duten ikasleak ere.

16. taula: Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleen errendimendu mailen arabera emaitzak, probako hizkuntzaren eta familia-hizkuntzaren arabera.

Familia-hizkuntza	Probako hizkuntza	Kop. guztira	Hasierako maila		Erdi-maila		Maila aurreratua	
			Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskara ez dena	Euskara	3.241	701	21,6	1.612	49,7	928	28,6
	Gaztelania	1.431	250	17,5	636	44,4	545	38,1
Euskara	Euskara	1.130	139	12,3	472	41,8	519	45,9

Errendimendu mailen arabera ikasleen portaera aztertzen baldin badugu, familia-hizkuntza euskara duten ikasleen emaitza orokorrak gora egiten duela konturatu gara. Proba euskaraz egiten duten ikasleen ia % 46 maila aurreratuan dago (% 87,7k hasierako maila gainditzen du) eta horrek azalduko luke 264 puntuko emaitza.

Bestalde, gaztelaniaz hitz egiten duten edo beste hizkuntza bat hitz egiten duten eta proba gaztelaniaz egiten duten ikasleen % 82,5ek kompetentzia honetako hasierako maila gainditzen du.

4.5.4. Ebaluatutako beste kompetentzien emaitzen eta Ikasten ikasteko kompetentziaren arteko korrelazioa

Ebaluatutako gainerako kompetentzietan lortutako emaitzak *Ikasten ikasteko kompetentzian* lortutako emaitzekin bat datozen jakiteko, Pearsonen korrelazio-koefizientea erabiltzen da. Hauek dira lortutako koefizienteak:

17. taula: *Ikasten ikasteko kompetentzian* eta ebaluatutako gainerako kompetentzietan, DBHko 2. mailan, emaitzen arteko Pearsonen korrelazioa.

		Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	Matematikarako kompetentzia	Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako kompetentzia	Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia
Ikasten ikasteko gaitasuna (6.180)	Pearsonen korrelazioa	0,557	0,599	0,555	0,625	0,655
	Kopurua	4.864	4.906	5.961	5.865	5.864

Ikus daitekeen moduan, korrelazioa 0,50etik gorakoa da. Hori dela eta, esan daiteke DBHko 2. mailako ikasleen laginako *Ikasten ikasteko kompetentziako* emaitzak bat datozela ikasle horiek ED13an ebaluatutako gainerako kompetentzietan lortutako emaitzekin.

4.5.5. Emaitzak kompetentzien eta arloetako errendimenduaren arabera

Jakin nahi zen loturarik bazegoen eta zer neurritan zegoen ikasleen kalifikazioen eta ED13an *Ikasten ikasteko kompetentzian* lortutako errendimenduaren artean. Galdera-sortan galdetu zitzaizkien aurreko ikasturtean Euskara, Gaztelania, Matematika, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia eta Natur Zientziak arloetan zer nota izan zituzten. Honela zeuden antolatuta: gutxiegi, nahikoa, ongi, oso ongi eta bikain.

Ebaluazioaren aurreko ikasturtean lortu zituzten notek eta *Ikasten ikasteko kompetentzian* puntuazioak izan dezaketen korrelazioa ezagutzeko, EDn ikasleen batez besteko emaitza lortu da, arlo bakoitzean izan dituzten emaitzen arabera taldekatuta:

18. taula: aurreko ikasturteko arloetako errendimenduaren eta DBHko 2. mailan *Ikasten ikasteko kompetentzian* lortutako puntuazioa arteko lotura.

Aurreko ikasturtea	Euskara		Gaztelania		Matematika		Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia		Natur Zientziak	
	Ikasten ikasteko puntuazioa	Akats tipikoa	Ikasten ikasteko puntuazioa	Akats tipikoa	Ikasten ikasteko puntuazioa	Akats tipikoa	Ikasten ikasteko puntuazioa	Akats tipikoa	Ikasten ikasteko puntuazioa	Akats tipikoa
Gutxiegi	217	1,9	213	1,9	217	1,7	213	2,0	212	2,0
Nahikoa	229	1,3	227	1,4	231	1,4	227	1,5	226	1,4
Ongi	243	1,3	244	1,3	241	1,4	239	1,3	241	1,4
Oso ongi	267	1,0	263	1,0	261	1,0	260	1,0	260	1,0
Bikain	288	1,6	287	1,6	285	1,4	284	1,3	285	1,3

Aurreko datuek erakusten dute *Ikasten ikasteko kompetentziako* emaitzak bat datozela ikasleek aurreko ikasturtean alor bakoitzean lortu zituztela aitortutakoekin. Hau da, arloetako emaitzak zenbat eta hobeak izan, *Ikasten ikasteko kompetentzian* lortutako puntuazioak orduan eta altuagoak izango dira. Kasu guztietan, emaitzak txikitik handira doaz, arloetako kalifikazioekin alderatuta. Talde bakoitzaren artean lortutako kalifikazioaren arabera kompetentziako emaitzen aldeak adierazgarriak dira.

Ikasten ikasteko kompetentzian IETan lortutako puntuazioaren eta ikasleek aurreko ikasturteko arloei dagokienez aitortutakoaren arteko korrelazioa positiboa eta adierazgarria da. Korrelazio maila Pearsonen koefizienteak neurtzen du. Koefizientea 0,430etik hasi (Matematikaren) eta 0,458ra doa (Natur Zientzietan). Lehen Hezkuntzako 4. mailan baino zertxobait altuagoak dira.

Ondorio gisa, esan genezake ikasteko moduari buruzko kontzientzia zenbat eta handiagoa izan eta ikaskuntza-prozesuen kudeaketa maila (*Ikasten ikasteko kompetentziaren* bi azpikonpetentziak) zenbat eta handiagoa izan, ikasketetan, errendimendu akademikoan, orduan eta emaitza hobeak lortuko dituzte.

4.5.6. Etxeko lanek eskaintako orduen araberrako emaitzak

ED13ko ikasleen galdera-sortan, etxeko lanak egiten pasatzen duten denboraren inguruko galdera egin zen.

Ikasleek galdera horri emandako erantzunak Ebaluazio diagnostikoko edizio honetan lortu dituzten emaitzekin lotu dira. Etxeko lanak egiten igarotzen duten denboraren eta ED13an *Ikasten ikasteko kompetentzian* erakutsitako errendimenduaren artean loturaren bat ezartzerik badagoen jakitea zen helburua.

Hurrengo taulan ageri da ikasleek erakutsitako errendimendua, betiere, etxeko lanak egiteari eskaintzen dioten denborarekin lotuta:

19. taula: *Ikasten ikasteko kompetentzian* DBHko 2. mailako ikasleen emaitzak etxeko lanak egiteari eskaintako orduen arabera.

Oro har, EGUNERO, eskola amaitu ondoren, zenbat denbora ematen duzu etxeko lanak egiten edo ikasten?	Kopurua	Batez besteko emaitza	Akats tipikoa	Desbideratze tipikoa
Oro har, ez dut etxeko lanik izaten, edo ez ditut egiten, ezta ikasten ere	274	218	3,4	56,5
Ordu bat edo gutxiago	1.949	248	1,1	50,3
Ordu bat eta bi ordu artean	2.838	254	0,9	48,0
Bi ordu baino gehiago	750	255	1,7	47,9

Azterketaren arabera, *Ikasten ikasteko kompetentziako* emaitzak nabarmen bat datoz ikasleek egunero etxeko lanak egitera edo ikastera eskaintzen duten ordu kopuruarekin. Salbuespen bakarra gertatzen da ordu bat eta bi ordu artean eskaintzen dutela eta etxeko lanak egiten edo ikasten bi ordu baino gehiago pasatzen dituztela diotenen artean. Lehen Hezkuntzako 4. mailan, bi ordu baino gehiago eskaintzea puntuazio baxuarekin (238 puntu) zegoen lotuta; aldiz, DBHko 2. mailan, bi ordu baino gehiago eskaintzen dizkiola dioen ikasleak batez bestekoak baino puntuazio altuagoa lortu du (255 puntu).

Gogoratu behar da harreman hori inola ere ezin dela interpretatu kausa-efektu gisa. Hala eta guztiz ere, badirudi etxeko lanak ez duten edo egiten ez dituzten ikasleak direla *Ikasten ikasteko kompetentzian* emaitzarik baxuenak atera dituztenak.

“Etxeko lanak ez dutela edo ohikotasunez ez dituztela egiten” dioten (274) populazioaren azterketa zehatzagoa egiten baldin bada, nabarmentzekoa da ikasle horiek direla joan den ikasturtean DBHko arloetan (% 30 baino gehiago) "gutxiegi" ehuneko altuenak izan zituztenak. Eskolatze mailarekiko adin-egokitasunari edo egokitasun ezari dagokionez, 274 ikasle horietatik, % 57,7k errepikatu egin dute eta adin-egokitasunean ez dauden ikasleen % 13 dira. % 69 mutilak dira.

4.5.7. Etxeko lanak egiteko laguntza

Galdera-sortako beste galdera batean, ikasleek adierazten zuten nork laguntzen zien etxeko lanak egiten eta zenbat denboran aritzen ziren. Hauek dira erantzunen ehunekoak:

20. taula: *Ikasten ikasteko kompetentzian* DBHko 2. mailako ikasleen emaitzak etxeko lanak egiteari eskainitako laguntzaren arabera.

Eskolaren ostean, norik laguntzen dizu etxerako lanak egiten?	%*	Puntuazioak
Ez dit inork laguntzen	57,1	258
Irakasle partikular batek	14,9	229
Akademia batera joaten naiz	10,4	240
Amak laguntzen dit	25,0	251
Aitak laguntzen dit	18,9	254
Nire anai-arrebek edo lagunek laguntzen didate	13,6	245
Beste pertsona batzuek (ikastetxean, beste leku batzuetan...)	4,4	232

* Erantzun bat baino gehiago aukera zezaketen. Horrek azaltzen du ehunekoak batuketa 100ekoa baino altuagoa izatea.

Emaitza hobeak lortu dituztenak batera laguntzarik ez dutenak dira (258 puntu). Amaren edo aitaren laguntza (edo biena) jasotzen duten ikasleak kompetentziaren batez bestekoan gaineratik (zertxobait) kokatzen dira, eta bien artean ez dago alde nabarmenik. Gainerako taldeetatik, irakasle partikular baten laguntza behar dutenak (229 puntu) edo “beste pertsona batzuen” laguntza jasotzen dutenak (232) dira egoera okerragoan daudenak. Akademia batera joaten direnek (240) eta anai-arreben edo lagunen laguntza jasotzen dutenak (245) emaitzekin antzeko korrelazio maila dute. Emaitzarik baxuenak ikaskuntza-prozesuan zailtasunak dituzten ikasle motarekin erlazioa daitezke.

Taulari buruzko azken aipamen bat. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek baino DBHko 2. mailako ikasle gehiagok adierazi dute ez dietela inork laguntzen. Hainbat faktorek eragin dezake horretan: beste batzuen artean, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek baino autonomia handiagoa izatea etxeko lanak egiteko.

Aurreko galderarekin batera, beste galdera batean galdetu zitzaizen aurreko astean amak eta aitak zenbat denborako laguntza eman zieten. Hauek izan ziren erantzunak:

21. taula: *Ikasten ikasteko kompetentzian* DBHko 4. mailako ikasleen emaitzak etxeko lanak egiteko aitak eta amak emandako laguntza-orduen arabera.

Gutxi gorabehera, JOAN DEN ASTEAN, zenbat denbora eman dute aitak eta amak etxerako lanak egiten edota eskolako gaiekin?	Amak (%)	Aitak (%)
Ez dit lagundu	51,7	58,8
Bi ordu baino gutxiago	28,0	23,7
Bi eta lau ordu artean	7,7	5,0
Lau eta sei ordu artean	1,9	1,2
Sei ordu baino gehiago	1,6	1,0
GUZTIRA	90,1	89,7

Galderetatik ondoriozta dezakegu hurbileko egoera bati buruzko galdera egindakoan (azken astean jasotako laguntza), laguntza jaso dutela aitortu dutenen ehunekoak nabarmen gora egin duela. Amak emandako laguntza-balio guztiak batuz gero, % 39,1eko kopurua

lortzen da (aurreko galderan, % 25,0k adierazi zuen amak laguntza ematen ziola), eta aitak emandako laguntzaren batuketa % 30,9era iristen da (lehen % 18,9).

4.5.8. Emaitzak curriculum arloetan zailtasun mailarekin lotuta

Ikasleei egindako galdera-sortan, ebaluatutako konpetentziekin⁹ lotura zuzenagoa zuten hainbat curriculum arlotan dauden zailtasun mailen inguruan galdetu zitzairen. Erantzun horiek *Ikasten ikasteko konpetentzian* izan duten errendimendu mailarekin lotu dira. Ohiko eskola-lanean zailtasun handia izan duten ikasleek *Ikasten ikasteko konpetentzian* emaitza baxua lortu izanaren hasierako hipotesia kontrastatu nahi izan da. Kontuan izan behar da *Ikasten ikasteko konpetentzia*, nolabait, zeharkakoa dela gainerakoarekiko, eta alderantziz.

Azterketaren emaitzak agerian jartzen du konpetentzian emaitza onak izan dituzten eta Euskara, Gaztelania, Natur Zientziak eta Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia arloak “errazak” edo “oso errazak” iruditzen zaizkien ikasleen arteko korrelazio positiboa. Ildo horretatik, konpetentzian tarteko puntuazioak lortu dituztenek adierazi ohi dute arlo horiek ez zaizkiela ez errazak, ez zailak iruditzen (“normalak”). Eta azkenik, puntuazio baxuak aipatutako arloak “zailak” edo “oso zailak” iruditzen zaizkien ikasleekin daude lotuta.

Adibide moduan, hurrengo taulak *Ikasten ikasteko konpetentzian* ikasleen emaitzen arteko lotura erakusten du, baita curriculumaren hainbat arlotan duten zailtasun mailari buruzko balorazioa ere:

22. taula: *Ikasten ikasteko konpetentzian* DBHko 2. mailako ikasleen emaitzak ikasleek curriculum arloetan duten zailtasunaren arabera.

Nolako iruditzen zaizu ... arloa?	Euskara		Gaztelania		Natur Zientziak		Gizarte zientziak, geografia eta historia	
	Batez besteko emaitza	Akats tipikoa	Batez besteko emaitza	Akats tipikoa	Batez besteko emaitza	Akats tipikoa	Batez besteko emaitza	Akats tipikoa
Oso erraza	260	2,5	251	1,9	260	2,3	260	2,2
Erraza	264	1,3	256	1,2	259	1,3	258	1,3
Normala	248	0,9	250	1,0	251	1,0	251	1,0
Zaila	244	1,6	242	1,9	242	1,4	245	1,4
Oso zaila	232	2,5	227	4,0	230	2,5	226	2,4

⁹ Galdera-sortan ikasleei ez zitzairen galdetzen Matematika arloko zailtasun edo erraztasun mailaren inguruan.

4.6. DBHko 2. mailako ondorioen laburpena

Jarraian, DBHko 2. mailan, *Ikasten ikasteko kompetentzian*, emaitzen azterketatik abiatuta lortutako ondorioen laburpena ageri da:

- DBHko 2. mailako ikasleen % 81ek *Ikasten ikasteko kompetentziako* hasierako maila gainditu dute. Horien artetik ia % 34 maila aurreratuan dago.
- Geruzen arabera, emaitzarik onenak itunpeko A eta D geruzek lortu dituzte.
- Neskek mutilek baino emaitza hobeak lortu dituzte.
- Adin-egokitasun egoeran dauden ikasleek –adinarekin bat datorren ikasturtean edo irakasmilian daudenak– adin-egokitasun egoeran ez daudenek baino emaitza hobeak lortzen dituzte.
- Proba familia-hizkuntzan egiten duten ikasleak dira emaitza hobeak dituztenak, batez bestekoak baino emaitza altuagoak.
- Zenbat eta ISEK altuagoa, orduan eta *Ikasten ikasteko kompetentziako* emaitza hobeak izango dira. Hala eta guztiz ere, zenbait ikasle taldek esperotakoa baino emaitza hobeak lortu dituzte.
- *Ikasten ikasteko kompetentzian* errendimendu onena lortu duten ikasleek, era berean, ebaluatutako gainerako kompetentzietan eta curriculum arloetan ere emaitza hobeak lortu dituzte aurreko ikasturteko notez galdetzen zaienean.
- Kompetentzia honetan nota onenak lortu dituzten ikasleak etxeko lanetan egunean 1 ordu eta 2 ordu artean igarotzen dituztela diotenak dira.
- % 57 ingururen esanetan, inork ez die laguntzen etxeko lanetan, eta horiek dira kompetentzia honetan emaitzarik onenak lortu dituztenak. Jarraian, amaren edo aitaren laguntza (% 25 eta % 19 artean hurrenez hurren; hala ere, biak izan daitezke) jasotzen dutenek lortu dituzte emaitzarik onenak. Oro har, laguntza hori astean bi ordu baino gutxiagokoa izan ohi da.
- Euskara, Gaztelania, Natur Zientziak eta Gizarte Zientziak arloak “errazak” edo “oso errazak” iruditzen zaizkien ikasleek *Ikasten ikasteko kompetentzian* emaitza hobeak lortzen dituzte.

Hemen adierazten diren ondorio gehienak gainerako kompetentzien azterketan ondorioztatzen direnen antzekoak dira (ikus ED13ren txostena). Hori dela eta, ondoriozta daiteke DBHko 2. mailako ikasleen ezaugarri orokorrak osatzen dituztela.

–

5. ESKU-HARTZE PROPOSAMENAK

5.1. Ikasgelara eramateko proposamena

Sarreran aipatu dugun moduan, dokumentu honek helburu bikoitza du: alde batetik, hezkuntza-komunitateari informazio fidagarriena eta ahalik eta zehaztasun gehienekin eskaintzea Euskadiko Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan *Ikasten ikasteko kompetentziak* duen egoerari buruz, eta bestetik, ikastetxeei eta irakasleei ohiko zeregin profesioaletan kompetentzia horretako ebaluazioa eta lana indartzeko eta inplementatzeko aukera eskainiko dieten proposamen eta gogoeta batzuk eskaintzea.

Ikastetxeek garapen hori bideratzeko eta abiapuntuko zailtasun posibleak konpentsatzen laguntzeko erantzukizuna dute, eta aldi berean, haiek aberastekoa: horri deitu izan zaio eskolako “motxila”. Horrek azaltzen du dagokien ISEKen arabera espero izan daitezkeen emaitzak baino altuagoak lortzea, ziurrenik, ikaskuntza ahalbidetzen duten estrategiak gehiago garatu direlako.

Hiru ideia orokor hauek ikastetxean eta ikasgelan kompetentzia horretan egindako lanari zentzu praktikoa ematen lagun dezakete:

- a) *Ikasten ikastea* **ekintza gisa** ulertu beharreko kompetentzia da. Helburua ez da ezagutza “berriak” eskuratzea, baizik eta eskuratutako ezagutza modu eraginkorrean erabiltzea. **Izaera metakompetentziala** du, hau da, oinarrizko kompetentzia guztiei “eragiten” die, eta funtsean, ezin da ulertu gainerako kompetentziarik gabe. Gainerako kompetentzietako gaitasunak sustatzen ditu eta erabilgarria izan daiteke kompetentzien araberako lan-eredua bultzatzeko garaian irakasle-taldeak partekatutako ikuspegia har dezan laguntzeko. Aldi berean, ikasleen ikaskuntza-estiloari koherentzia eta sendotasuna ematen dio. Nolabait kompetentzia guztietarako "oinarri" integrala, oinarrizkoa eta komuna eskaintzen du, helburuei eta bakoitzaren berezigarriari kalterik egin gabe. Era berean, ezin da zalantzan jarri *Ikasten ikasteko kompetentziak* arlo, espazio eta une guztiak behar dituela garatzeko, ez baita identifikatzen arlo edo irakasgai jakin batean, beste oinarrizko kompetentzia bakoitzean gerta daitezkeen moduan.
- b) Haur Hezkuntzan hasten da lantzen, eta **bizitzan zehar** garatzen da, logikoa den moduan, hezkuntza-etapa formal guztietatik eta hezkuntza ez-formaleko esperientzia pertsonal ugaritatik pasatuta. Hezkuntza formaleko eremuan, **irakaskuntza talde osoaren** eta arlo eta curriculum-ikasgaien ardura da. Etengabeko prozesuan kokatu behar da. Giltzarria da ikaslea apendiz gisa aitortzea, dituen ezaugarriari eta ikaskuntza-esperientziari buruz gogoeta egitea eta **gaitasunak hobetzeko** asmoa izatea. Helburu pertsonala beti da hobetzea, norbere burua gaintitzea eta norbere gaitasunak ahalik eta gehien garatzea.
- c) **Irakasleen rolari buruz gogoeta egitea**, hori baita kompetentzien araberako irakaskuntza bultzatzeko giltzarria. Ez dago irakaskuntza-eredu bakarra, ezta planteamendu metodologiko “magikorik” ere oinarrizko kompetentzietatik lotutako gaitasunen garapenean arrakastarik bermatzeko. Hala ere, badaude asmo horretan erabilgarri izan daitezkeen erabaki batzuk:

Lehenik eta behin, **programazioa** nabarmendu behar da. Hori irakasleei dagokie egitea eta oinarritzko tresna da, gogoeta egin ostean eta horren arabera adostutako erabakiak hartu ostean. Puntu horretan, beharrezkoa da **ebaluazioa** bereziki azpimarratzea. Hezkuntzan, ebaluatzen ez dena ez dela existitzen esan ohi dute. Horrekin lotuta, prozesuan arreta jartzea garrantzitsua den arren, era berean erabakigarria da arlo eta irakasgaiei lotutako ebaluazio-irizpideak eta, kompetentziarekin lotuta, argiak, lorgarriak eta ebaluagarriak diren lorpen-helburuak izatea. Dena den, programazioan *Ikasten ikasteko kompetentziaren* garapenarekin lotuta ebaluazioaren inguruan zehazten den planteamendu orokorraz gain, helburua ebaluazioa zeregin jakin bat ondo egiteko prozesuan, tutoretzan, egoera informalenen jardunean eta abarretan txertatzea da. Hori dela eta, zeregin baten prozesuan eta haren amaieran autoebaluazioko jarduerak eta denborak programatzea komeni da ikasleek honako hauen inguruko gogoeta egin dezaten (banaka eta taldean): zer ikasi duten, nola egin duten, ikaskideek emandako laguntzak zer rol bete duen edo taldearen zeregin horretan zer ekarpen pertsonal egin duten, zailtasun gehiago non aurkitu duten eta abar.

Bestalde, garrantzitsua da edukietan arreta jartzea (zer irakatsi?), eta ez helburu gisa, programatutako helburuak erdiesteko baliabide gisa baizik. Eduki batzuk beste batzuk baino lagungarriagoak dira kompetentzia lantzeko garaian eta, batez ere, prozedura eta jarrera mailakoak. Izan ere, honako hauei lotuta daude: ikaskuntza-estrategiak, zereginen plangintza, ikasketako teknikak eta abar. Baina eduki horiek bezain garrantzitsua edo are garrantzitsuagoa da ikaskuntza-testuinguru partekatuan eta partaidetuan mahaigaineratzea. Ikasleek jabetu egin behar dute zein den erantzun beharreko helburu edo asmo jakin hori, eta eduki horiek aplikatu ahal izateko ingurunea topatu behar dute. Ezaugarri horiek dituen ingurunean, errazagoa da ikaskuntzaren autoerregulazioa ikasleei transferitzea. Eta, horretarako, ezinbestekoa da komunikazioa (ikus aurrerago).

Bigarrenik, **irakaskuntzako eta ikaskuntzako prozesua antolatzeko** modua ere lanerako eremu erabakigarria da oinarritzko alderdi batzuei dagokienez:

- **Denboren eta espazioen** antolaketa mailako egitura **berrikustea**, elkartzeak malgutzea, monotonia haustea (laneko edo elkarrekintzako modu ugari proposatzea: banakako lana, binakakoa, talde txikitik egindakoa edo gela osoko taldean egindakoa) eta ikasgelako, laborategiko, jolastokiko edo ikastetxeaz kanpoko lanerako aukera eta modu berriak aztertzea komeni da.
- Irakasleen koordinaziotik abiatuta, beharrezkoa da **irakaslearen rola berriro aztertzea**. Irakasleari dagokio ikaskuntza sustatzea, esperientzia berriak izateko gogoia motibatzea eta piztea, ereduak eskaintzea... hitz gutxitan esanda, ekintzan orientazioa ematea. Helburua ez da aldaketa aldatze hutsagatik lortzea, eta moda berria ere ez da. Dena den, hezkuntza alorreko esperientziak eta ikerketak erakusten digutenez, estrategia batzuk beste batzuk baino lagungarriagoak dira pentsamendu eta ekintza estrategikoak aktibatzen garaian eta horren adibideak dira honako hauek: lan kooperatiboa, parekoen arteko tutoretza, proiektuen bidez egindako ikaskuntza, ikerketako eta esperimentu bidezko metodologiaren bultzada,

testuinguruan sartutako eta arazoak konpontzera bideratutako zeregin ireki eta malguen planteamendua, aurretik eskuratutako ezagutzak aktibatzen dituztenak eta errealitatetik eta ikasleen interesetatik gertu daudenak, ikasle guztien arrakasta ahalbidetu ahal izateko (erritmo ezberdinak eta gaitasunen garapen maila ezberdina) eta ikasle gisa betetzen duten lanari zentzua emateko. Horrek, ordea, ez du esan nahi "gure artean funtzionatzen duten" irakaskuntzako eta ikaskuntzako ereduak baztertu behar ditugunik nahiz eta "klasikotzat" jotakoak izan.

Horrekin lotuta, irakaslearen rola zeregin hauek bete beharko lituzke: irakaskuntza-jardueraren plangintza, erregulazioa eta ebaluazioa egitea; estrategien irakaskuntza txertatzea programazioen baitan; irakasten denaren eta irakasten den moduaren arteko lotura esplizituak finkatzea; ikasleei laguntzea ikasten ari den bitartean hartzen dituen erabakien eta prozesuen inguruko gogoeta egiten eta estrategien erabilera ebaluatzen. *Ikasten ikasteko kompetentzia* lantzea irakasle guztien eskueran dago.

- **Komunikazioa** ezinbestekoa da. Alde batetik, irakasleak bere buruari galdetu behar dio zerk motibatzen dituen ikasleak, zein diren haien interesak, zer dakiten eta ikasitakoa nola erabiltzen duten. Erabakiek ezin dute ikasleengandik urrun egon eta ezin dute aniztasuna albo batera utzi. Horrekin lotuta, garrantzitsua da komunikazioa: bertikala (irakaslearen eta ikaslearen artekoa, noranzko bikoitzean) eta horizontala (parekoen artekoa). Horrek irakaskuntzako-ikaskuntzako prozesuetan txertatuta dagoen ohiko jarduera izan behar du. Garrantzitsua da ikasleak ahoz argi eta garbi adieraztea (batzuetan idatziz eta, ahal den neurrian, ahoz) jarduera bat egiten ari den bitartean zer egiten ari den eta nola egiten ari den, jarduera amaitutakoan zer ikasi duen, zer zailtasun izan duen eta abar. Programazio atalean zehaztu dugun moduan, irakasleak irakasgai edo arlo bakoitzeko gogoetako jarduera espezifikoa antolatu beharko lituzke nahiko maiz honako helburu hauekin: 1: "zer eta nola egiten dut" gaiaren inguruko ezagutza sortzea; eta 2: "zertarako egiten dut eta zer ikasten dut, zer eskaintzen dit, zerk laguntzen dit, zerk zailtzen dit..." gaien inguruko kontzientzia sortzea. **Berbalizazioko** estrategia hori nahiko printzipio soilean oinarrituta dago: zerbait nola egin duen, zer urrats eman duen, noiz eta egiten ari zena zergatik zuzendu edo aldatu duen eta abar nolabaiteko argitasun eta zuzentasunez azaltzeko gai denak egiten badakiela edo, gutxienez, zeregin hori betetzeko garaian zuen kompetentzia maila hobetu duela esan nahi du. Berbalizazioa ahozkoa eta idatzizkoa izan daiteke eta, goian aipatu dugun moduan, jendaurrean, talde txikitan edo bi ikaskideren artean adieraz dezake (taulen moduko tresnek jarduera hori modu arinean egiten laguntzen dute). Ikaskuntzako eta hausnarketako prozesu osoan, irakaslea izaten dute ikasleek lagun eta, horren bidez, ikasleak gero eta modu autonomoagoan jardun dezake pixkanaka. Irakasleak egiten du "kanpoko kontrola" dei diezaiokeguna. Bien bitartean, estimulu horren bidez, ikasleak "barne-kontrolako" mekanismoak aktibatzen ditu.

Era berean, **modu estrategikoan pentsatzen irakastea** ere posible da: ikasle estrategiko batek, jarduerari ekin aurretik, egiteko garaian eta amaitu

ondoren, erabakiak hartzen ditu; hori dela eta, plangintza egiten, bere gaitasunen arabera helburuak zehazten, ikaskideekin negoziatzen, erabakiak hartzen, baliabideak hautatzen, bere lana ebaluatzen eta abar ikasi behar du eta hori egiten irakatsi behar zaio. Horregatik, ezinbestekoa da ikasleak gogoeta egin, eta ikaskuntzako esperientziak baloratu eta azaldu ahal izateko jardura eta une espezifikoak antolatzea. Adin berekoak edo txikiagoak diren ikaskideak tutorizatzea, esate baterako, ikaskuntzak kontzienteago egiteko estrategia egokia izan daiteke. Horrez gain, irakasleak ikaslearen aurrerapenaren inguruko informazio baliotsua jaso ahal izateko une eta tresna egokiak izaten dira. Ikasle estrategikoaren garapena pentsamendu kritikoaren garapenarekin batera uztartu behar da.

- Irakasleak prozesua dokumentatu behar du. Alde batetik, garrantzitsua da ikasle bakoitzaren banakako jardunari buruzko **informazioa** etengabe **jasotzea** prestakuntza-ebaluaziorako oinarrizko informazio-elementua baita. Bestalde, garrantzitsua da bere irakaskuntzako jardueraren garapenaren inguruko gogoeta egitea eta hura dokumentatzea (atal honen amaieran azaltzen den taula irakaskuntzako lanari eta *Ikasten ikasteko kompetentzia* indartzeari buruzko galdetegi orokorra baino ez da). Irakasleak ikasleen ikaskuntza-prozesu osoa dokumentatu behar dute. Behaketa garrantzitsua da eta, horrenbestez, baita behatutakoa erregistratzea ere. Horri buruzko ideia batzuk ikusiko ditugu jarraian:
 - Etengabeko behaketa erabiltzea. Arreta handia jartzea honako hauetan: ikasleak zer egiten duen, zer erabiltzen duen, zer ezagutzen duen, zer identifikatzen duen eta nola egiten duen.
 - Kompetentzia ebaluatzen lagungarriak diren tresna eta teknikak erabiltzea: errubrika¹⁰, dokumentu-zorroak edo *portfolioak*, ikaskuntzako egunerokoak, ikaskuntza-kontratuak eta abar. Baliabide horiek ezartzeak, gainera, ikaslearen hausnarketa errazten du, ikaskuntzaren inguruko kontzientzia hartzen laguntzen dieten metodologiak baitira. Osagarri diren estrategia, teknika eta baliabideek zentzua ematen diete ikasgelako errutinei.

Azken finean, irakasleek ere oinarrizko kompetentziak garatzen dituzte aldi berean eta, kasu honetan, haien hobekuntza profesionalarekin lotuta daude. Irakaskuntzako jardunaren autoebaluazioa (zerk funtzionatu du, helburuak garatutako zereginaren arabera ziren, ikasle guztiek hobetu dituzte gaitasunak, eta abar?) oso elementu garrantzitsua da eta irakasleari eragingarriagoa izaten, talde-lana sendotzen eta abar laguntzen dio. Beste nolabait esanda, *irakasten ikasten* jarraitzen laguntzen dio, sekula ez baitiugu ikastun izateari uzten.

Elena Martínen arabera, *Ikasten ikasteko kompetentziaren* inguruan hainbat artikulua eta liburu argitaratu duena, kompetentzia hori lantzeak **arlotzaren** (lan-estrategiak, gaitasun

¹⁰ Errubrika deitzen zaio ebaluazioaren adierazleen taula mailakatuari.



metakognitiboak...) eta **arlotz emozionala** (autoestimua, akatsa onartzea, ahalegina, borondatea...) lantzea eragin ohi du. Gainera, *Ikasten ikasteko kompetentziaren* zentzua behar bezala laburbildu du oinarritzko printzipio batzuetan:

1. Ikasleek zein irakasleek ikaskuntzaren inguruan dituzten ikuskerak arakatzeko laguntzea.
2. Ikasleek ikaskuntza-prozesuak erregulatzen erakustea (eskolako zeregin baten aurrean haien portaera planifikatzea, gainbegiratzea eta ebaluatzea).
3. Ikasleei arrakasten edo porrotaren inguruko esleipen egokiak egiten laguntzea.
4. Idazketa epistemikoa erabiltzea: hizkuntza pentsamenduaren oinarri-funtzio gisa eta, zehatzago, idatzizko hizkuntza. Pentsatzen ari garena hitzez adieraztean, ideiak antolatzen dira, haien inguruko kontzientzia hartzen dugulako. Ikasitakoaren kontaketa tresna garrantzitsua da.
5. Elkarlana bultzatzea, horixe baita *Ikasten ikastearen* oinarrietako bat. Beste batzuekin lan egiteak norberaren prozesu kognitibo eta emozionalen kontzientzia hartzen laguntzen du.
6. Prestakuntza-ebaluazioko printzipioen araberrako ebaluazioa egitea. Prozesuaren bidez, ikasleak bere ikaskuntza erregulatzeko gai izan beharko luke. Elkarren arteko ebaluazioa eta autoebaluazioa erraztea.

Eranskin gisa, ikasgelan egiteko hezkuntza arloko jardunbideak biltzen dituen autoebaluazio-fitxa atxiki dugu *Ikasten ikasteko kompetentzia* bultzatzeko baliagarriak izan daitezten.

5.2. Marko teorikotik ateratako kompetentzien dimentsioak

Jarraian, *Ikasten ikasteko kompetentziaren* marko teorikoko egituraren laburpen-eskemak ageri dira¹¹. Eskema horietan (irakasmaila bakoitzeko bat), bi dimentsioak eta zazpi azpikonpetentziak gehitu ditugu. Gainera, adierazleak berriro interpretatu ditugu, funtzionalenak direnak nabarmenduta, kompetentzia kontuan izango duen programazioa prestatu ahal izateko:

LEHEN HEZKUNTZAKO 4. maila

1. dimentsioa: Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia.

1. Gaitasun eta muga intelektualak ezagutzea.

- a) Jabetzen da bere arreta eta kontzentrazio mailaz.
- b) Jabetzen da bere memoria nolakoa den.
- c) Ezagutzen du bere ulermen eta hizkuntza-adierazpen maila.
- d) Bere lanean badaki zer hausnarketa kritiko eta sormen maila duen.
- e) Jabetzen da egiten duen ahaleginaren eta lortzen duen emaitzaren arteko lotura zein den.

2. Gaitasun afektibo-emozionalak antzematea.

- a) Jabetzen da jarrera positiboek ikasten laguntzen diotela: motibazioa, ikasteko gogoia, hobetzeko interesa, pertseberantzia, arrakastako aurreikuspenak...
- b) Bere buruarenganako konfiantza garatzen du.
- c) Jabetzen da talde-lana errazten duten gaitasunez (lidergoa, enpatia, elkarlanerako ahalegina, trukea, eta abar), eta ezagutzen du taldean lan egiteko duen gaitasuna.

3. Gaitasun fisikoak eta mugimendu-trebetasunak identifikatzea.

- a) Jabetzen da eskolako lanetan gaitasun fisiko eta sensorial batzuek garrantzia dutela: erresistentzia fisikoa adimen-lanaren aurrean, ikusmena, entzumena, oreka eta abar...
- b) Ezagutzen ditu bere abilezia motorrak eta zailtasunak konpentsatzeko moduak.

4. Ikaskuntza estimulaten duten inguruneko baldintzak identifikatzea.

- a) Ezagutzen ditu ikaskuntza errazten duten inguruneko faktoreak (zaratarik eza, argiztapen ona, harreman ona taldearekin...) eta badaki oztopoak nola gainditu.
- b) Ezagutzen ditu ikaskuntza errazten duten elementu materialak (altzari egokiak, garbitasuna, txukuntasuna...) eta badaki oztopoak nola gainditu.
- c) Jabetzen da inguruneko aurreikuspenek (familia, ikastetxea, lagunak...) ikaskuntza bultzatzen dutela.

¹¹ Testuinguru teorikoa hemen kontsulta daiteke bere osotasunean:

[http://ediagnostikoak.net/edweb/eus/Informazio-materialak/ED marko teorikoak/Ikasten ikasteko kompetentzia.pdf](http://ediagnostikoak.net/edweb/eus/Informazio-materialak/ED_marko_teorikoak/Ikasten_ikasteko_kompetentzia.pdf)

5. Ikaskuntza laguntzen duten estrategien garapen pertsonalaren maila ezagutzea.

- a) Jabetzen da zeregin bakoitzerako ikasketa-teknika egokiak zein diren.
- b) Ezagutzen du informazio-iturriak erabiltzeko abilezia maila (informaziora sartzea, antolatzea, hautatzea eta jakinaraztea).
- c) Ulertzen du denbora eta zereginen faseak antolatzearen garrantzia.
- d) Jabetzen da eskolako agenda erabiltzeak duen baliagarritasunaz.
- e) Ezagutzen du lan kooperatiboak iraskaskuntza-ikaskuntzako estrategia gisa duen garrantzia.
- f) Jabetzen da zereginei ekin aurretik duen abilezia mailaz.
- g) Badaki zeregin bakoitzean bete beharreko arauak identifikatzen dituen.

2. dimentsioa: Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda.**6. Zereginaren hasierako plangintza egitea (helburuak eta zailtasun- eta berritasun-maila ezagutzea), erabakiak hartzea eta gauzatzea.**

- a) Zehazten du zereginaren helburua.
- b) Proposatutako helbururako egokiak diren jarduerak erabakitzen ditu.
- c) Faseak denboraren arabera antolatzen ditu: epe laburrean, ertainean eta luzean.
- d) Prozedura eta baliabideak identifikatzen eta aukeratzen ditu.
- e) Zereginak zorroztasunez, txukun, zehaztasunez eta sormenez egiten ditu.
- f) Zereginak zailtasun edo berrikuntza mailaren arabera bereizten eta sailkatzen ditu.

7. Prozesuan zehar zeregina arautzea eta gainbegiratzea, eta ikasitakoa ezagutzea eta adieraztea.

- a) Irakurtzen duen bitartean, testuen ulermen-prozesua erregulatzen du (metaulermena).
- b) Eraitza partzialak eta zailtasunak egiaztatzen ditu, eta prozesu osoan erroreak kudeatzen ditu.
- c) Irtenbide alternatibo eta sortzaileak eman, eta hasierako erabakiak egokitzen ditu.
- d) Eskuratutako lorpenak eta nola ikasi duen onartzen du.
- e) Hobetu beharreko alderdiak zein diren identifikatu eta erronka berriak proposatzen dizkio bere buruari.
- f) Ikasitakoa aplikatu ahal izateko egoera berriak identifikatzen ditu.

Aurreko dimentsio eta azpidimentsioetatik abiatuta, Lehen Hezkuntzako 4. mailan *Ikasten ikasteko kompetentzia* ebaluatzeko zein antolatzeko gidari izan daitezkeen adierazleak eskainiko ditugu jarraian.

1. dimentsioa: Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia.	
1. azpikonpetentzia: Gaitasun eta muga intelektualak ezagutzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Badaki zer mailatan jar dezakeen etengabeko arreta jarraibideen, mezuen eta informazioen aurrean, eta distrakzioak ekiditen ditu. • Badaki nolakoa den bere memoria, gogoratzeko zer estrategia duen eta noiz erabili behar dituen. • Ezagutzen du bere ulermen eta hizkuntza-adierazpen maila, eta badaki noiz eskatu behar duen laguntza testua edo zati bat ulertzen ez duelako. • Ezagutzen du testuak aztertzeko eta bere ideiak emateko duen gaitasuna. • Jabetzen da egiten duen ahaleginaren eta lortzen duen emaitzaren arteko lotura zein den.
2. azpikonpetentzia: Gaitasun afektibo-emozionalak antzematea.	<ul style="list-style-type: none"> • Eskolako zereginak egiteko motibazioa du; erronka berriak gustatzen zaizkio eta gai eta jarduera ugaritan inplikatzeko da. • Zereginei konfiantzaz egiten die aurre, eta pazientzia, diziplina eta erantzukizuna erakusten ditu lanak egiteko garaian. • Talde-lanarekiko edo binakako lanarekiko (ikaskide guztiekin) jarrera aktiboa eta elkarlanerako jarrera ditu eta laguntza behar duenari babesa ematen dio.
3. azpikonpetentzia: Gaitasun fisikoak eta mugimendutretetasunak identifikatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Badaki zein den bere erresistentzia-gaitasuna, badaki ahalegina dosifikatzen eta jabetzen da nekeak nola eragiten dion. • Badaki abilezia fisikoak eta sortzaileak aprobetxatzen hainbat zeregin egiteko garaian.
4. azpikonpetentzia: Ikaskuntza estimulatzen duten ingurune baldintzak identifikatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Ezagutzen ditu lanean laguntzen dioten ingurune faktore eta ezaugarri batzuk: zaratarik ez izatea, argiztapen egokia, taldearekin harreman onak izatea, txukuntasuna eta garbitasuna, esertzeko jarrera egokia eta abar. • Ezagutzen ditu modu positiboan estimulatzen duten eta hobetzen laguntzen dioten ingurune pertsonak: familia, irakasleak, lagunak eta abar.
5. azpikonpetentzia: Ikaskuntza laguntzen duten estrategien garapen pertsonalaren maila ezagutzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Ezagutzen ditu une bakoitzean egokiak diren ikasketa-teknikak eta autonomiaz aplikatzen ditu, edo badaki noiz eta nori eskatu behar dion laguntza. Badaki zein den bere abilezia maila. • Ezagutzen du eskolako lana antolatu ahal izateko informazio-iturrien, IKTen eta beste baliabide batzuen (eskolako agenda, adibidez) erabilerarekin lotuta duen abilezia maila. • Elkarlanaren eta ikaskuntza ikaskideekin berdintasunean partekatzearen abantailak aintzat hartzen ditu. • Ulertzen du argibideei jarraitzeak, arauak aplikatzeak, lanen plangintza egiteak eta horiek ordenan egiteak duen garrantzia.

2. dimentsioa. Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda.

<p>6. azpikonpetentzia: Zereginaren hasierako plangintza egitea (helburuak eta zailtasun- eta berritasun-maila ezagutzea), erabakiak hartzea eta gauzatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zereginaren helburua ezagutzen du, zailtasun maila aurreratzen du eta eskura dezakeen lorpena aurrez ikusten du. • Zeregina (banaka edo taldean) bere aukeren arabera planifikatzen du, denborak edo faseak antolatuta. • Proposatutako helbururako egokiak diren jarduerak erabakitzen ditu. • Beharrezko prozedura eta baliabideak hautatzen ditu. • Zeregin baten fase ugariak betetzeko modu eragingarrian antolatzen du bere burua. • Zereginak zorroztasunez, txukun, zehaztasunez eta sormenez egiten ditu.
<p>7. azpikonpetentzia: Prozesuan zehar zeregina arautzea eta gainbegiratzea, eta ikasitakoa ezagutzea eta adieraztea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Modu ulerkorrean irakurtzen du, ideia nagusiak identifikatzen ditu, kontraesanak detektatzen ditu eta lotura duen informazioa hautatzen du jardueretan erabili eta/edo horren berri emateko. • Kontrol-uneen plangintza egiten du, emaitza partzialak egiaztatzen ditu, akatsak detektatu eta zailtasunak konpontzeko arreta jartzen du eta detektatutako akatsak konpontzen ditu. • Irtenbide sortzaileak eskaintzen ditu modu autonomoan zailtasunak agertzen direnean. • Ikasitakoa deskribatu eta zeregin bat nola konpondu duen edo hori eragotzi/zaildu dioten oztopoak (kausak) zein diren azaltzeko gai da. • Badaki zein diren hobetu beharreko alderdiak eta hori lortzeko baliabide edo bitarteko batzuk identifikatzen ditu. • Ikasitakoa aplikatu ahal izateko bizitza pertsonaleko edo eskolako bizitzako beste testuinguru batzuk ezagutzen ditu. • Ikasketarekin eta bere gaitasunekin lotutako helburu edo erronka berriak jartzen dizkio bere buruari.

DBHko 2. mailarako laburpen-eskema:

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA

1. dimentsioa: Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia.

1. Gaitasun eta muga intelektualak ezagutzea.

- b) Ezagutzen du bere arreta eta kontzentrazio maila, hautematekoa eta behatzekoa, eta oro har, baita bere ahalegin intelektualaren gaitasuna ere.
- c) Badaki nolakoa den bere memoria eta ikasteko horrek duen garrantzia.
- d) Ezagutzen du bere ulermen eta hizkuntza-adierazpen maila.
- e) Bere lanean badaki zer hausnarketa kritiko eta sormen maila duen.
- f) Jabetzen da egiten duen ahaleginaren eta lortzen duen emaitzaren arteko lotura zein den.
- g) Arazoak aztertzeko, erabakiak hartzeko, zeregin baten plangintza egiteko eta abarretarako arrazonamendu logikoa erabiltzeko duen gaitasuna ezagutzen du.

2. Gaitasun afektibo-emozionalak antzematea.

- a) Jabetzen da jarrera positiboek ikasten laguntzen diotela: motibazioa, ikasteko gogoia, hobetzeko interesa, pertseberantzia, arrakastako aurreikuspenak, emozioen kontrola...
- b) Bere buruarenganako konfiantza garatzen du.
- c) Jabetzen da talde-lana errazten duten gaitasunez (lidergoa, enpatia, elkarlanerako ahalegina, trukea, eta abar), eta ezagutzen du taldean lan egiteko duen gaitasuna.

3. Gaitasun fisikoak eta mugimendu-trebetasunak identifikatzea.

- a) Jabetzen da eskolako lanetan gaitasun fisiko eta sensorial batzuek garrantzia dutela: erresistentzia fisikoa adimen-lanaren aurrean, ikusmena, entzumena, oreka eta abar...
- b) Ezagutzen ditu bere abilezia motorrak eta zailtasunak konpentsatzeko moduak.

4. Ikaskuntza estimulatzeko duten inguruneko baldintzak identifikatzea.

- a) Ezagutzen ditu ikaskuntza errazten duten inguruneko faktoreak (zaratarik eza, argiztapen ona, harreman ona taldearekin...) eta badaki oztopoak nola gainditu.
- b) Ezagutzen ditu ikaskuntza errazten duten elementu materialak (altzari egokiak, garbitasuna, txukuntasuna...) eta badaki oztopoak nola gainditu.
- c) Jabetzen da inguruneko aurreikuspenek (familia, ikastetxea, lagunak...) ikaskuntza bultzatzen dutela.

5. Ikaskuntza laguntzen duten estrategien garapen pertsonalaren mailaren ezagutzea.

- a) Jabetzen da zeregin bakoitzerako ikasketa-teknika egokiak zein diren.
- b) Ezagutzen du informazio-iturriak erabiltzeko abilezia maila (informaziora sartzea, antolatzea, hautatzea eta jakinaraztea).
- c) Ulertzen du denbora eta zereginen faseak antolatzearen garrantzia.
- d) Jabetzen da eskolako agenda erabiltzeak duen baliagarritasunaz.
- e) Ezagutzen du oharrak hartzeko garaian duen abilezia.
- f) Ezagutzen du lan kooperatiboak iraskaskuntza-ikaskuntzako estrategia gisa duen garrantzia.
- g) Jabetzen da zereginei ekin aurretik duen abilezia mailaz.
- h) Badaki zeregin bakoitzean bete beharreko arauak identifikatzen dituen.

2. dimentsioa: Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda.

6. Zereginaren hasierako plangintza egitea (helburuak, zailtasun- eta berritasun-maila ezagutzea), erabakiak hartzea eta gauzatzea.

- a) Zehazten du zereginaren helburua.
- b) Proposatutako helbururako egokiak diren jarduerak erabakitzen ditu.
- c) Faseak denboraren arabera antolatzen ditu: epe laburrean, ertainean eta luzean.
- d) Prozedura eta baliabideak identifikatzen eta aukeratzen ditu.
- e) Zereginak zorrotasunez, txukun, zehaztasunez eta sormenez egiten ditu.
- f) Zereginak zailtasun edo berrikuntza mailaren arabera bereizten eta sailkatzen ditu.

7. Prozesuan zehar zeregina arautzea eta gainbegiratzea, eta ikasitakoa ezagutzea eta adieraztea.

- a) Irakurtzen duen bitartean, testuen ulermen-prozesua erregulatzen du (metaulermena).
- b) Emaitza partzialak eta zailtasunak egiaztatzen ditu, eta prozesu osoan erroreak kudeatzen ditu.
- c) Irtenbide alternatibo eta sortzaileak eman, eta hasierako erabakiak egokitzen ditu.
- d) Eskuratutako lorpenak eta nola ikasi duen onartzen du.
- e) Hobetu beharreko alderdiak zein diren identifikatu eta erronka berriak proposatzen dizkio bere buruari.
- f) Ikasitakoa aplikatu ahal izateko egoera berriak identifikatzen ditu.

Aurreko dimentsio eta azpidimentsioetatik abiatuta, DBHko 2. mailan *Ikasten ikasteko kompetentzia* ebaluatzeko eta antolatzeko gidari izan daitezkeen adierazleak eskainiko ditugu jarraian.

1. dimentsioa: Ikaskuntzarako gaitasunen eta ezagutzen kontzientzia.	
1. azpikonpetentzia: Gaitasun eta muga intelektualak ezagutzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Badaki zein diren bere adimen-gaitasunak eta zer egoeratan topatzen dituen zailtasun edo mugak. • Badaki zein den bere gaitasun memoristikoa eta gogoratzen laguntzen dioten teknika eta estrategiak identifikatzen ditu. • Ezagutzen du bere hizkuntza mailako ulermen eta adierazpen maila (idatzizkoa zein ahozkoa) eta badaki komunikazioen plangintza egin behar duela eta garrantzitsua dela beste pertsona batzuei entzutea. • Egindakoaren inguruko gogoeta kritikoa egiteko duen gaitasuna ezagutzen du. • Arazoak aztertzeko, erabakiak hartzeko, zeregin baten plangintza egiteko eta abarretarako arrazonomendu logikoa erabiltzeko duen gaitasuna ezagutzen du. • Jabetzen da egiten duen ahaleginaren eta lortzen duen emaitzaren arteko lotura zein den.
2. azpikonpetentzia: Gaitasun afektibo-emozionalak antzematea.	<ul style="list-style-type: none"> • Ikaskuntzarekin lotuta, jarrera positiboa izateko interesa du; badaki ikaskideentzat eta beretzat garrantzitsuak direla honako hauek: interesa, jarrera positiboak eta laneko giro ona. • Zereginak betetzeko garaian, konfiantza eta segurtasuna erakusten ditu. • Bere eta gainerakoen emozioak identifikatu, kontrolatu eta eragingarritasunez bideratzen ditu ikaskuntza-jarduerak garatzera. • Ekarpinak egiten ditu taldean eta ikaskideen lana eta proposamenak baloratzen ditu.
3. azpikonpetentzia: Gaitasun fisikoak eta mugimendu-trebetasunak identifikatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Ulertzen du zer eragin duten gaitasun fisiko eta sentsorial batzuek eskolako edo adimenarekin lotutako zereginetan (erresistentzia fisikoa, ikusmena, entzumena, mugigarritasuna eta abar). • Bere jarduera dituen gaitasun fisiko eta sentsorialen arabera egokitu eta jarrera positiboa izaten du gai horrekin lotutako mugaren bat duten ikaskideen aurrean. • Badaki eragin negatiboa dutela beregan nekeak eta beste faktore batzuek (behar adina lo ez egiteak, behar bezala ez elikatzeak...).
4. azpikonpetentzia: Ikaskuntza estimulatzen duten ingurune baldintzak identifikatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Ezagutzen ditu lanean laguntzen dioten ingurune faktore eta ezaugarri batzuk: zaratarik ez izatea, argiztapen egokia, taldearekin harreman onak izatea eta abar. • Garbitasunak eta txukuntasunak, mahaian edo ordenagailu aurrean esertzeko garaian jarrera egokia izatearen, altzarien kokapen egokiaren eta abarren garrantzia baloratzen du eskolako lanean duen eragina dela eta. • Badaki ingurune zer pertsonak eskaintzen dion bultzada positiboa eta nork laguntzen dion hobetzen (familiak, irakasleek, lagunek eta abar) laguntza edo interesa adierazita, edo laguntza-eskaerak eta abarrak eginda.
5. azpikonpetentzia: Ikaskuntza laguntzen duten estrategien garapen pertsonalaren maila ezagutzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Ezagutzen du ikasketa-teknikak eta zereginak betetzeko prozedura eta estrategiak erabiltzeko garaian duen ezagutza eta abilezia maila. • Ezagutzen du teknikak erabiltzeko garaian duen autonomia maila eta badaki zereginen bat eragingarritasunez burutu ahal izateko noiz eta nori eskatu behar dion laguntza. • Ezagutzen du informazio-iturriak erabiltzeko garaian duen abilezia: lokalizazioa, tratamendua, biltegiatzea, aukeraketa, birprestaketa eta abar. • Ezagutzen du oharrak hartzeko garaian duen abilezia. • Ulertzen du zereginen faseak eta denbora antolatzeak eta bere lanak antolatzeko garaian eskolako agendak eta beste tresna batzuek zer garrantzi duten. • Talde-laneko zereginen ardura hartzen du eta ulertzen du taldearen funtzionamendua, jardueraren faseak, lidergoa eta abar antolatzeak zer garrantzi duen. • Ezagutzen ditu inguruko baliabideak eta autonomiaz erabiltzen ditu. • Badaki noiz menderatzen duen teknika edo prozedura bat, praktika gehiago edo laguntza eskatu behar duen edo zergatik ez duen behar bezala funtzionatzen.

2. dimentsioa: Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda.

<p>6. azpikonpetentzia: Zereginaren hasierako plangintza egitea (helburuak eta zailtasun- eta berritasun-maila ezagutzea), erabakiak hartzea eta gauzatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zeregin baten helburua identifikatu eta haren lorpen maila ugariak bereizten ditu. • Zeregin baten plangintza egin edo horretan parte hartzen du garrantzitsuena dena eta bigarren mailakoa dena bereizita; zenbat denbora beharko duen aurrez ikusteko gai da eta bete ditzakeen zereginak hartzen ditu bere gain talde-lanean. • Helburua lortzeko jarduera egokiak identifikatzen ditu. • Helbururako egokienak diren baliabide eta prozedurak hautatu eta arrakastaz aprobetxatzen ditu. • Zereginak zailtasun mailen arabera sailkatzen ditu. • Zereginak ordena egokian, zorrotasunez, zehaztasunez eta sormenez egiten ditu.
<p>7. azpikonpetentzia: Prozesuan zehar zeregina arautzea eta gainbegiratzea, eta ikasitakoa ezagutzea eta adieraztea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Segurtasunez aplikatzen ditu tipologia eta zailtasun ezberdineko testuak ulertzen laguntzeko teknikak; ideia nagusiak identifikatzen ditu; kontraesanak detektatzen ditu eta lotura duen informazioa hautatzen du gero ariketetan erabili eta/edo horren berri emateko. • Helburuaren garapena eta lorpena aztertzen ditu zeregina egiteko prozesuan, eta zailtasunak konpontzeko erabaki sortzaileak hartzen ditu. • Beste egoera batzuetatik jasotako esperientziak aplikatzen ditu zeregin zail bat betetzeko garaian sortu zaizkion arazoak konpontzeko, eta ikasitakoa aplikatu ahal izateko egoera berriak ezagutzen ditu. • Ikasitakoa azaltzen du, erabilitako prozesua eta gainditu dituen zailtasunak kontatuta. Ezagutzen ditu egindako akatsak eta gainditu ez dituen oztopoak.



ERANSKINAK



1. eranskina. Hezkuntza arloko jardunbideei buruzko irakasleentzako autoebaluazio-taula

Hezkuntza arloko jardunbideak	Normalean	Tarteka	Gutxitan edo inoiz ez
1. Gure ikastetxean, programazioa egiteko garaian kontuan izaten ditudan eta <i>Ikasten ikastea kompetenziarekin</i> lotura zuzena duten ebaluazio-irizpide adostuak ditugu.			
2. Maila edo ziklo bereko irakasleekin egindako koordinazioan, elkarrekin programazioa egitean, kontuan izaten ditugu <i>Ikasten ikastearekin</i> lotutako alderdiak (adibidez: ikasitakoari eta jarraitutako prozesuari buruzko gogoeta, lan egiteko moduak, estrategiak).			
3. Banaka, talde txikitik edo talde handian lan egiteko zereginak programatu eta argibide argiak ematen ditut.			
4. Ikasleen alderdi emozionalak (motibazioa, autokontzeptua...) kontuan izaten ditut irakaskuntza-ikaskuntza prozesu osoan ikaskuntza bultzatzeko.			
5. Ikasgelako zereginak ikasleen aukeren eta aniztasunaren arabera egokitzen ditut.			
6. Metodologia zereginaren helburuaren arabera egokitu eta ikasleekin partekatzen ditut hori aukeratzeko arrazoiak.			
7. Ikasgela jardueraren helburuaren arabera egokitzen dut.			
8. Ikasgela eta baliabideak modu balioanitzean erabiltzen ditut.			
9. Lan-taldeak sortzeko garaian, kontuan izaten ditut zeregina egiteko garaian haiek orekatzen lagungarriak izan daitezkeen irizpideak (trebeziak, sexua, interesak...).			
10. Ikasleekin partekatzen ditut lanaren plangintza egiteko jarraitutako urratsak.			
11. Ikasgelan jarduerak aurkezten ditudanean, zereginei aurre egiteko moduari dagokionez eredugarri izaten saiatzen naiz.			
12. Zeregina testuinguru ezberdinetan garatzeko aukera ematen dut.			

13. Ikasleei oinarrizkoa ateratzen, laburtzen eta eskematizatzen laguntzen dieten tresnak erabiltzen ditut.			
14. Hausnarketarako giro egokia bultzatzen dut.			
15. Programazioan denborak gordetzen ditut gehien gustatu zaiguna, ahalegin gehien eskatu diguna, estrategien aniztasuna eta abar partekatzeko.			
16. Ikasleen artean lan- eta ikaskuntza-prozesuei buruzko autogogoeta eta elkarren arteko hausnarketa bultzatzen ditut horretarako jarduera zehatzen bidez (zer ikasi duten, prozesua nolakoa izan den...).			
17. Ahozko teknika ugari bultzatzen dut gogoeta egiteko eta ikasitako edukiak jakinarazteko.			
18. Ikasleen ariketetako akatsak autogogoetarako eta hobekuntzarako aukera direla uste dut eta akatsak topatzen laguntzen diet.			
19. Autoebaluazioa bultzatzen dut.			
20. Elkarren arteko ebaluazioa bultzatzen dut.			
21. Ikasleekin batera egiten dut ebaluazioa errubrikak prestatuta ¹² .			
22. Egiten ditudan ebaluazioek prestakuntza-izaera dutela (eta ez kalifikatzaile hutsa) uste dut.			
23. Ebaluazioa egiteko garaian, kontuan izaten ditut adimen zein emozio mailako aurrerapenak (motibazioa, asebetetzea, segurtasuna, ekimena, frustrazio-gaitasuna...).			
24. Ebaluazioa egiteko garaian, kontuan izaten ditut ezagutzen maila eta ikasleek ikastun gisa duten kontzientzia, haien gaitasunak eta ahuleziak eta abar.			
25. Agendaren erabilera bultzatzen dut. Ezinbestekoa dela iruditzen zait.			

¹² Errubrikak ikaskuntzak eta egindako produktuak baloratzen dituzten gida zehatzak dira. Alor jakin batean ikasleen lanaren mailak banakatzen dituzten taulak dira, errendimenduari buruzko irizpide espezifikoekin. Curriculum-helburuen lorpena eta irakasleen aurreikuspenak adierazten dituzte. Ikasleei edukien garrantzia eta ezarritako lan akademikoen helburuak argi identifikatzeko aukera ematen die. Hezkuntza-egoera berri honetan, errubrikek eta balorazio-matrizeek beste aukera bat eskaintzen dute ikaslearen ikaskuntza maila baloratzen duten (zenbakietan edo letretan adierazita) ohiko kalifikazioekin lotuta.

2. eranskina. Lehen Hezkuntzako 4. mailan errendimendu mailen garapena ebaluatutako itemetatik abiatuta

Dimentsio bakoitzean adierazitako gaitasunak hasierako mailan, erdi-mailan edo maila aurreratuan kokatzeak neurtzeko erabili den itemaren zailtasun handiagoa edo txikiagoa adierazten du.

HASIERAKO MAILA

1. dimentsioa: Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia:

- Eskolako lanetarako erabilgarriak izan daitezkeen eskola-agendaren erabilerak identifikatzen ditu.
- Badaki jarduera jakin batzuetarako gertaera puntualak (asmakizunak, poemak...) eta zenbait eduki sinple buruz ikasteko gai dela.
- Ikasgelako eremu eta baliabideen erabilera identifikatzen du.
- Badaki eskolako jarduerak banaka edo taldean egitea komeni diren.
- Bereizten du ikasgelan egon daitezkeen baliabideek ikasteko izan dezaketen garrantzia desberdina.
- Oinarrizko prozedurak erabiltzen ditu, ezagutzen baititu; baita jarduera baterako eskuragarri dituen baliabideak ere.
- Informazioa sailkatzeko oinarrizko tresnak erabiltzen ditu.

2. dimentsioa: Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea:

Oharra: hasierako mailako item bakar bat ere ez zegoen dimentsio honi atxikita.

ERDI-MAILA

1. dimentsioa: Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia:

- Taldean ikasteak dakartzan abantailak ezagutzen ditu.
- Ezagutzen dituen eta etxeko lanak denborarik galdu gabe egiten eta antolatzen laguntzen dien zenbait estrategia zerrendatzen ditu.
- Badaki gogoak eta ahaleginak zer garrantzi duen jarduera bat egiteko garaian.
- Badaki faktore fisikoek (nekea) modu negatiboan eragiten dutela eskola-jarduera egiteko garaian.
- Jabetzen da ikaskuntzan ikasgelako baliabideen antolamenduen eraginaz.
- Ohartzen da zein den eskola-ordutegiaren helburu nagusia.
- Badaki ikaskuntza hobetzeko garaian motibazioak zer garrantzi duen.

2. dimentsioa: Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea:

- Jarduera bat garatzeko jarraitu beharreko jarduerak ondo antolatzen ditu.



- Ezagutzen du zer pauso jarraitu behar dituen jarduera bat egiteko.
- Jarduerak helburuen arabera antolatzen ditu.
- Badaki etxeko lanak egiteko garaian denbora ondo antolatzeak zer garrantzi duen.
- Arazo bati irtenbidea emateko, zer pauso jarraitu behar diren azaltzen du.
- Matematika-kalkuluak egiten dituenean, emaitzak egiaztatzen ditu.
- Jarduera garatzeko baliabide egokiena aukeratzen du.
- Ikaskuntza berri bat identifikatzen du eta beste egoera batzuetan erabiltzeko aukerarekin lotzen du.

MAILA AURRERATUA

1. dimentsioa: Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia:

Oharra: Maila aurreratuko item bakar bat ere ez zegoen dimentsio honi atxikita.

2. dimentsioa: Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea:

- Jarduera aztertu ostean, irtenbide zuzenera iristen da.
- Baliabide baten funtzionaltasuna identifikatzen du; esate baterako, informazioa aurkezteko taulak noiz erabili behar diren.
- Ekintza baten plangintza egiteko garaian, eskola-ordutegiaren erabilera ezagutzen du.
- Ikaskuntzako zailtasunak gainditzen laguntzen duten teknikak edota baliabideak aitortzen ditu.
- Jarduera egiteko erabil ditzakeen estrategia erabilgarriak aukeratzen ditu.
- Hizkuntzan (atzerrikoa) eskola-errendimendua hobetzen lagungarriak diren baliabideak ezagutzen ditu.



3. eranskina. DBHko 2. mailan errendimendu mailen garapena ebaluatutako itemetatik abiatuta

Dimentsio bakoitzean adierazitako gaitasunak hasierako mailan, erdi-mailan edo maila aurreratuan kokatzeak neurtzeko erabili den itemaren zailtasun handiagoa edo txikiagoa adierazten du.

HASIERAKO MAILA

1. dimentsioa: Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia:

- Badaki ikasketarako norbere motibazio intrintsekoa garrantzitsua dela.
- Jarduera egiteko denborak egokitzen ditu.
- Ez dakienean edo zailtasunak dituenean, laguntza nori eskatu erabakitzen du.
- Laborategian taldean lan egiten duenean zer neurri jarraitu behar dituen ulertzen du.
- Denbora antolatzeko modu eraginkorrak identifikatzen ditu helburu batekin bat etorritz.
- Ikasteko baldintza egokiak identifikatzen ditu, baita eskola-agendaren balioa ere.
- Ahaleginaren eta emaitzaren arteko harremana (egoera zehatz batean) identifikatzen du.
- Web-orriak identifikatzen ditu informazio-iturri gisa.
- Denbora orekatuaren banaketa zertan oinarritzen den ulertzen du (ikasketa, jokia, kirola...).
- Ikaskuntzari mesede egiten dieten ingurumen-baldintzak identifikatzen ditu.
- Familiaren zenbait jarreraren aldeko iritzia du, ikaskuntza errazten baitute.
- Zailtasun fisikoen aurrean, badaki hori nola orekatu.
- Ikaskuntza hobetzeko lagungarriak izan daitezkeen baliabideak identifikatzen ditu.
- Hobeto ikasten laguntzen dioten faktore positiboak identifikatzen ditu.
- Ikasteko edo jarduera bat egiteko garaian dituen zailtasunak, oztopoak eta mugak aitortzen ditu.

2. dimentsioa: Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea:

- Ikasitakoaren ondorioak lortu ditu (esperimentu batean) beste testuinguru batzuetan aplikatzeko.
- Esperimentu baten emaitzak aztertzean zer gaitasun pertsonalek parte-hartzen duten identifikatzen badaki.
- Antzematen du zer garrantzi duen jarduera egin baino lehen helburua eta arauak (faseak, teknikak, baliabideak eta abar) kontuan izateak.
- Esperimentu baten emaitzak aztertzen dituenean, ondorioei buruzko gogoeta egiten du.

ERDI-MAILA

1. dimentsioa: Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia:

- Kontzentrazioari eta buruz ikasteari zer faktorek egiten dien mesede eta zeinek kalte ohartzen da.
- Badaki zer gaitasun pertsonal dauden erlazionatuta trebezia jakin batzuk menderatzearekin.
- Identifikatu jarduera baten helburua lortzeko estrategia egokiak.
- Ikaste aldera, ezagutzen ditu informazio-iturri baten erabilerak.
- Ezagutzen ditu duten ezaugarriengatik eskola-kompetentziak hobetzeko lagungarriak izan daitezkeen bideojokoak.

2. dimentsioa: Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea:

- Erabiltzen dituen informazio-iturrien egokitasuna egiaztatzen du.
- Lanari buruzko plangintza egitean, jarduera horri dagokion lan-fasearekin lotzen du.
- Testu jarraitu bateko akatsak identifikatzen ditu (metaulermena).
- Elkarrizketa bat prestatzeko aurretik eman beharreko pausoak antolatzen ditu.
- Lan bat egiten duen bitartean, banaka edo taldean hartu dituen erabakiak berrikusten ditu eta beharretara egokitzen ditu.
- Ikerketa-lan baten plangintza egitean falta daitezkeen faseak zein diren adierazten du.
- Arazoa konpontzeko, irtenbidera iristeko datuak aztertzen ditu.
- Helburua lortzeko, baliabideak optimizatzen ditu.
- Konturatzen da zertan hobetu behar duen.
- Testu eten bateko akatsak identifikatzen ditu.
- Badaki laborategiko praktika batzuen garapen faseak zein diren.
- Kontraesanak antzeman eta testua aztertzeko garaian zuzendu egiten ditu.

MAILA AURRERATUA

1. dimentsioa: Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia:

- Gaitasun motorrak garatzen lagun diezaioketen baliabideak identifikatzen ditu.
- Ikasteko nolabaiteko estilo-aniztasuna aitortzen du.

2. dimentsioa: Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea:

- Nolabaiteko zailtasuna duten testuetan erroreak identifikatzen ditu.
- Duen arazoari irtenbidea emateko hainbat modu erabiltzen ditu.
- Badaki lan bat egiteko garaian plangintza beharrezkoa dela.

4. eranskina: Lehen Hezkuntzako 4. mailako item liberatuak



IKASTEN IKASTEKO KONPETENTZIAKO ITEM LIBERATUAK

LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

ED13

JOKIN ETA NEREA: BIKOTEKA LAN EGINGO DUGU



Lehen Hezkuntzako 4. mailako Jokin eta Nerearen irakasleak bikoteka lan bat egiteko eskatu die eta lan egiteko elkarrekin jarri ditu. Nahiz eta inoiz eztabaidatu ez duten, ikasteko oso modu desberdina dute.

Testu batean akatsak aurkitzea eta problema batzuk egitea izango da lana. Ondoren, gela osoaren aurrean esan beharko dute zer ikusi duten eta zer ikasi duten elkarrekin.

Hau da testua:

Segurtasun-aholkuak, bizikleta hartu baino lehen

“Bizikleta hartzen dugun bakoitzean azterketa sinple bat egitea komeni da:

- *Torloju guztiak solte daudela ziurtatzea.*
- *Aurreko eta atzeko frenoak ziurtatzea.*
- *Martxak aldatu eta ondo funtzionatzen duten ziurtatzea.*
- *Katea kanpoan dagoela ziurtatzea.”*

01

Testuak akatsak izan ditzake. Lagundu Jokini eta Nereari akats horiek aurkitzen. Zure ustez, non daude?

- A. Lehen eta bigarren puntuan.
- B. Bigarren eta hirugarren puntuan.
- C. Lehen eta laugarren puntuan.
- D. Bigarren eta laugarren puntuan.








ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2. Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 7. Prozesuan zehar zeregina arautzea eta gainbegiratzea, eta ikasitakoa ezagutzea eta adieraztea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Testuan akatsak identifikatzen ditu eta atazarako behar den informazio esanguratsua bereizten du.
- **ERANTZUN ZUZENA:** C. Lehen eta laugarren puntuan.
- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
Itema 2011ko kompetentziako pilotu proban erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa:	% 47,0.
Zailtasun-maila: erdi-maila.	
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak):	% 52,0.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak):	% 42,6.

Irakasleak fitxa bat eman die bikoteka lan egiteko jarraitu beharreko pausoekin. Irakurri fitxa, baina ez idatzi ezer.

DATA:	
ARIKETAREN IZENA:	
ARIKETAREN PAUSOAK	
1. BAKOITZAK ESATEN DUGU ZER DAKIGUN GAIARI BURUZ:	
2. BAKOITZAK IRAKURTZEN DUGU TESTUA EDO PROBLEMA, ZER EGIN BEHAR DUGUN ULERTU ARTE:	
3. AKATS BAT IKUSTEN DUENAK GELDITZEKO AGINTZEN DU:	
4. ZALANTZAK ARGITZEN DITUGU, ELKAR LAGUNTZEN DUGU PISTAK EMANEZ EDO PROBLEMA BERRIKUSTEN DUGU:	
5. ELKARRI ZORIONDU EGINGO DIOGU EGIN DUEN LANAGATIK: Goraipamenen hiztegia: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Zorionak. ✓ Oso ondo egin duzu. ✓ Jarraitu horrela. 	

02

Zure ustez, irakasleak zergatik eman du fitxa hau?

- A. Batek agindu eta besteak hark esandakoa egiteko.
- B. Elkarrekin irakurtzen ikasteko.
- C. Bikoteka lan egiten ikasteko.
- D. Irakurtzen dutena idazteko.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2. Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 6. Zereginaren hasierako plangintza egitea (helburuak eta zailtasun- eta berritasun-maila ezagutzea), erabakiak hartzea eta gauzatzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Zeregin baten helburua identifikatzen du.
- **ERANTZUN ZUZENA:** C. Bikoteka lan egiten ikasteko.
- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
Itena 2011ko kompetentziako pilotu proban erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa:	% 63,8.
Zailtasun-maila: erdi-maila.	
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak):	% 64,2.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak):	% 63,5.

03

Zertarako balio dute fitxako marrazkiek?

- A. Fitxa dekoratzeko.
- B. Lantzen dituzten testuak hobeto ulertzen laguntzeko.
- C. Jokini eta Nereari pausoez gogoratzen laguntzeko.
- D. Ondoren, marrazkiekin muntaketa egiteko.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1. Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 5. Ikaskuntza laguntzen duten estrategien garapen pertsonalaren maila ezagutzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Memorizatzen laguntzen duten teknikak ezagutzen ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:** C. Jokini eta Nereari pausoez gogoratzen laguntzeko.
- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
Itena 2011ko kompetentziako pilotu proban erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa:	% 15,9.
Zailtasun-maila: aurreratua.	
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak):	% 19,3.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak):	% 12,9.

Era berean, problema bat eman die ebazteko:

“Musika denda batean 657 CD jaso dituzte. Astelehenean apalategian 239 ipini zituzten, asteartean 221, asteazkenean 38, ostegunean 63, ostiralean 29 eta larunbatean azkenak jarri zituzten. Zenbat jarri zituzten larunbatean?”

Jokinek eta Nereak soluzioa aurkitu dute: 67 CD.

04

Jarraian, problema ebazteko modu bat baino gehiago ageri dira. Adierazi “X” batez **ZUZENAK** edo **OKERRAK** diren.

PROBLEMA EBAZTEKO MODUAK	ZUZENAK	OKERRAK
a) CD guztiak batu.		
b) Asteleheneko, astearteko, asteazkeneko, osteguneko eta ostiraleko CDak batu, eta 657ri emaitza kendu.		
c) 657ri asteleheneko CDak kendu, emaitza horri asteartekoak, eta horrela, ostiralera arte.		

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2. Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 7. Prozesuan zehar zeregina arautzea eta gainbegiratzea, eta ikasitakoa ezagutzea eta adieraztea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Emaitzak egiaztatzen ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:**

PROBLEMA EBAZTEKO MODUAK	ZUZENAK	OKERRAK
a) CD guztiak batu.		X
b) Asteleheneko, astearteko, asteazkeneko osteguneko eta ostiraleko CDak batu, eta 657ri emaitza kendu.	X	
c) 657ri asteleheneko CDak kendu emaitza horri asteartekoak, eta horrela, ostiralera arte.	X	

- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
Itema 2011ko konpetentziako pilotu proban erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa: % 13,6.
Zailtasun-maila: aurreratua.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak): % 15,3.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak): % 12,1.

05

Jokinek eta Nereak zer ikasi duten esango dute. Ikasi duten gauzetatik, adierazi zein erabili ahal dituzten gelako beste lan batzuetarako.

.....
.....
.....
.....

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2. Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 7. Prozesuan zehar zeregina arautzea eta gainbegiratzea, eta ikasitakoa ezagutzea eta adieraztea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Ikasitakoa ezagutzen eta adierazten du.
- **ERANTZUN ZUZENA:**
Item irekia.
- **ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK:**

Zuzenak izan daitezkeen erantzun batzuk:	<ul style="list-style-type: none"> • Elkarrekin lan egitea. Lagunen artean lan egiten. • Ondo pasatzea lan egiten dugun bitartean. • 2 edo eragiketa gehiagoko problemak ebaztera. • Fitxa bateko pausoak jarraitzea, jarduera bat hobe egiten laguntzen baitzaitu. • Marrazkiek memorizatzen lagundu ahal dutela. • Arretaz irakurri behar dugula, testuak ondo ulertzeko. • Bizikleta erabiltzera joaten zarenean, lehen aztertu behar duzula. • Zorionak emateak/jasotzeak asko animatzen duela. • Denda batean duten CD kopurua kalkulatzera. • ...
--	---

- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
Itena 2011ko konpetentziako pilotu proban erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa:	% 31,8.
Zailtasun-maila: aurreratua.	
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak):	% 34,3.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak):	% 29,7.

Jarraian, proban parte hartu zuten ikasleek emandako erantzunetatik adibide gutxi batzuk erakusten dira, "zuzenak" eta "okerrak" diren erantzunak berezita.

ZENBAIT ERANTZUN ZUZEN

Eskertan gajatea eta ez egiteko kezka

gauza guztiak / batzuetan bikotea
lan egitea. Ikastea

Ikasi dute nola egiten den
lan taulekin eta bikotekin

Birparatzen egin eta gero ziurtatzen
ondo egin dutela

Taula bat egitea badu askos errazagoa
dela ikasi dute eta ^{zerrada} ~~bat~~ bat eduz
askoz errazagoa dela

Quee ~~trabajar~~ trabajando en parejas se
aprende más. Quee no es malo que
te ayuden.

El de corregir los errores

Aprender a trabajar en grupo,
no enfadarse, y no discutir

ZENBAIT ERANTZUN OKER

Frantsesa - Euskara - Gaztelania eta
ingelera.

Erantzunak ez du loturarik planteatu zaien item-taldeekin.

Problemetarako

Erantzun osatugabea edo zehaztugabea.

Senaleak ondo begiratzea pasa aurretik

Ikasleak, seguruenik, 2. itemaren irudi bat ("stop") lotu du ikasgelan beste testuinguru batean landu duen eduki batekin. Dena dela, galderari ez dio erantzun zuzenik eman.

Askio ikasi dute jomik eta Neser.

Erantzun zehaztugabea.

Plastikan sartutako egiteko

Erantzunak ez du loturarik item-talde honetan lantzen diren edukiekin edo helburuekin.

MARTXOAK 8 IKASTETXEAN

Zubigorri ikastetxean, Emakumeen Eguna hurbil dagoenez, proposamen hau egin dute egun hori ospatzeko.

Berdintasunaren Eguna deituko diote. Ez dute klaserik izango eta egun osoan hainbat jarduera egingo dituzte: futbol partidua, soka-saltoa, dantza, esku-lanak... Tutoreek esan diete mozorrotuta etorri behar dutela: neskak mutilez eta mutilak neskez jantzita. Aukeratu behar dituzte normalean egiten ez dituzten jolasak eta jarduerak.



01

Zure ustez, zein da horrela mozorrotuta etortzearen helburua?

- A. Itxura xelebrea hartzea eta elkarri barre egitea.
- B. Neskak mutilen azalean eta mutilak neskenean jartzea.
- C. Ondo pasatzea.
- D. Inauteriak ospatzea.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2. Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 6. Zereginaren hasierako plangintza egitea (helburuak eta zailtasun- eta berritasun-maila ezagutzea), erabakiak hartzea eta gauzatzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Zeregin baten helburua identifikatzen du.
- **ERANTZUN ZUZENA:** B. Neskak mutilen azalean eta mutilak neskenean jartzea.
- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
 Itema 2011ko kompetentziako pilotu proban erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa:	% 14,5.
Zailtasun-maila: aurreratua.	
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak):	% 12,7.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak):	% 16,2.



02

Zure ustez, zergatik aukeratzen dituzte normalean egiten ez dituzten jolas eta jarduera horiek?

- A. Mutil askok egiten dituzten gauzak neska guztiek egiteko aukera izateko eta alderantziz.
- B. Jolasak eta jarduerak gaizki egiteko eta elkarri barre egiteko.
- C. Elkarrekin ondo pasatzeko.
- D. Jolas eta jarduera berriak ikasteko.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2. Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 6. Zereginaren hasierako plangintza egitea (helburuak eta zailtasun- eta berritasun-maila ezagutzea), erabakiak hartzea eta gauzatzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Zeregin baten helburua identifikatzen du.
- **ERANTZUN ZUZENA:** A. Mutil askok egiten dituzten gauzak neska guztiek egiteko aukera izateko eta alderantziz.
- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
Itema 2011ko kompetentziako pilotu proban erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa:	% 15,3.
Zailtasun-maila: aurreratua.	
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak):	% 13,0.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak):	% 17,7.

03

Egun horretan egingo dituzten jolasetan parte hartzeko, ikasleek beraientzat ohiko ez direnak aukeratu eta taldeak egin beharko dituzte. Joni futbola asko gustatzen zaio eta askotan ibiltzen da. Oraingo honetan ezin izan du hori aukeratu eta soka-salto jolasean apuntatu behar izan du, baina ez du nahi. Ez daki jolasten eta talde horretan sartu diren guztiek zerbait badakite.

Gainera, talde guztiek ondo egin nahi dute saria irabazteko.

Talde horretakoa bazina, zer egingo zenuke?

- A. Haserretuko egingo nintzateke Jon gure taldean egoteagatik.
- B. Ondo pasatu eta Jonez barre egin.
- C. Ez nuke ezertxo ere ez egingo, egun bateko jolasa besterik ez da eta.
- D. Oraindik aste bete falta denez, praktikatzen lagundu.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1. Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 2. Gaitasun afektibo-emozionalak antzematea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Konponbideak proposatzen ditu taldean jarduera bat egiterakoan sortzen diren zailtasunen aurrean.
- **ERANTZUN ZUZENA:** D. Oraindik aste bete falta denez, praktikatzen lagundu.
- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
Itema 2011ko kompetentziako pilotu proban erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa:	% 48,5.
Zailtasun-maila: erdi-maila.	
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak):	% 50,6.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak):	% 46,5.



04

¿ Zure ikastetxean horrelako jaia ospatuko balitz, zer egingo zenuke?

- A. Niretzat erabat berria den jolasa aukeratuko nuke, horrela zerbait berria ikasiko bainuke.
- B. Jolas ezaguna aukeratuko nuke ahalegin gutxiago egiteko.
- C. Beste edozein egunetan bezala, nire jolas gogokoena aukeratuko nuke.
- D. Nire lagunek aukeratutako jolasean arituko nintzateke.

ITEMAREN DESKRIPZIOA


- **DIMENTSIOA:** 1. Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 2. Gaitasun afektibo-emozionalak antzematea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Bere lorpen gaitasunaz fidatzen da.
- **ERANTZUN ZUZENA:** A. Niretzat erabat berria den jolasa aukeratuko nuke, horrela zerbait berria ikasiko bainuke.
- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
 Itema 2011ko kompetentziako pilotu proban erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa:	% 35,3.
Zailtasun-maila: erdi-maila.	
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak):	% 39,4.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak):	% 31,2.

LABIRINTOA

Azucena irakasleak, Arroztegi eskolako 4. B gelakoak, ikasleek jolas batzuk egitea nahi du, jolas horiek ikasi behar duten gauza garrantzitsu batzuekin lotzen baitira.

Hurrengo ariketan labirinto bat egin behar da. Pentsa ezazu zer egin beharko duzuzuk osatzeko.



01

Zure ustez, zein da pausoen **zerrendarik osotuena** (onena) labirintoa egiteko?

- A. Arkatza hartzen dut, hasi naiz egiten eta, nekatzen banaiz, utzi egiten dut.
- B. Buruz egiten dut ibilbidea, egin ahala zuzentzen dut eta amaieran berrikusten dut.
- C. Hasiera eta amaiera identifikatzen ditut, kontzentratzen naiz eta ahalegindu egiten naiz.
- D. Sarrera bilatzen dut eta axolagabe bidea egiten dut, ea amaierara iristen naizen.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2. Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 6. Zereginaren hasierako plangintza egitea (helburuak eta zailtasun- eta berritasun-maila ezagutzea), erabakiak hartzea eta gauzatzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Jarduera bat ebazterakoan eman dituen urratsez ohartzen da.
- **ERANTZUN ZUZENA:** B. Buruz egiten dut ibilbidea, egin ahala zuzentzen dut eta amaieran berrikusten dut.

- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**

Itena 2011ko konpetentziako pilotu proban erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa:	% 43,8.
Zailtasun-maila: erdi-maila.	
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak):	% 43,6.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak):	% 44,0.

02

Talde handian, labirintua osatzeko erabilitako estrategiak apuntatu dituzte arbelean. Adierazi "X" batekin zure ustez **EGOKIAK** eta **DESEGOKIAK** direnak:

ESTRATEGIAK	EGOKIAK	DESEGOKIAK
a. Irteera eta sarrera bilatzen ditut, buruz bideari jarraitzen diot eta arkatzez markatzen hasten naiz.		
b. Nahasten banaiz, buruz berriro bidea egiten hasten naiz irteerara arte.		
c. Lehenengoan ateratzen ez zaidanean, bertan behera uzten dut eta ez naiz berriz saiatzeko.		
d. Badakit esfortzua mantentzen badut egoera konpontzea lortuko dudala.		
e. Amaieratik hasteak hobe egiten laguntzen dit.		
f. Hainbeste marrak ikusten dudanean burua nahasten zait eta oso urduri jartzen naiz.		

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1. Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 5. Ikaskuntza laguntzen duten estrategien garapen pertsonalaren maila ezagutzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Jarduera bat egiteko erabil ditzakeen estrategiak aukeratzeko dituen.
- **ERANTZUN ZUZENA:**

ESTRATEGIAK	EGOKIAK	DESEGOKIAK
a. Irteera eta sarrera bilatzen ditut, buruz bideari jarraitzen diot eta arkatzez markatzen hasten naiz.	X	
b. Nahasten banaiz, buruz berriro bidea egiten hasten naiz irteerara arte.	X	
c. Lehenengoan ateratzen ez zaidanean, bertan behera uzten dut eta ez naiz berriz saiatzen.		X
d. Badakit esfortzua mantentzen badut egoera konpontzea lortuko dudala.	X	
e. Amaieratik hasteak hobe egiten laguntzen dit.	X	
f. Hainbeste marrak ikusten dudanean burua nahasten zait eta oso urduri jartzen naiz.		X

- **ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK:**
 - Erantzun zuzen osoa: Ikasleak erantzun zuzena 6 aukerei eman die.
 - Erantzun partzialki zuzena: Ikasleak erantzun zuzena 4 edo 5 aukerei eman die.
 - Erantzun okerra: Ikasleak erantzun zuzena 3 aukerei edo gutxiagori eman die, edo bati ere ez.

- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**

Itena 2011ko kompetentziako pilotu proban erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa "erantzun zuzen osoan": % 18,6.

Zailtasun-maila: aurreratua.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa "erantzun zuzen osoan" (neskak): % 20,3.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa "erantzun zuzen osoan" (mutilak): % 17,1.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa "erantzun partzialki zuzena": % 53,9.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa "erantzun partzialki zuzena" (neskak): % 55,8.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa "erantzun partzialki zuzena" (mutilak): % 52,0.

ESKOLA AGENDA

Tutoretza-ordua da. Gaur tutoreak, Juliak, eskola-agendak banatuko ditu eta horiek zertarako balio dutenaz hitz egingo dute. Juliak ikasleak erabiltzea nahi du, abantaila asko dituztelako, eta horiek erabiliz, emaitza hobeak lortuko dituztelako.

**01**

Hasi baino lehen, galdera bat idatzi du arbelean: **Zertarako balio du eskola-agenda batek?**

Zuk zer erantzungo zenuke?

.....

.....

.....

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1. Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 5. Ikaskuntza laguntzen duten estrategien garapen pertsonalaren maila ezagutzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Eskola agendako erabilerak identifikatzen ditu, bere ikaskuntza jardueretan lagungarriak izan zekizkiokeenak.
- **ERANTZUN ZUZENA:**

Ikaslearen erantzuna ontzat emateko, zuzenean eskolako jarduerekin lotzen den erabileraren bat idatzi behar zuen. Aldiz, baztertu dira eskola jarduerari zeharka zegozkion erantzunak:

Algunas de las posibles respuestas correctas:	<ul style="list-style-type: none"> • Etxeko lanak antolatzeko. • Jakintzagaiak eta azterketak idazteko. • Gelako jarduerak eta oporrak antolatzeko • ...
Algunas respuestas incorrectas. Identifican usos de la agenda, pero no propios de una agenda escolar, o usos que no son propios de una agenda:	<ul style="list-style-type: none"> • Lagunen urtebetetzeko datak apuntatzeko. • Dentistara noiz joan beharko dudak jakiteko. • Irakasleak ematen dizkiguten azalpenak bertan idazteko. • ...

- **ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK:**
 - Erantzun zuzen osoa: Ikasleak erantzun zuzena 6 aukerei eman die.
 - Erantzun partzialki zuzena: Ikasleak erantzun zuzena 4 edo 5 aukerei eman die.
 - Erantzun okerra: Ikasleak erantzun zuzena 3 aukerei edo gutxiagori eman die, edo bati ere ez.
- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
 Itema 2013ko Ebaluazio diagnostikoan erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa:	% 84,8.
IET-TRI puntuazioa: 27,2	
Zailtasun-maila: hasierakoa.	
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak):	% 85,2.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak):	% 84,4.

Jarraian, proban parte hartu zuten ikasleek emandako erantzunetatik adibide gutxi batzuk erakusten dira, “zuzenak” eta “okerrak” diren erantzunak bereizita.

ZENBAIT ERANTZUN ZUZEN

Zuzen etxebalara apuntatzea eta gaurak garrantzitsuak idaztea.

Erantzunaren lehenengo zatia zuzen lotzen da eskolako jarduerarekin (etxeko lanak), nahiz eta bigarren zatia zehaztugabea den.

Etxerako lanak idazteko eta notak idazteko baliodun.

Erantzun honek agenda etxeko lanekin erlazionatzen du berriro, eta “notak idazteko” erantsi dio, zenetik eskolako jardueretik lotura ondoriozta baitaiteke.

etxekolamari apuntatzea eta notak idazteko medikura joango jararlean.

Erantzun honek, lehenik, etxeko lanak hartzen du ardatz, eta, bigarrenik, oso ohikoa den beste erabilera bat, amak edo aitak tutorearentzako oharren bat idaztea eskola agendan (kasu honetan, medikura joatea aurreikusten dutela).

andereinean arbelan apuntatzen dituen etxerako lanak apuntatzea

Berriz, etxerako lanak zeintzuk diren idazteari erreferentzia egiten dion beste erantzun bat dugu.

Etxerako lana idazteke zuzen
ez duen egiten eta zigor
bat ezartzen duen.

Erantzuna zuzentzat hartu da lehenengo zatiari esker, bigarrenak zentzu handirik ez baitu.

Ara... sabel... las... horas... que... las... a... toron

Dirudienez, eskola agendan idatzita duen ordutegiari aipamen egin dio.

Para apuntar cosas del colegio

Apur bat zehaztugabea bada ere, "ikastetxeko gauzak" adierazpenarekin ikasketei, etxeko lanei eta antzeko gauzei aipamen egin nahi diela uste izan da. Beraz, ontzat eman da, baina erantzun zuzentzat onar daitekeen mugan dago.

ZENBAIT ERANTZUN OKER

Gene... gaur... a... apun... tate... ga...

Ikaslea erabilera praktiko edo pertsonala azaltzen saiatu da, baina ez du zehaztu, ezta eskolako jarduerarekin lotu.

Bai... Bai... horize

Erantzunak ez du loturarik galderarekin.

Ikasteko, ordo egiteko eta
laguntzeko

Erantzuna lar zehaztugabea da.

Tutorsetza ordua da Gaur. tutoreak, Julia, eskola-urtean
banaturik ditu eta horiek ezin dira baliu dutenez hitz
egiteko. Julia ikasleak erabiltzea nahi du, abantaila
asho dituztelako, eta hori erabiltze emaitza hobek
lortzea dituztelako

Erantzuna ez da zuzena, ikasleak kopiatu baino ez baitu egin itemaren sarreran agertzen den testua.

Gero alkatari emateko eta gure
ipuri ditugun gauzak jartzeko
edo elbatzeko

Beharbada idatzitako erantzunak aipamen egin dio ikasgelan ikasle berak egin duen jarduera bati, baina ez du lotura zuzenik eskola agenda erabiltzearekin.

Pal profesora esta bien como sacando
mejores notas.

Erantzunak ez duela egoki adierazten eskola agendaren erabilera zehatzik.

Para hacer cuentas o apuntes de asignaturas.

Ematen du ikasleak eskola agenda lan koadernoarekin nahastu duela.



02

Zertan laguntzen digu ikasketan agenda egunero etxera eramateak?

- A. Lagunen telefono-zenbakiak gordeta izaten, zerbait eskatzeko.
- B. Aitari eta amari oporrak noiz izango diren gogorarazten.
- C. Lagunen urtebetetze-egunak noiz diren jakiten.
- D. Hurrengo egunerako zer gauza prestatu behar ditugun jakiten.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1. Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 5. Ikaskuntza laguntzen duten estrategien garapen pertsonalaren maila ezagutzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Agendaren erabilera planifikazio elementu gisa ezagutzen du, beti ere eskolako testuinguruan.
- **ERANTZUN ZUZENA:** D. Hurrengo egunerako zer gauza prestatu behar ditugun jakiten.
- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
 Itema 2013ko Ebaluazio diagnostikoan erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa:	% 88,5.
IET-TRI puntuazioa:	119,6.
Zailtasun-maila:	hasierakoa.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak):	% 89,1.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak):	% 88,0.



03

Asteko ordutegia da agenda baten ataletako bat. Honetarako balio du...

- A. ... ikasgai bakoitzeko orduak banatzeko.
- B. ... irakasleen izenak idazteko.
- C. ... aisialdi-denborak ipintzeko.
- D. ... astero egin beharreko etxerako lanak idazteko.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1. Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 5. Ikaskuntza laguntzen duten estrategien garapen pertsonalaren maila ezagutzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Bere eskolako lana antolatzen lagundu diezaioketen eskola agendaren erabilerak identifikatzen ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:** A. ... ikasgai bakoitzeko orduak banatzeko.
- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
Itena 2013ko Ebaluazio diagnostikoan erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa:	% 38,5.
IET-TRI puntuazioa: 289,5.	
Zailtasun-maila: erdi-maila.	
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak):	% 39,3.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak):	% 37,9.

04

Irakasleak azaldu die agenda oso baliabide erabilgarria dela, antolatzen eta denbora ez galtzeko laguntzen dielako. Eskatu die aukeratzeko, etxeko lanak egin baino lehen agenda erabiltzen dutenean, jarraitu behar duten ekintzen zerrendarik onena.

- A. 1, egin behar ditudan etxeko lanak antolatzen ditut; 2, planifikatu dudana egiten dut eta 3, egin behar nuena birpasatzen dut.
- B. 1, agenda zabaltzen dut; 2, zeregin bakoitza azpimarratu egiten dut eta 3, zailenetik hasten naiz.
- C. 1, arlo bakoitzean egin behar ditudan etxeko lanak ikusten ditut eta 2, hurrengo egunekoak bakarrik egiten ditut.
- D. 1, egin behar ditudan etxeko lan guztiak birpasatzen ditut eta 2, egiten ez dakidana beste egun baterako uzten dut.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2. Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 6. Zereginaren hasierako plangintza egitea (helburuak eta zailtasun- eta berritasun-maila ezagutzea), erabakiak hartzea eta gauzatzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Jarduera burutzen lortzeko estrategiarik onena aukeratu du: ez galdu denborarik etxeko lanak egitera jarri aurretik.
- **ERANTZUN ZUZENA:** A. 1, egin behar ditudan etxeko lanak antolatzen ditut; 2, planifikatu dudana egiten dut eta 3, egin behar nuena birpasatzen dut.
- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
 Itema 2013ko Ebaluazio diagnostikoan erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa:	% 49,0.
IET-TRI puntuazioa: 247,9	
Zailtasun-maila: erdi-maila.	
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak):	% 48,6.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak):	% 49,4.



05

Jarraian, eskola-agenda batek dituen zenbait aplikazio irakurri ahal izango dituzu. Adierazi “X” baten bidez zeintzuk diren **ERABILGARRIAK** ikasketak planifikatzeko eta antolatzeko, eta zeintzuk **EZ DIREN ERABILGARRIAK** lan horretarako.

	ERABILGARRIA	EZ ERABILGARRIA
a) Lagunen telefonoak eta helbideak apuntatzea.		
b) Eguneroko etxerako lanak apuntatzea.		
c) Telebistako partida-egunak adieraztea.		
d) Azterketetako egunak apuntatzea.		
e) Faltak justifikatzeko.		
f) Lagunen urtebetetzeak apuntatzea.		
g) Zalantzak apuntatzea, gelan galdetzeko.		

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1. Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 5. Ikaskuntza laguntzen duten estrategien garapen pertsonalaren maila ezagutzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Eskolako lana antolatzeari begira, eskola agendarekin egin daitezkeen erabilera batzuen baliagarritasun-maila baloratzen du.
- **ERANTZUN ZUZENA:**

	ERABILGARRIA	EZ ERABILGARRIA
a) Lagunen telefonoak eta helbideak apuntatzea.		X
b) Eguneroko etxerako lanak apuntatzea.	X	
c) Telebistako partida-egunak adieraztea.		X
d) Azterketetako egunak apuntatzea.	X	
e) Faltak justifikatzeko.		X
f) Lagunen urtebetetzeak apuntatzea.		X
g) Zalantzak apuntatzea, gelan galdetzeko.	X	

- **ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK:**
 - Erantzun zuzen osoa: Ikasleak erantzun zuzena 6 edo 7 aukerei eman die.
 - Erantzun partzialki zuzena: Ikasleak erantzun zuzena 4 edo 5 aukerei eman die.
 - Erantzun okerra: Ikasleak erantzun zuzena 3 aukerei edo gutxiagori eman die, edo bati ere ez.

- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**

Itena 2011ko kompetentziako pilotu proban erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa "erantzun zuzen osoan": % 14,9.

Zailtasun-maila: aurreratua.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa "erantzun zuzen osoan" (neskak): % 17,1.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa "erantzun zuzen osoan" (mutilak): % 12,7.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa "erantzun partzialki zuzena": % 51,4.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa "erantzun partzialki zuzena" (neskak): % 49,9.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa "erantzun partzialki zuzena" (mutilak): % 52,9.



06

4. C gelan, tutoreak esan die oso garrantzitsua dela arratsaldeko denbora ondo banatzea. Gelako ikasle batzuek hau esan dute:

- Joanak esan du merendatu ostean karatera joaten dela eta telebista pixka bat ikusi edo *Play*-rekin jolasten duela. Ondoren, ordu erdi gelditzen zaio etxeko lanak egiteko.
- Rubenek esan du lehenik merendatu egiten duela, gero atsedean pixka bat hartzen duela telebista ikusiz edo jolastuz, eta igeriketara joan aurretik ordubetez aritu ohi dela etxeko lanak egiten.
- Ainara ingelesera joaten da eta bidean merendatu egiten du; etxera iristen denean, oso nekatuta egon ohi da eta sofan etzaten da telebista ikusi edo jolastera. Amaieran, etxeko lanak dituen begiratzen du eta afaldu baino lehen egiten ditu.
- Jonek eskolaz kanpoko jardueraren bat du egunero, biolina edo ingelesa. Merendatzen duen bitartean, egunean 2 ordu ikasten saiatzen da. Ia ez du telebistarik ikusten eta jolasteko ez du denbora askorik.

Zure iritziz, zein ikaslek du ordutegi orekatuena?

- A. Joanak.
- B. Rubenek.
- C. Ainarak.
- D. Jonek.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1. Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 5. Ikaskuntza laguntzen duten estrategien garapen pertsonalaren maila ezagutzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Eskolaz kanpoko denbora antolatzeko modu egokiak identifikatzen ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:** B. Rubenek.
- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
Itema 2011ko kompetentziako pilotu proban erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa:	% 17,4.
Zailtasun-maila: aurreratua.	
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak):	% 13,9.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak):	% 20,8.

5. eranskina: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako item liberatuak



**IKASTEN IKASTEKO KONPETENTZIAKO
ITEM LIBERATUAK**

**DERRIGORREZKO BIGARREN
HEZKUNTZAKO 2. MAILA**

ED13

AZTERKETA

Umma DBHko 2. mailan ikasten ari da. Ingeles-azterketa izango du eta ondo prestatuta eraman nahi du. Horretarako hainbat gauza kontuan izan beharko du. Lagundu iezaiozu:



01

Noiz hasi beharko luke ikasten?



- A. Gaur hasi, egunero zerbait egin eta ordu berean hobe.
- B. Erraza bada, nahikoa du bezperan ikastearekin.
- C. Ez da ahalegindu behar, aurreko ebaluazioan Ingelesa gainditu zuelako.
- D. Beste taldean jarritako azterketa ikusi ondoren, azterketa prestatu.

ITEMAREN DESKRIPZIOA


- **DIMENTSIOA:** 1. Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 5. Ikaskuntza laguntzen duten estrategien garapen pertsonalaren maila ezagutzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Denborak jarduera burutzera egokitzen ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:** A. Gaur hasi, egunero zerbait egin eta ordu berean hobe.
- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
 Itema 2013ko Ebaluazio diagnostikoan erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa:	% 76,4.
IET-TRI puntuazioa: 142,6.	
Zailtasun-maila: hasierakoa.	
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak):	% 80,0.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak):	% 73,1.

02

Ummak leku batean ikasi nahi duenean, aurretik mahaia prestatzea gustatzen zaio. Ingeleseko ohiko materialez aparte (liburua, apunteak...), zure ustez, zer gehiago beharko luke?

- A. Sakelako telefonoa, hiztegia eta musika-tresna, edozein momentutan erabili ahal izateko.
- B. Hiztegia besterik ez; musika-tresna eta sakelako telefonoa ez ditu behar.
- C. Hiztegia, telefonoa badaezpada ere piztuta eta musika-tresna itzalita.
- D. Zerbait jateko, horrela ez du atsedenik hartu beharko.



ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1. Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 4. Ikaskuntza estimulatzen duten inguruneko baldintzak identifikatzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Ikaskuntzan laguntzen dioten inguruneko baldintzak antzematen ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:** B. Hiztegia besterik ez; musika-tresna eta sakelako telefonoa ez ditu behar.
- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
 Itema 2013ko Ebaluazio diagnostikoan erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa:	% 64,1.
IET-TRI puntuazioa:	179,3.
Zailtasun-maila:	hasierakoa.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak):	% 68,9.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak):	% 59,7.



03

Ummak egun hauetan gaez ikastea erabaki du, etxeoak oheratu eta gero, trankil egoteko. Zer iruditzen zaizu? Zergatik?

- A. Zuzena. Horrela, arratsaldean denbora izango du lagunekin lasai egoteko.
- B. Zuzena. Horrela, denak ohean egonik, inork ez du molestatuko.
- C. Okerra, egunero klasera joateko oso goiz jaiki behar duelako.
- D. Okerra, gaez txateatzen edo telebista ikusten egotea hobe delako.



ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1. Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 3. Gaitasun fisikoak eta mugimen-trebetasunak identifikatzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Neke fisikoak ikastea zailtzen duela igartzen du.
- **ERANTZUN ZUZENA:** C. Okerra, egunero klasera joateko oso goiz jaiki behar duelako.
- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
 Itema 2011ko kompetentziako pilotu proban erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa:	% 70,3.
Zailtasun-maila: hasierakoa.	
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak):	% 75,0.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak):	% 65,5.



04

Ummak gogoratzen du iaz ikasle batzuk kexatu zirela, denbora luzean ikasten egonez gero, bizkarreko mina izaten zutelako. Tutoreak gomendio bat eman zien. Zein izan zitekeen gomendio hori?

- A. Ondo eserita egotea eta tarteka minutu batzuetan ibiltzea.
- B. Denbora luzean ikasi behar badute, hobe da etzanda egitea.
- C. Aulkian egonez gero, hobe da hankak zintzilik izatea, askatasun gehiagoz mugitu ahal izateko.
- D. Lehen hanka bat ipurdi azpian ipini eta gero bestea, noizean behin hanken kokapena txandakatuz.



ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1. Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 3. Gaitasun fisikoak eta mugimen-trebetasunak identifikatzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Zailtasun fisikoen aurrean konpentsatzeko moduak identifikatzen ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:** A. Ondo eserita egotea eta tarteka minutu batzuetan ibiltzea.
- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
 Itema 2013ko Ebaluazio diagnostikoan erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa:	% 64,5.
IET-TRI puntuazioa: 186,6.	
Zailtasun-maila: hasierakoa.	
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak):	% 68,9.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak):	% 60,4.



05

Ummaren etxean ohitura dago urtebetetzean bi gauza oparitzeko eta horietako bat ikasketekin zerikusia izateko. Sorpresa izaten da. Aurten flexoa izan da. Zergatik uste duzu horrela egiten dutela?

- A. Horrela erraza delako, eta ez dute hainbeste pentsatu behar.
- B. Etxe horretan ikasteari garrantzi handia ematen diotelako.
- C. Beren gurasoak irakasleak direlako.
- D. Logelari ikasteko lekuaren itxura emateagatik.



ITEMAREN DESKRIPZIOA

- ***DIMENTSIOA***: 1. Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia.
- ***AZPI-KONPETENTZIA***: 4. Ikaskuntza estimulatzen duten inguruneko baldintzak identifikatzea.
- ***ITEMAREN HELBURUA***: Familiako kideen ohituren artean, identifikatzen ditu zeintzuek laguntzen duten bere ikasketan.
- ***ERANTZUN ZUZENA***: B. Etxe horretan ikasteari garrantzi handia ematen diotelako.
- ***KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN***:
 Itema 2011ko kompetentziako pilotu proban erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa:	% 61,5.
Zailtasun-maila: erdi-maila.	
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak):	% 66,0.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak):	% 57,0.



06

Ummaren ikaskideak, Julenek, ikasi behar duena grabatu egiten du, gero entzuteko. Berak dio ondo datorkiola. Zer iruditzen zaizu?

- A. Alper hutsa dela, ez irakurtzeagatik egiten duelako.
- B. Ondo, horrela aldi berean beste gauza bat egin dezake.
- C. Ohitura txarra dela, arreta gal dezakeelako.
- D. Egokia, berari emaitza ona ematen diolako.



ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1. Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 3. Gaitasun fisikoak eta mugimen-trebetasunak identifikatzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Ikasteko modu desberdinak daudela antzematen ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:** D. Egokia, berari emaitza ona ematen diolako.
- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
 Itema 2013ko Ebaluazio diagnostikoan erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa:	% 31,8.
IET-TRI puntuazioa: 356,2.	
Zailtasun-maila: aurreratua.	
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak):	% 34,9.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak):	% 28,9.

BAT, BI ETA... GYM

Ariketa edo jolas bat azaltzerakoan, hitzak erabiltzeaz aparte marrazkiak erabil ditzakegu.


Gizakiaren irudikapena modu askotan egin daiteke. Behean dituzu Gorputz Hezkuntzako irakasleak eman dituen argibideak irudi sinpleena egiteko.



Argibideak jarraituz, ezker aldean zure panpina irudikatuko duzu. Oinarrizko eredua jantzi edo apaindu nahi baduzu, pertsonalizuagoa geratuko da. Baina gogoratu, proportzioak zaintzea da garrantzitsua.

01

Nire panpina



Panpina irudikatzeko argibideak

- Burua gorputzaren 1/6 izango da eta borobil baten bidez irudikatuko dugu.
- Enborra marratxo baten bidez adieraziko dugu eta gorputz osoaren 2/6 izango da.
- Gerria edo aldaka borobil txiki baten bidez irudikatuko dugu.
- Besoa erditik artikulatuta dagoen marra bat izango da. Horren luzera, osoaren 2/6 izango da, eta erdian ukalondoaren artikulazioa adierazteko puntu lodi bat irudikatuko dugu.
- Zangoa gorputzaren 3/6 suposatzen duen beste marra artikulatu batek irudikatuko du. Hemen ere erdian belanaren artikulazioa adierazten duen puntu lodi bat irudikatuko dugu.
- Eskuak borobil txiki batez irudikatzen dira eta oinak borobil luzatu baten bidez.

ITEMAREN DESKRIPZIOA


- **DIMENTSIOA:** 2. Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 6. Zereginaren hasierako plangintza egitea (helburuak eta zailtasun- eta berritasun-maila ezagutzea), erabakiak hartzea eta gauzatzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Emandako jarraibideak aplikatzen ditu jarduera bat egiteko ordura.
- **ERANTZUN ZUZENA:**
Item irekia. Item honen xedea hurrengorako motibazioa piztea da.
- **ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK:**

Item honi emandako erantzuna baloratzean honakoa izan zen kontuan: lehenik, marrazkia adierazitako arauen arabera egina zen, eta, bigarrenik, ikasleak erakutsitako kreatibitatea edo sormena. Horrela, erantzun zuzeneko bi maila bereizi dira:
 - Erantzun zuzen osoa: Irudia egiterakoan jarraibideei ekin die eta, gainera, sormena erakutsi du. Halaber, irudiaren proportzioa kontuan izan da.
 - Erantzun partzialki zuzena: Irudia egiterakoan jarraibideei ekin die. Nolabaiteko kalitate artistikoa duten irudiak ere sartu dira balorazio honetan, nahiz eta eskatutako proportzionaltasuna ez gorde.
 - Erantzun okerra: Irudiaren irudikapenak jarraibideetatik urruntzen da nabarmen.
- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
Itena 2011ko kompetentziako pilotu proban erabili zen.


Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa "erantzun zuzen osoan": Zailtasun-maila: aurreratua.	% 17,3.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa "erantzun zuzen osoan" (neskak):	% 24,8.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa "erantzun zuzen osoan" (mutilak):	% 14,9.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa "erantzun partzialki zuzena":	% 35,0.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa "erantzun partzialki zuzena" (neskak):	% 34,9.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa "erantzun partzialki zuzena" (mutilak):	% 48,3.

Jarraian, proban parte hartu zuten ikasleek emandako erantzunetatik adibide gutxi batzuk erakusten dira, “zuzenak”, “partzialki zuzenak” eta “okerrak” diren erantzunak bereizita.


ZENBAIT ERANTZUN ZUZEN




Argi eta garbi jarraibideei eutsi die. Gainera, sormen apur bat (ilea) erakusten du irudiak.



Alboko eskuineko eskalatik pitin bat alenduta dago, baina jarraibideak egoki aplikatu ditu. Gainera, sormena eta mugimendua erakusten ditu.




Jarraibideei oso ondo eutsi die. Gainera, sormena erakusten du irudian (buruaren, jantzien eta jarreraren zehazkizunak).




Jarraibideak zehaztasunez aplikatu ditu. Gainera, sormen maila bat erakusten du (mugimendua, soinekoak, jarrera...), nahiz eta neurria apur batean gainditzen duen, baina irudiaren proportzionaltasuna apurtu gabe.


ZENBAIT ERANTZUN PARTZIALKI ZUZEN




Jarraibideei ondo eutsi die.



Jarraibideak interpretatu ditu eta beren funtsean aplikatu ditu.




Jarraibideak aplikatzen ditu, irudiaren proportzionaltasuna izan ezik, eta sormenez burutu du.




Neurri batean jarraibideei eutsi die, proportzionaltasuna ez baitu gorde. Dena dela, sormen apur bat aplikatu du irudia egiterakoan.

ZENBAIT ERANTZUN OKER



Zuzen interpretatu ditu jarraibideak, proportzionaltasunari dagokionari izan ezik. Ez du sormenik gaineratzen.

Osatugabeko irudia da. Jarraibideei eutsi die, baina ez du jarduera bukatu.





02

Ariketa hau egiteko argibideak jarraitu behar izan dituzu. Horrelakoetan emaitzak konprobatzen al dituzu lana burutu ondoren? Pauso guztiak eman dituzun egiaztatzen duzu normalean?

- A. Ez, lan bat bukatu ondoren aurrera jarraitzen dut atzera begiratu gabe.
- B. Batzuetan bai, batez ere lana zaila denean; bestela ez.
- C. Bai, emaitzak beti konprobatzen ditut.
- D. Bai, baina soilik irakasleak eskatzen duenean.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2. Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 7. Prozesuan zehar zeregina arautzea eta gainbegiratzea, eta ikasitakoa ezagutzea eta adieraztea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Jarraibideei eutsi behar duten jardueretan emaitzak egiaztatzen dituela ezagutzen du.
- **ERANTZUN ZUZENA:** C. Bai, emaitzak beti konprobatzen ditut.
- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
 Itema 2011ko kompetentziako pilotu proban erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa:	% 46,2.
Zailtasun-maila: erdi-maila.	
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak):	% 53,5.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak):	% 38,7.

Aurreko itemarekiko Pearson korrelazio-indizea 0,01ekoa da, indize txikitat har daitekeena; hau da, aurreko itemean puntuazio ona lortu dutenek derrigorrean ez dute erantzun "emaitzak beti konprobatzen dituztela".

03

Nola baloratuko zenuke egin duzun panpina?

- A. Sinplea, argibideak jarraitu ditut, besterik gabe.
- B. Saiatu naiz originala egiten, argibideak jarraitzeaz gain apaingarri batzuk jarri dizkiot eta.
- C. Itsusia atera zait, argibideekin nahastu naizelako.
- D. Nire gustuko panpina egin dut, nahiz eta argibideak zehatz-mehatz jarraitu ez ditudan.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2. Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 7. Prozesuan zehar zeregina arautzea eta gainbegiratzea, eta ikasitakoa ezagutzea eta adieraztea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Egin duen lana aztertu eta baloratzen du, eta jarraitu duen prozesuaren kontzientea da.
- **ERANTZUN ZUZENA:**
Itemari ez dagokio erantzun zuzenik edo okerrik. Itema erabili da konprobatzeko zein korrelazio-maila dagoen lehen itemean egin den jardueraren eta berari buruzko balorazioaren artean.
- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
Itema 2011ko kompetentziako pilotu proban erabili zen.

Aurreko itemarekiko Pearson korrelazio-indizea 0,28koa da; hau da, esan daiteke korrelazio positibo moderatua ematen dela lehen itemean lortutako puntuazioaren eta item hari buruz egiten duten balorazioaren artean. Aldiz, bigarren itemarekiko korrelazioa askoz txikiagoa da, 0,03koa.



Zein kiroletan konpontzen zara hoberen?

Galdera hori erantzun baino lehen garatuen dituzun gaitasun fisikoak zeintzuk diren jakin behar duzu.


Lau dira oinarrizko gaitasun fisikoak: indarra, abiadura, malgutasuna eta erresistentzia.

Oinarrizko gaitasun fisikoak

Indarra	Pisu bat jasotzeko edo erresistentzi bati aurre egiteko gaitasuna da.
Abiadura	Mugimendu bat edo desplazamendu bat ahalik eta denbora laburrenean egiteko gaitasuna da.
Malgutasuna	Gure gorputzeko atal desberdinak askatasunez mugitzeko gaitasuna da.
Erresistentzia	Esfortzu bat denbora luzez mantentzeko gaitasuna da.

Dakizunez, gaitasun fisikoen maila hobetu daiteke entrenamenduaren bidez.

Adinarekin ere maila hori aldatzen da:



04

Zure esperientzian oinarrituta, jaiotzen garenetik orain zeuk duzun adinera arte...

- Gaitasun fisikoak hobetzen joaten dira.
- Gaitasun fisikoek behera egiten dute.
- Gaitasun fisikoak berdin mantentzen dira.
- Gaitasun fisiko gehienak hobetzen joaten dira, baina ez denak.



ITEMAREN DESKRIPZIOA


- **DIMENTSIOA:** 1. Ikaskuntzarako berezko gaitasunen eta ezagueren kontzientzia.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 3. Gaitasun fisikoak eta mugimen-trebetasunak identifikatzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Bere ezaugarri fisikoak adinarekin aldatzen direla antzematen ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:** D. Gaitasun fisiko gehienak hobetzen joaten dira, baina ez denak
- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
Itema 2011ko kompetentziako pilotu proban erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa:	% 22,7.
Zailtasun-maila: aurreratua.	
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak):	% 29,9.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak):	% 15,5.

05

Kiroletan gaitasun guztiek parte hartzen duten arren, kirolaren arabera gaitasun bat besteen gainetik nagusitzen da. Adibidez, maratoian erresistentziak beste gaitasunek baino garrantzi handiagoa izango du.

Ondorengo marrazkietan kirol batzuk agertzen dira. Horietako bakoitzean **nagusitzen den gaitasun fisikoa** zein den erabaki ondoren, bete ezazu beheko taula "X" baten bidez. Gogoratu kirol bakoitzeko bat besterik ez duzula aukeratu behar.



	Abiadura	Erresistentzia	Indarra	Malgutasuna
a. Alpinismoa				
b. Jurtiketa				
c. Gimnasia				
d. Boxeo				
e. Txirrindularitza				
f. Lasterketa (50m)				

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2. Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 6. Zereginaren hasierako plangintza egitea (helburuak eta zailtasun- eta berritasun-maila ezagutzea), erabakiak hartzea eta gauzatzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Kirol batzuetako oinarritzko ezaugarri fisiko nagusiak identifikatzen ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:**

	Abiadura	Erresistentzia	Indarra	Malgutasuna
a. Alpinismoa		X		
b. Jaurtiketa			X	
c. Gimnasia				X
d. Boxeo			X	
e. Txirrindularitza		X		
f. Lasterketa (50m)	X			

- **ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK:**
 - Erantzun zuzen osoa: Ikasleak erantzun zuzena 5 edo 6 aukerei eman die.
 - Erantzun partzialki zuzena: Ikasleak erantzun zuzena 3 edo 4 aukerei eman die.
 - Erantzun okerra: Ikasleak erantzun zuzena 2 aukerei edo gutxiagori eman die, edo bati ere ez.
- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
 Itema 2011ko kompetentziako pilotu proban erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehuneko "erantzun zuzen osoan": % 56,6.

Zailtasun-maila: erdi-maila.

Erantzun zuzenen batez besteko ehuneko "erantzun zuzen osoan" (neskak): % 54,9.

Erantzun zuzenen batez besteko ehuneko "erantzun zuzen osoan" (mutilak): % 58,5.

Erantzun zuzenen batez besteko ehuneko "erantzun partzialki zuzena": % 19,9.

Erantzun zuzenen batez besteko ehuneko "erantzun partzialki zuzena" (neskak): % 24,3.

Erantzun zuzenen batez besteko ehuneko "erantzun partzialki zuzena" (mutilak): % 15,5.

06

Jenny 2. mailako neska bat da. Lehen Hezkuntzan zenean, eskola-kiroletan parte hartzen zuen. DBHra pasatu zenean, kirola uztea erabaki zuen, musikarekin jarraitzea nahiago zuelako.

Aitziber haren laguna da eta "Txori Eder" mendizaleen elkartekoa da. Bi eguneko mendi-martxa prestatzen ari dira elkartean, eguneko 6 ordukoa gutxi gorabehera. Oraindik hiru aste falta direnez, lagunei parte hartzeko gonbitea pasa die.

Jennyk ez du inoiz mendian gaupasa egin; beraz, gustura joango litzateke. Baina kezkatuta dago, aspalditik ez baitu ariketarik egin.

Zein aholku emango zenioke mendi-martxan ondo ibiltzeko?

- A. Besterik gabe parte hartzea.
- B. Astean hiru egunetan entrenatzea, gorputza prestatzen joateko.
- C. Aurretiko igandean mendira joatea, 4 orduko ibilaldia egitera.
- D. Ez du merezi ezer egitea: hiru astetan ez du hobetzeko denborarik izango.



ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2. Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 6. Zereginaren hasierako plangintza egitea (helburuak eta zailtasun- eta berritasun-maila ezagutzea), erabakiak hartzea eta gauzatzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Planifikaziorik egokiena identifikatzen du jarduera fisiko zehatz bat egiterakoan.
- **ERANTZUN ZUZENA:** B. Astean hiru egunetan entrenatzea, gorputza prestatzen joateko.
- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
 - Itema 2011ko kompetentziako pilotu proban erabili zen.
 - Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa: % 57,3.
 - Zailtasun-maila: erdi-maila.
 - Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak): % 62,5.
 - Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak): % 51,1.

07

Jennyren urtebetetzean mendiko botak oparitu zizkioten etxeok eta oraindik ez ditu estreinatatu. Mendi-martxara eraman nahi ditu. Zer egingo zenuke zuk bota berriekin?



- A. Mendi-martxako egunean lehen aldiz erabili, besteek ikusteko zein politak diren.
- B. Mendira joan aurretik, hiru asteetan zehar eraman, arratsaldeetan.
- C. Aitziberren ahizparenak eraman, oin-zenbaki bera du eta.
- D. Aurretiko igandean mendira eraman, 4 orduko ibilaldia egiteko.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2. Ikasteko prozesuen kudeaketa kontzientea, banaka zein taldeka eginda.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 6. Zereginaren hasierako plangintza egitea (helburuak eta zailtasun- eta berritasun-maila ezagutzea), erabakiak hartzea eta gauzatzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Jarduera fisiko bat egiterakoan, estrategiarik egokiena identifikatzen du baliabide zuzen erabiltzeko.
- **ERANTZUN ZUZENA:** B. Mendira joan aurretik, hiru asteetan zehar eraman, arratsaldeetan.
- **KONPETENTZIA-MAILA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAN:**
 Itema 2011ko kompetentziako pilotu proban erabili zen.

Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa:	% 42,7.
Zailtasun-maila: erdi-maila.	
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (neskak):	% 44,4.
Erantzun zuzenen batez besteko ehunekoa (mutilak):	% 40,9.